

# Goienkaria

2008ko apirilaren 18a > Egubakoitza > VIII. urtea > 328. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Behea joko du ekonomiak datorren urtean, eta kosta egingo zaio berpiztea"

Miguel Lazpiur > 09



**G2a**

Huheziren Literatura Astea, 10. urtez > 43-44

**EKONOMIA**

Fagor Etxetresna Elektrikoek 13,4 milioi irabazi zituzten iaz > 05

**MENDIKO LASTERKETA**

IV. Aloñako igoera egingo dute etzi, 300 parte-hartzaileekin > 41

**EUSKARA**

'Euskal Herriko ahotsak' proiektua eta webgunea aurkeztu dute > 51

**ARRASATE** > POLITIKA

## Zentsura mozioa kolokan dago

Ezker Batuak barne desadostasunak ditu, baina zinegotziek ez dute iritzia aldatu > 18

**TURISMOA** > SARIAK

## Kalitatea lantzeagatik 14 negozio saritu dituzte

Bailarako 14 negoziok -ostatuak, jatetxeak eta turismo bulegoak- jaso zuten *Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin* programaren diploma, martitzenean Kulturaten egindako ekitaldian. Turismo Sailak eta Euskalik fundazioak "bezeroen kalitatearen alde kudeaketan" egindako lanarengatik saritu zituzten. > 06

**ARAMAIO** > SARIA

## Salaberrik saria jasoko du etzi

Aramaion jasoko du Lekuona saria Sabin Salaberrik > 38



ELKARRI LOTUTA Leire Ezpeleta, Isa Casado eta Loreti Elortza, San Lorentzoko (Errioxa) magalean egindako entrenamendu saioan, zapatuan.

ISA CASADO

**MENDIKO ESKIA** > 'GLAZIARRETAKO PATRUILA' LASTERKETA

## Debagoienetik Suitzako glaziarretara lehiatzera

**EMAKUME TALDEA** Argazkiko hirukoteak osatuko du emakumezkoen euskal talde bakarra

**GAUR HASITA** 22:00etan dute irteera ordua, eta 16-17 ordu beharko dituzte proba egiteko > 40-41

Leire Ezpeletak, Isa Casadok eta Loreti Elortzak erronka gogorra hasiko dute ordu gutxi barru, Alpeetako Zermatt eta Verbier herriak banatzen dituzten 53 kilometroak egitea, *Glaziarretako Patruila* izeneko lasterketan.

Emakumezkoen taldearekin batera, Oñatiko Iban Letamendik eta Aitor Otxoak Fernando Monasteriorekin osatuko dute hirukoa; Suitzan ikasten dabilen Gorka Galdos ere lehiatuko da.

**AURKIBIDEA**

Debagoiena > 02-07  
Elkarrizketa > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

**SUPER AMARA**

**DENAK GUTXIAGO BALIO DU**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

Lehen mailako akaberak  
Dotorezia  
Deportibotasuna

**VOLKSWAGEN JETTA**

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

INGURUMENA &gt; OLIO BILKETA ARRASATEN

# Edukiontzia ipini zituztenetik, laukoiztu egin da jasotako erabilitako olio kopurua

**EDUKIONTZIAK** Goi Eskola Politeknikoak, Arrasateko Udalarekin elkarlanean, etxean erabilitako olio jasotzeko proiektua ipini zuen abian

**ERABILTZAILERAK** Galdeketa egin diete olio birziklatzera eramaten dutenei, eta sistemarekin gustura daude; kopurua da horren adierazle

**ENPRESA** Merkatu azterketa eginga, munduan beste inon ez dute horrelako sistemarik aurkitu olio birziklatzeko, eta asmoa da edukiontzia zabaltzea

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Birziklatzea da ingurumena zaintzeko bideetariko bat. Bide horretan pauso esanguratsua eman du Arrasateko Udalak, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoarekin elkarlanean: erabilitako olio birziklatzera botatzeko edukiontzia ipintzea.

Olio jasotzeko poteak 2007ko martxoan etxe etxe banatu zituzten, baina norbaitek ez badauka edo eskuratu nahi badu, BAZera jo behar du. Potea erraz betetzeko prestatua egoteaz gain, giltza funtzioa ere egiten du. Hau da, pote berezi horiek baino ezin dira edukiontzia berdeetan sartu eta, olioz betetako potearen truke, makinak pote berri bat emango digu. Makina txanponjaleek bezala funtzionatzen dute edukiontzioak, baina txanponen ordez poteak erabiltzen dira. "Beldurra geneukan, batez ere, pentsatzen genuelako adineko jendeak ara-

zoak izango zituela edukiontzia erabiltzeko. Baina argibideak ondo ipini genituen, eta, batzuek oraindik galdetzen duten arren zer egin behar den, atean dena ipinita dago eta, potea sartu eta tapara begiratu gero, argibideak jarraitzea baino ez da egin behar", azaldu digu proiektuaren arduradun Eñaut Ruiz de Eginok. Potea bera ere jendea kontzientziazteko modua dela ere esan digu: "Sukaldean potea ikusita, zartaginetik zuzenean harraskara bota beharrean, potera botatzen dugu olio. Lehen, potea eta inbutua eskura izan ezean, erraz botatzen zen harraskan behera".

Sistema abiarazi zutenean, jendeak etxean gordeta zeukan olio guztia bota zuen edukiontzietara. "Maiatzeko igoeraren ostean, jaitsiera etorri zen ekainean, baina gero, abuztuko beherakada salbu, gora joan dira kopuruak. Jendeak horren berri izan

**"Potea sukaldean ikusiz gero, harraskara bota beharrean potera botatzen dugu olio"**

**Arrasaten zazpi edukiontzia daude, 3.000 biztanleko bat, eta erdiguneko Eroskikoa baino arinago betetzen da**

du pixkanaka, eta birziklatzen ez zutenak ere hasi dira erabilitako olio jasotzeko. Badirudi arrasatearrek beraiena den asmakizun moduan daukatela. Izan ere, ez dago horrelakorik beste inon", esan digu Eñaut Ruiz de Eginok.

Guztira, zazpi edukiontzia ipini dituzte Arrasaten: Udala plazan, Otaloran, Obenerrekan, Musakolan, Eroskiko aparkalekuan, Zaldibar plazan eta Maiatzaren 1a plazan. "Ipini genuen, gutxi gorabehera, 3.000 biztanleko edukiontzia bat. Jendeak nahi du etxetik ahalik eta gertuen izatea, baina hori gastu handiegia litzateke. Ezin dira, beste edukiontzia bezala, toki guztietan ipini. Prezioa ez da arazo handiena, baizik eta ez direla besteak bezain arin betetzen", azaldu digu Ruiz de Eginok.

#### KOPURUAK, GORA

Horrelako edukiontzia ipini zituztenetik, laukoiztu egin da Arrasaten jasotako olio kopurua. Edukiontzia ez zeudenean, Ecogras etxeko kamioia pasatzen zen ibarreko herri guztietatik



EDUKIONTZIA Eñaut Ruiz de Eginok proiektuaren arduradun gisa.

bilketak egitera, eta egun ere, hala egiten du. Hala ere, edukiontziekin, igoera nabarmena izan da: hilabetean 400 litro jasotzetik 1.500 litro jasotzera pasa dira. Ecogras enpresa arduratzen da bilketaz, eta sumatu dute Gabonetan, esaterako, gehiago birziklatzen dela, eta udan, gutxiago. Pote berriak sartzeko, ez dago maiztasun zehatzik. Udal langi-

## Bloga, erabiltzaileen iritziak jasotzeko

Olio edukiontzien proiektua bultzatu dutenek erabiltzaileen iritziak jaso nahi dituzte, ahal den neurrian akatsak zuzentzeko eta sistema hobetzeko. Horretarako, blog bat ipini dute abian, eta hiru galdera planteatu dituzte.

1. Zergatik ez duzu birziklatzen?

2. Zein dira ez birziklatzeko aurkitzen dituzun oztopoak?

3. Ondo iruditzen zaizu potea bota eta momentuan bertan trukean beste pote bat jasotzea?

Eman zure iritzia blog honetan:  
[goiena.net/blogak/oliobilketa](http://goiena.net/blogak/oliobilketa)

## Puntu berde mugikorra, herriz herri

	ORDUTEGIA	HURRENGO BILKETA
Arrasate: Laubide plaza	09:00-13:00	Apirilak 25
Aretxabaleta: Gernika plaza	09:00-13:00	Apirilak 28
Eskoriatza: Eduardo Gorosarri Jaunaren plaza	09:00-13:00	Apirilak 25
Leintz Gatzaga: Herriko plaza	13:30-14:30	Apirilak 28
Oñati: Merkatu plaza	09:00-13:00	Apirilak 26
Bergara: Merkatu plazaren ondoan	09:00-13:00	Apirilak 26
Antzuola: Herriko plaza	09:00-13:00	Apirilak 25
Elgeta: Mendizaleen plaza	16:00-20:00	Apirilak 25



Arduraduna olio potea Udala plazako edukiontzian sartzen.

IRATI AGIRREAZALDEGI

kagunez balio guztiak neurtuta, ez dakigula noiz dauden edukiontzia beteta. Beteta egonez gero, edukiontzia ez du poterik ez hartzen ezta berririk ematen ere. Hortaz, batzuetan gertatu da jendea potea eramatera joan eta bota gabe geratzea. Edukiontzia batzuk betetzen dira astero, eta beste batzuk, bi astean behin. Edukiontzien kokapenaren arabera da hori: erdigunekoak betetzeko denbora laburragoa behar da, eta Eroski aldamenekoa bete dadin, gehiago", azaldu digu Eñaut Ruiz de Eginok.

Edukiontzien eta poteen itxura baloratzeko ere eskatu diete herritarrei. Proiektuko arduradunaren esanetan, "batzuek edukiontzia handia dela uste dute, baina, oro har, polita iruditzen zaie. Tamaina da, beharbada, gutxien baloratu dutena, baina, hala ere, zazpi puntutik gorako nota eman diote. Potearen balorazioa, berriz, zortzi puntutik gorakoa izan da. Gainera, galde-tu diegunean ea zer iruditzen zaien erabilitakoaren ordez momentuan, trukean, pote berria ematea, begi onez ikusi dute".

Edukiontzietako piezak hainbat enpresatetik eskuratu eta Garaia Berrikuntza Gunean egin dute muntaia, eskuz. Poteak eta karkasak, berriz, Ezkioetik ekarri dituzte. Eñaut Ruiz de Eginok berak ere potearen eta sistema-beraren beste abantailen berri ere eman digu: "Potea ondo itxiz gero, ez da olio usainik kanpora irteten; kamioi bidezko bilketan ez bezala, edukiontzia-aldamenek ez da langile bat egon behar poteak banan-banan hartzen; edukiontzia bandalimoaren aurka babestuta daude. Karkasa beira-zuntzekoa izanik, sua emanez gero belztu bai, baina ez da erreko. Gainera, orain sistema bat aztertzen dihardugu norbaitek barrutik errez gero sua itzaltzeko".

Sistema berria garbia iruditzen zaiela ere esan dute erabiltzaileek, eta diferentzia handia sumatu dute zerbitzuan kamioia etortzen zenetik oraingo sistemara. Zortzitik gorako puntuazioa eman diote alde horretan.

## Erabiltzaileen ustez, abantailarik handiena da 365 egunean 24 orduz nahi denean eramatea potea

## "Ecograsek aurretratatamendua egiten dio olioari, eta Bionorri saltzen dio biodiesel egiteko"

**MUNDURA ZABALTZEKO ASMOA**  
Erabiltzaileen ahotik sistema-aren balorazioa jaso ostean, bide-ragarritasun plana egiten dihardute, produktua merkaturatzeko izan ditzaketan aukerak aztertze-ko. "Jakin nahi dugu, Espainian ez ezik, ea Europan ere merkatura dezakegun horrelako edukiontzia bat. Guk dakigunaren arabera, munduan ez dago horrelako beste sistemarik olioia jasotzeko. Fagorrek interesa azaldu badu ere, patentea Arrasateko Udalarena da, eta gure asmoa litzateke enpresa bat sortzea produktu berritzaile hau munduan barrena hedatzeko".

**BIODIESELA EGITEKO**  
Olioia jaso bai, baina horrekin zer egiten duten da jende askoren zalantza. Eñaut Ruiz de Eginok esan digu biodiesel egiten dutela: "Ecograsek aurretratatamendua egiten dio olioari eta Bionorri saltzen dio biodiesel egiteko. Iruñean, esaterako, autobus guztiek %100 biodiesel erabiltzen dute; hemen, ordea, biodiesel deitzen zaio %5 biodiesel duenari; hortaz, ezin da erabilerak kontrolatu. Gainera, ez dago nahikoa landaketa, ez dago nahikoa olio auto guztiak biodieselarekin funtzionatzeko. Horregatik beharrezkoa da olio birziklatzea. Espainian %3 baino ez da birziklatzen eta beste guztia bota".

Galdeketa egin dutenean, ordea, aurkitu dute olio birziklatzeko edukiontzietara eramaten ez duenik ere: "Gehienek birziklatzen duten arren, batzuek esan digute etxean beste norbaitek duela birziklatzeko ardurak. Badago olio edukiontzietara ez bota eta txakurrei ematen dienak, eta bakarren batek xaboa ere egi-ten duela esan digu".

Jendea kontzientzia birziklatzeak ingurumenari egiten dizkion onurez. Paperak, beira eta ontziak birziklatzea gero eta ohikoagoa da eguneroko jardunean, eta olio birziklatzen ere badiharduten jendeak, pixkanaka. Hurrengo pausoa da Arrasaten sortutako proiektua hedatzea eta munduan barrena erraztasunak ematea jendeari birziklatzeko.

## 2007an jasotako olio kopurua

### PUNTU BERDE MUGIKORRA

Arrasate	2.410 litro
Bergara	4.280 litro
Oñati	3.965 litro
Aretxabaleta	2.439 litro
Eskoriatza	2.310 litro
Antzuola	783 litro
Elgeta	650 litro
Leintz Gatzaga	184 litro

### GARBIGUNEAK

Arrasate	1.300 litro
Bergara	375 litro
Oñati	350 litro

### EDUKIONTZIAK

Arrasate*	11.558 litro
-----------	--------------

\*Apiriletik abendura bitartean.

ITURRIA: DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

leak noizean behin pasatzen dira, eta edukiontzia hutsik daudela ikusitakoan, bete egiten dituzte. Beti sartzen dituzte pote huts gehiago. 176 pote sartzen dira beteta, eta hutsak 200etik gora, baina edukiontzia ez ditu sekula hartuko 176 pote bete baino gehiago.

### SISTEMAREN ABANTAILAK

Kopuruaren gorakada sistemak eskaintzen dituen abantailak eragindakoa da. Abantailarik nagusia da urteko 365 egunetan 24 orduz zerbitzua eskaintzea, orain arte ez bezala.

Jendearen iritziak jasotzerakoan, ikusi dute eskertu egiten dutela horrelako sistema bat eskura izatea, ez dutelako ordua kontrolatu behar, edozein unetan eraman ditzaketelako poteak. "Puntu berde mugikorrak ordu-tegi mugatua du, eta ordu horretan eraman ezin duenari, poteak

pilatzen zaizkio edo, bestela, harraskatik botatzen du", dio Eñaut Ruiz de Eginok.

Baina olio birziklatzeak, oro har, beste abantaila batzuk ere baditu. Ruiz de Eginoren arabera, "abantailarik garrantzitsuenak da olio litro batek 1.000 litro ur kutsatuko lituzkeela eta, birziklatuz, hori saihesten dugula. Gainera, ur azalean geratzen da olio, eta ez dio uzten urari oxigenatzen. Biodieselarekin, CO2 emisioak ere gutxitu egiten dira; bestalde, araztegiatan aberiak murrizten dira".

### ERABILTZAILIEN BALORAZIOA

Edukiontzia ipini zituztenetik urtebete pasatu denean, proiektuaren arduradunek erabiltzaileei galdeketa egin dizkiete olio bilketaren gainean. Funtzionamenduari dagokionez, erosoa iruditzen zaien ala ez aztertu dute. "Askok uste du, oraindik ez dauz-

# BERGARAN BILA ZABILTZANA



ARGIBIDEAK ETA SALMENTA  
**943 424 430**



[www.ormak.es](http://www.ormak.es)

ERAKUNTZA ETA SALMENTA



INGELAN  
CONSTRUCCIONES



**72**

etxebizitza, 1, 2, 3, 4 logelakoak, eta duplexak, garajeak eta trastelekuak

**HEZKUNTZA > GOIESKOLA**

Apirilaren 23an izango dira jardunaldiak, arratsaldeko lauretan hasita

Lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei zuzenduta daude jardunaldiak

# Hizkuntza irakasleei zuzendutako jardunaldiak



PRENTSAURREKOA Kepa Altube eta Lurdes Ugalde.

MIREN ARREGI

**ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE**

Hizkuntza trataera bateratuari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte apirilaren 23rako. Goieskolak, Debagoieneko Ikastetxe Publikoen Elkarteak, antolatutako ekitaldia da hilaren 23koa; horren berri eguaztenean eman zuten, prentsaurrekoan. Arrasateko Institutuan izango dira jardunaldiak.

Lurdes Ugalde, Goieskolako koordinatzailea, eta Kepa Altube, Oñatiko institutuko zuzendaria, izan ziren prentsaurrekoan. Eguazteneko jardunaldiak eskualdeko irakasleei zuzenduta daude eta Goieskolaren egitasmoaren barruan kokatzen direla azpimarratu zuten. Bi helburu dituzte: lehenengo helburua da bailarako irakasleen arteko harremanak eta eztabaidak bultzatzea; eta beste helburua da berrikuntza pedagogiko horiek ezagutarazi eta geletan martxan jartzea.

**CURRICULUM BATERATUA**

Ikastetxeetan eztabaida eta proiektu ugari bultzarazi ditu hizkuntza curriculumaren gaiak; horregatik, eguaztenerako antolatutako gaia *Hizkuntza curriculum bateratuaren beharra* da. Gainera, testuinguru elebidunetik sortutako aldarrikapena eta beharra dela konturatu dira. Izan ere, hizkuntzak irakastea gero eta zailago bihurtu da gure gizartean. Eskoletan hainbat hizkuntza kudeatu behar dituzte: bi hizkuntza ofizialak –euskara eta gaztelania– eta inglesa eta frantsesa. Gainera, kanpo jatorria duten ikasleen hizkuntzen aniztasuna ere kontuan hartu behar da.

Hilaren 23an, arratsaldeko lauretan, hasiko dira hitzaldiak. Izena eman gura duenak hilaren 21a arte du epea, [goieskola@euskalnet.net](mailto:goieskola@euskalnet.net) helbidera idatzita.

**Apirilaren 23a****16:00etan**

Bigarren Hezkuntza. *Mungia institutuko esperientzia.*

**17:00etan**

Berritzegune eta Hezkuntza sailekoek emango dute hitzaldia.

**18:00etan**

Lehen Hezkuntza. *Lemoizko Herri Eskolako esperientzia* eta *Ahozkotasuna: Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako esperientzia.*

errenta 07 |



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Ogasun eta Finantza Departamentua  
Departamento de Hacienda y Finanzas

# G<sub>2</sub> bitamina zara

Oinarrizko elikagaia zara berrikuntza, teknologia berriak, azpiegiturak eta garraio publikoa garatzeko.

**Zure ekarpena bitamina da Gipuzkoarentzat, eta zuretzat ere bai.**

[www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)  
**902 100 040**

APIRILAREN 18tik EKAINAREN 25era

**EKONOMIA** > IAZKO DATUEN BALORAZIOA

# Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak 13,4 milioi euroko irabaziak 2007an

Iazko ekitaldia 1.753 milioi euroko fakturazioarekin amaitu zuen taldeak

Europar lehendik duen sektoreko bosgarren fabrikatzaile postuari eutsiko dio Fagorrek

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak 1.753 milioi euroko fakturazioarekin eta 13,4 milioi euroko mozkinekin amaitu zuen iazko urtea. Halaxe adierazi zuten konpainiako arduradunek eguaztenean, Bilbon, komunikabideen aurrean. Jakitera emandako zifra horiek Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak iragan urtean egindako aurreikuspenak betetzen dituzte, eta errentagarritasunari emandako lehentasuna islatzen dute. Emaizta horiei esker, Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak Europar lehendik duen sektoreko bosgarren fabrikatzaile postuari eutsi dio.

**HIRU ARDATZ**

Merkatu kuotei dagokienez, eta herrialdeen arabera, honako hauek dira nabarmentzen direnak: Espainia (%19), Frantzia (%17,5), Maroko (%14,5) eta Polonia (%9,2).

Fernando Gomez-Acedo Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeko Artekaitza Kontseiluko presidentea eta Txema Gisasola zuzendari nagusiak jakinarazi zituzten iazko datuak eguaz-



PRENTSAURREKOA Bilbao, Gómez-Acedo eta Gisasola.

BURSON-MARSTELLER

tenean, Bilbon egindako agerraldian. Fernando Gomez-Acedok konpainiaren plan estrategikoaren ardatz nagusiak azpimarratu zituen: nazioartekotzea, berrikuntza eta iraunkortasuna. "Konpainiak etxetresna elektrikoaren merkaturaren bere lidergoa indartzeko apustuari eutsiko dio etorkizunean. Iazkoa urte ona izan da taldearentzat, eta oso pozik gaude lortutako emaitzekin", adierazi zuen Gomez-Acedok, herenegun emandako prentsaurrekoan.

**EUROPAKO BOSGARRENEN**

Gisasolak, berriz, lortutako emaitzen analisi sakona egin zuen, eta 2007an lortutako irabaziak nabarmendu zituen. Esan bezala, 13,4 milioi euroko irabaziak lortu zituen iaz Fagor Etxetresna Elektrikoak taldeak. Gisasolaren hitzetan, "Nazioarteko Kontabilitate Arau berriak (NIC) kontuan hartuta, irabaziak 2006koak baino %60 handiagoak izan dira, eta 131 milioi euroko EBITDArekin amaitu dute ekitaldia. Emaizta

horiei esker, Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak Europar lehendik duen sektoreko bosgarren fabrikatzaile postuari eutsi dio", azaldu zuen.

**NAZIOARTEAN**

Balio korporatiboei dagokienez, lehen aipatutako ardatz horiek 2009-2012 denboraldiko Plan Estrategiko berriaren indartuko direla nabarmendu zuen zuzendari nagusiak.

Nazioartekotzari dagokionez, esan bezala, Europako bosgarren fabrikatzailea da Fagor. 16 ekoizpen fabrika ditu sei herrialdetan banatuta: Espainian, Frantzia, Italian, Polonian, Marokon eta Txinan, hain zuzen ere. Horrez gain, eskumeneko enpresak ditu mundu zabalean, eta ehun herrialde baino gehiagotan dihardu lanean. Horrez gain,

DATUA

**16**

EKOIZPEN FABRIKA

Hamasei ekoizpen fabrika ditu sei herrialdetan banatuta: Espainian, Frantzia, Italian, Polonian, Marokon eta Txinan. Horrez gain, eskumeneko enpresak ditu mundu zabalean, eta ehun herrialde baino gehiagotan dihardu lanean.

ESALDIA

**"2008an, produktuen eta zerbitzuen salmentek %4,5eko hazkundera edukitzea eta 55 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusten dugu"**

Txema Gisasola > Zuzendari nagusia

aliantzak garatzearen aldeko apustua egin du Errusian, Txinan eta Euskal Herrian, hain zuzen ere, Mabe, AOSmith, Vaillant, PTC eta Meridian Energy Limited konpainiekin.

Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldea liderra da berrikuntzaren aldeko apustuan, eta jardueraren horretan 358 pertsonak egiten dute lan, 41 milioi euroko inbertsioa egin dutelarik.

Azkenik, iraunkortasunari dagokionez, gizartearekiko duen konpromiso sendoa bermatzea berretsi zuten taldeko ordezkariak, "ekonomian, ingurumenean eta gizartearen oinarritutako garapen iraunkorreko proiektuetara baliabide garrantzitsuak bideratuz".

Bukatzeko, 2008an, produktuen eta zerbitzuen salmentek %4,5eko hazkundera edukitzea eta 55 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusi dutela iragarri zuen Txema Gisasola zuzendari nagusiak.

**EPAIKETA** > PROTESTA EKITALDIAK

## Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deitutako mobilizazioak aste bukaeran hasiko dituzte

Aretxabaletan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten ekitaldiak egingo dituzte astelehenean hasiko den auzi politikoa salatzeko

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek apirilaren 12an egindako prentsaurrekoan aurreratu bezala, gaur hasiko dituzte protesta ekitaldiak, astelehenean hasiko den auzi politi-

koa salatzeko. Horren harira, aste bukaerako ekintza bakararra Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako Arrano Elkarteetan, eta Aretxabaletako Urbaltz tabernan egingo duten bideo emanaldia izango da; hain zuzen, 30 urteko lanaren laburpena izenekoak. Gaur Arrasaten egingo dute, 19:30ean; bihar, Bergaran, 19:30ean, eta Aretxabaletan, zehaztu gabeko orduan; eta domekan, Oñatin (18:30).

Bestalde, apirilaren 25a mobilizazio eguna izango dela aurreratu du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, eta Debagoieneko herri guztietan protesta ekitaldiak egingo dituzte.

**EPAIKETA, ASTELEHENEAN**

Astelehenean hasiko da Amnistiaren Aldeko Mugimenduen aurkako auzi politikoa, eta, guztira, 27 kide epaituko dituzte Madril; besteak beste, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Askatasuna, Etxerat eta Giza Eskubideen Behatokiko ordezkariak.

Auzi politikoa horrek azken 30 urteotan egin duen lana "kriminalizatu" nahi dela salatu dute. "Argi izan dezatela, azken presoak etxean egon arte, amnistiaren aldeko mugimendua egongo dela", esan zuten zapatuan egindako agerraldian.





SARITUAK Ostatu, jatetxe eta turismo bulegoak izan ziren saridunak, 14 guztira. Argazkian, saridunak jasotako diplomekin.

JASONE ZABALA

TURISMOA &gt; 'KONPROMISOA KALITATE TURISTIKOAREKIN' DIPLOMA BANAKETA

# Debagoiena kalitatezko opor-leku bihurtzeko konpromisoarekin lanean

Guztira, Debagoieneko 13 negoziok jaso zuten kalitate errekonozimendu diploma

Antolatzaileek lortu beharreko bi helburu nabarmendu zituzten: kontzientzia eta kalitatea

JASONE ZABALA &gt; ARRASATE

Bailarako 13 negoziok –besteak beste, ostatuak, jatetxeak eta turismo bulegoak– jaso zuten *Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin* programaren diploma, martitzenean Kulturaren egindako ekitaldian. Programa horren helburuetako bat Debagoieneko eskualdea kalitatezko aukera turistiko bihurtzea da, eta bestetik, aukera turistiko kontzientzia sortzea sektoreko profesional eta herritarren artean. Programa hori Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak bultzaturiko eta Euskalit Fundazioarekin batera garatutakoa izan da. Hori lortzeko, aipatutako programaren barruan egon direnei errekonozimendu diploma zitzaien, "bezeroen kalitatearen alde kudeaketan lanean diharduten enpresa eta erakundeei", antolatzaileen esanetan. Diplomak banatu aurretik, Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuorde Koro Garmendiak eta Debagoieneko Mankomunitateko lehendakari

Ino Galparsorok halako programen eta konpromisoen beharra azpimarratu zuten. Galparsororen ustez, "bisitariak Arrasate herriaren eta eskualdearen irudia munduan zabaltzen dute, eta eskualdea erakargarriagoa egiteko beharra dago". Garmendiak, bestalde, *bikain* batekin baloratu zuten eskualdeko turismoa, eta adierazi zuten aurrera jarraitu behar dela halako ekimenekin: "Turismoaren gestioa konplexua da, instituzio publiko askotako departamentu askoren arteko koordinazioa eskatzen du-eta. Gainera, kontuan izan behar da turismoak Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren %7 dakarrela".

## DIPLOMA BANAKETA

Ostatuei dagokienez, bost izan ziren diploma jaso zutenak: Antzuolako Ibarre baserri turismoa; Arrasateko Arrasate hotela; eta Oñatiko hiru ostatu: Etxe Aundi hotela, Soraluze hotela eta Arregi baserri turismoa. Azken

horretako Mertxe Esnaolak honakoa esan zuen: "Positiboa izan da halako programa batean parte hartzea; horrek bezeroak gure artean gustura sentiarazteko balioko du. Aurrerantzean, orain arte etorri den turistak errepikatu egingo du eskainitako kalitatea ona baldin bada eta, alde horretatik, baliagarria izan da programa hau". Diploma jaso zuten jatetxeak zortzi izan ziren:

Aretxabaletako Baster-Alde jatetxea; Arrasateko Hilarion eta Kanpazar jatetxeak; Bergarako Lasa eta Zumelaga jatetxeak; Leintz Gatzagako Gaztainuzketa jatetxea; eta Oñatiko Etxe Aundi eta Goiko Benta jatetxeak. Bergarako Lasa jatetxeke Koldo Lasaren ustez, "eskualdeko errepideen seinaleztapena hobetu beharra dago, turistak gal ez daitezen. Turistei alternatibak eskaini

behar zaizkie, batez ere, eguraldi euritsua egiten duenerako". Kanpazar jatetxeke Aitziber Uribeetxeberriak, berriz, hauxe zioen: "Funtzionamendurako eta antolaketarako, baliagarria izan da programa honetan parte hartzea; positiboa izan da". Turismo bulegoak ere saritu zituzten; zehazki, Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentroak jaso zuten diploma.

## Sektoreko lehen zilarrezko 'Q'-a jaso du Auzo Lagunek


Auzo Lagun enpresak kalitatearen kudeaketan bikaintasunaren errekonozimendua jaso du. Zilarrezko Q-a eskuratu zuen iazko abenduan, eta pasa den astelehenan egin zuten ekitaldia Garaia Berrikuntza Gunean. Sektoreko kalitateko zilarrezko Q-a eskuratu duen enpresa bakarra da. Ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Auzo Laguneko lehendakari Josefina Muxikak, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendari Elena Gutierrezek eta Euskaliteko presidente Txema Gisasolak.



Auzo Lagun, Euskalit eta Jaurlaritzako ordezkariak.

MIREN ARREGI

**kontsumoa**



Espanian konexioaren batz besteko abiadura 3Mb/s-koa da. HDANIEL

**Espaniako banda zabala, Europako Batasuneko garestien artean**

JASONE ZABLA > BERGARA

Espaniako banda zabala Europako Batasuneko batz bestekoa baino %26 garestiagoa da.

Internauten elkarteak (IE) Europan dauden 27 hornitzaileen eskaintzak, abiadurak eta prezioak konparatu ditu, eta zera ondorioztatu du: Espainian Internetera sartzeko konexio estandarren abiadura 3 Mb/s -tan dago, batz besteko 4.173 Kb/s- tik oso urrun. Prezioari dagokionez, berriz, batz beste 39,90 euro balio du, aztertutakoen artean zazpigarren garestiena. Konektatzeko denborari dagokionez, Espainian 3Mb/s duen konexioa bosgarren postuan gelditzen da. Gainera, banda zabaleko mega bakoitza kontutan hartuta, bosgarren garestiena da, batz bestekoa baino %38 garestiago (9,62 euro /Mb bakoitzeko hilean). Barne Produktu Gordinari (BPG) begiratuz gero, Europako garestien artean laugarren postuan dago, batz bestekorekin konparatuz % 37ko gehikuntzarekin.



**Gazteek, etxea erosteko, %132 gehiago irabazi behar**

Gazte batek etxea erosi ahal izateko, urteko 38.028,89 euro irabazi beharko lituzke Espainian merkatu libreko etxe bat erosteko. Horrek gaur egungo batez besteko soldatak (16.370,13 euro) %132,3 igotzea suposatzen du. Erkidegoei dagokionean, benetako irabazien eta etxea erosteko beharrezko diren irabazien arteko diferentzia handienak dituzten artean Euskal Autonomia Erkidegoa dago (%186,6), Balear uharteak (%183,8) eta Madrilgo erkidegoa (%182,3).



**Kreditu txartela galdu edo lapurtuz gero, zer egin?**

Halako egoeretan, funtsezkoa da denborarik ez galtzea. Lehenik eta behin, banketxearekin jarri behar da kontaktuan txartela baliogabetzeko, baita kreditu txartela lapurtu edo galdu deneko data eta ordu zehatza apuntatu, modu horretan erreklamazioa egin ahal izateko. Ondoren, poliziarengana joan behar da salaketa ipintzeko. Baina horrelako ezustek ez gertatzeko, ekidin egin behar da, ahal den neurrian, behintzat, kreditu txartel guztiak batera poltsiko berean eramatea.

**MOBILIZAZIOAK > ABIADURA HANDIKO TRENA**

**Desjabetze akten altxamendua atzeratuta**

AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako mobilizazioen ondorioz, Espainiako Sustapen Ministerioko ordezkariak ezin izan zuten ekitaldia burutu

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

Espaniako Sustapen Ministerioko kideek ezin izan zuten desjabetze akten altxatze ekitaldia burutu martitzenean. Hain zuzen, AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako mobilizazioek oztopatu zuten ekitaldia, eta beste deialdi bat egin beharko dute *Euskal Y*-a eraikitzeko Eskoriatzan behar dituzten lurak eskuratzeko. "Dena den, ez dut uste bigarren deialdi hori Eskoriatzan egingo dutenik", esan zuen alkate Pedro Lasagabasterrek.

ERTZAINEN LAGUNTZAREKIN

Goizeko bederatziak eta laurdenetan heldu ziren Sustapen Ministerioko ordezkariak Eskoriatzako udaletxera, eta ateak itxita aurkitu zituzten. AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, hainbat herritarrek eman zuten gaua Eskoriatzako udaletxean.

Sustapen Ministerioko ordezkariak udaletxean sartzen saiatu ziren ertzainen laguntzarekin, baina ez zuten lortu. Orduan, alkatea haiekin bildu zen kalean, eta ekitaldia bertan behera

uztea erabaki zuten. "Beraiekin berba egin ondoren erabaki dugu ez zela une egokia ekitaldia", esan zuen Pedro Lasagabasterrek. Horren harira, AHT Gelditu! Elkarlana taldeko ordezkariak pozik zeuden lortutakoarekin. "Desjabetze akten altxatzea egin izan balute, lur horietan sartzeko eskubidea izango lukete gaurtik aurrera. Ez dute lortu".

ARAMAIOKO EKITALDIAK

Bestalde, Gasteizko Batzarrak antolatuta, bizikleta martxa iritsiko da bihar, 18:30ean, Aramaiora, Leintz Gatzagan gaua pasa ondoren. AHTren inguruan alkatearen azalpenak entzun ondoren, afaria egingo dute eskolako jangelan.



ESKORIATZA Argazkian, desjabetze akten altxatzea egiteko unean udaletxe aurrean zegoen giroa.

ARRITXU BARRUSO

**OSASUNA > JARDUNALDIAK**

**Traumatologia jardunaldia egingo dute bihar Bergaran**

Estatuko laurogei espezialista elkartuko dira Lasa jatetxean

Debagoieneko ospitaleak antolatuko jardunaldia da

M.B. > BERGARA

Debagoieneko ospitaleko traumatologia zerbitzuak antolatuta, hezurretako gaixotasun metabolikoei buruzko egun bateko jardunaldia egingo dute bihar Bergaran. Guztira, Estatuko 80 bat espezialista elkartuko dira. Debagoieneko ospitaleko gerente Jose Luis Angulok egingo die harra, 09:00etan. Handik aurrera, hamar minutuko saioetan, hezurretako gaixotasun metabolikoen zerkusua duten 15 txosten aurkeztuko dituzte.

BI ZATITAN BANATUKO DA

Bergarako Lasa jatetxean egingo den jardunaldia bi zatitan banatuko dute: lehen zatian, bederatzi txosten aurkeztuko dituzte, besteak beste, Debagoieneko, Gurutzeta eta Santiago ospitaleetako traumatologoei; bigarren zatian, gainerako sei txostenak aurkeztuko dituzte. Jardunaldia borobiltzeko, hezurretako gaixotasun metabolikoen diagnostikoetan eta tratamenduetan dauden aurrerapenei buruz egingo dute berba.

## gure artekoak

**FORD FOCUS** > 1998an merkaturatu zuen Ford etxeak Focusa lehenengoz. Orduetik hona hainbat aldaketa izan ditu; azken berrikuntzekin abenduan merkaturatu zuten. Ibarrean, eta baita orokorrean ere, auto salduena da.

Iñaki Altuna Uribe > Salmenta saileko arduraduna

## "Hautsi ezina da; Ford Focus automobila betiko da"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Iñaki Altunak ez du dudarik egiten Ford Focusaren ezaugarri azpimarragarrienaz galdetuta: "Egonkortasun handiko autoa da; gainera, segurtasun neurri guztiak ditu".

Altunaren esanetan, "betiko" autoa da. Kanpoaldeari dagokionez, 12 urteko garantia dauka txapak. Mekanikak, berriz, bi urteko garantia dauka.

1998an merkaturatu zuen Ford etxeak lehenengo Focusa. Orduetik hona, hainbat aldaketa eta berrikuntza izan ditu. Irudia zertxobait aldatu dute, batez ere, aurrealdeko argiak. Baina, orokorrean, oinarri bera du lehenengo eta oraingo autoak: "Aldaketak hoberako izan dira", gaineratu du Altunak.

### EGONKORTASUN HANDIA

Egonkortasun handiko autoa da Focusa. Hori horrela, "gehien" saldu den autoa Focusa dela esan digu Altunak.

Segurtasunari dagokionez, oinarriko guztia dauka: sei airbag, ABS sistema, egonkortasun kontrola, trakzio kontrola eta beste hainbat sistema.

"Orain, beste marka batzuetako autoak Focusaren lau gurpileko trakzio bera jartzen ari dira", azpimarratu du Altunak.



Iñaki Altuna, Berría garajearen aurrean, Focus auto birenkin.

ARANTZAZU EZKIBEL

### Ford Focus 1.6 i16V 100 ZP

Prezioa	14.690 euro
Luzera	4,33 metro
Zabalera	2,01 metro
Maletategia	396 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	6,7 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	182 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	11,9 seg.
CO2 isurketak	159 g/km

(1) Gehienezko edukiera  
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta  
(3) Gehienezko abiadura

Aire girotua dauka autoak, baina aire girogailua gura izanez gero, aukera dago eskatzeko.

### MOTOR AUKERA ZABALA

Motorrari dagokionez, hainbat aukera eskaintzen du Focusak. Gasolinazko bederatzi aukera daude: hasi 80 zaldi potentziatik eta 225 zaldi potentziaraino. Gainera, 1,8 *flexi fuel* motorra gasolina eta etanolarekin dabil. Diesel motorretan, bost aukera daude: hasi 90 zaldi potentziatik eta 136 zaldi potentziaraino.

Hiru, lau edo bost ateko aukera zabala eskaintzen du Focusak.

## etxeke leihotik



Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

## Zentsura mozioa: eta alkate berri, zein?

**M**ondragoe ahoz aho dabil azkenaldian eta ez hain justu MCCk izena aldatu behar duelako. Isaias Carrascoren hilketa injustu eta gaitzesgarriak hautsak harrotu ditu eta alkatea aldatu nahian dabilta sozialistak eta popularrak batez ere. Jeltzaleak ere prest agertu dira horretarako, hasieran ezetz esan eta horregatik sekulako kritikak jasota iritzia aldatu ostean. EAKo zinegotziak ere baietz esan du, beste guztiak alde baldin badaude. Baina Aralarreko zinegotziak eta EB-Zutikeko hirurek ezetz esan dute. Eta, hala, alkatea kargutik kentzeko mozioak ezin du aurrera egin... oraingoz. 11 zinegotzi behar dira eta 10 daude baietza emateko prest. EBkoen teilatuan dago pilota. Arrasateko EBkoek ezetz esan dute, baina Euskadiko eta Madrileko alderdikide buruak haserre dituzte.

Zer egiteko aldatu alkatea, ordea? Eta zein jarri haren orde? Izan ere, norbaiten edo zerbaiten aurka egiteko ados jartzea errazagoa da alternatibak proposatzea baino. Sozialisten baldintza izan da haie-na izatea alkatea. 21 zinegotzitako udalbatzan elebidun ez den bakararra Arrasateko alkate? Oso naturala ez da.

**"Udalbatzan elebidun ez den zinegotzi bakararra Arrasateko alkate?"**

**> Umea euskaraz erregistratzeko sekulakoak eta bi egin dituzte debagoiendar familia bik. Aitzindari izan dira. Legea alde eduki arren, paper ziztrin batean erregistratu behar izan dute; ez liburu ofizialean.**

**> Ahotsak.com webgunea aurkeztu berri dute. Jende nagusiari egindako ahotsezko edo ikusentzunezko grabazioak jasotzen dira; Debagoienerako askorenak. Txalotzeko lana, oso erabilgarria, Badihardugurena.**

## begi-bistan



### Kultura Astea egin dute ETEOko ikasleek (Oñati) 2008/04/16

Argazkia: Susana Azpilikueta.  
Testua: Mireia Bikuña.

ETEoko ikasleek Kultura Astea egin berri dute. Besteak beste, pintxo dastatzea, perkusio taillerra, film laburren emanaldia, herri kirol txapelketa eta bazkaria egin dituzte.

### Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxo bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Itsaso Azkarate**

TAUN-TAUNEKO KIDEA



**Gerardo Markuleta**

IDAZLEA



**Jose Antonio Azpiazu**

IDAZLEA

Bergarako Taun-Taun taldeak 20 urte bete ditu helduendako txotxongilo antzezlanak egiten. Itsaso Azkarate, Karlos Odriozola eta Iñaki Mata dira taldeko kideak. Guztira, hamar lan aurkeztu dituzte. Azkena, *Batuta* izenekoa, Feten 07 jaialdian aurkeztu zuten.

Oñatiko idazlearen olerkiak jaso dituzte *Hatsaren Poesia Olerki Bilduma 2008* izeneko liburuan. Guztira, 130 olerki bildu dituzte; besteak beste, Itxaro Bordaren eta Joan Mari Irigoien lanak. Ikastetxeetako ikasleek poesiek ere jaso dituzte liburu berrian.

Oñatin bizi den idazle legazpiarrak liburua aurkeztuko du astelehenean, Donostiako Udal Liburutegian; hain zuzen, *La empresa vasca en Terranova* izeneko lana. Liburuan, Ternuaren historia kontatzen du enpresa arloaren ikuspuntutik.



Miguel Lazpiur (Bergara, 1942) Enpresen Elkarteetako Espainiako Konfederazioaren presi-

denteorde izendatu zuten apirilaren 10ean. Bestalde, uztailan bukatzen zaizkio Euskal

Enpresarien Konfederazioko (Confebask) presidente lanak. Oraindik ez du erabaki jarrai-

tuko duen, baina estreinatuko berri duen karguaz eta ekonomiaz egin digu berba.

Miguel Lazpiur > CEOEko presidenteordea

# "Behea joko du ekonomiak datorren urtean, eta kosta egingo zaio berpiztea"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Euskal Herrian oraindik *krisialdi* hitza ezin dezakegula erabili esan digu Miguel Lazpiurrek, CEOEko presidenteorde berriak. Gaineratu du ekonomiak 2009. urtean behea joko duela, eta kosta egingo zaigula ekonomia berpiztea. Horretaz guztiaz egin dugu berba harekin.

**Apirilaren 10ean izendatu zintuzten Enpresarien Elkarteetako Espainiako Konfederazioko (CEOE) presidenteorde. Zein izango da zure lana?**

CEOEko presidentea Gerardo Diaz Ferran da, eta harekin lan egiten 14 presidenteorde dade. Hain zuten, horietako bat izango naiz ni. Bi urte barru hauteskundeak egongo dira patronalean, eta ordura arte, behintzat, postu horretan jarraituko dut.

Bestalde, CEOE n egin beharreko lana Euskal Enpresarien Konfederazioan (Confebask) egiten dudana oso antzerakoa da; hau da, enpresaburuen interesen alde egingo dut lan.

**Nola uztartuko dituzu CEOE eta Confebaskeko lanak?**

Orain bidaia gehiago egin beharko ditut Madrilerara. Dena den, azkeneko hiru urteotan bueltak ibili naiz; izan ere, CEOEko batzorde exekutiboko kidea naiz. Horregatik guztiagatik, bi lanak ondo uztartuko ditudala uste dut, bi erakundeetan gai berei buruz egiten dugu eta berba, eta sindikatuen aurrean defendatzen ditugun asmoak ere oso antzerakoak dira.

**Nolako hartu-emana dago Confebasken eta CEOEren artean?**

Orain dugun hartu-emana nahiko ona dela esan daiteke, aurretik garai okerragoak bizi izan ditugu eta. Confebaskeko presidentea naizenetik, saiatu naiz etengabeko hartu-emana izaten. Kontu egin behar dugu Confebasken 15.000 enpresa dadelako, eta, guztira, 500.000 langile inguru. Hortaz, Espainia mailan, erakunde indartsuenetakoen artean gaude.

Gainera, nire izendapenarekin berriro itzultzen da euskal enpresarien ordezkaria presidenteordeztakoa lanetara.

**Confebasken duzun agintaldia uztailean bukatzen zaizu. Erabaki duzu zer egin?**

Hiru urteko agintaldia uztailean bukatzen zait. Normalean, idatzita ez dagoen lege bati jarrai-



Argazkian, Miguel Lazpiur, Confebaskeko bere bulegoan.

GOIENKARIA

tuz, Confebaskeko presidentek bi legealdi betetzen ditu. Egia da, baita ere, hurrengo presidentek Bizkaiko patronaleko ordezkaria izango beharko lukeela. Baina oraindik ez dut erabakia hartu.

**Nola dago ekonomia gaur egun?**

Argi dago poliki-poliki beherakada doala. Confebasken, Gabonetan egindako aurreikuspenetan, esan genuen, beherakada egon arren, Euskal Herriko ekonomia %3,1 igoko zela, eta Espainiako, %1,5. Dena den, ez dakigu zehatz-mehatz aurreikuspen horiek beteko diren. Iaz, adibidez, Euskal Herriko ekonomia %4 igo zen.

Euskal Herriko ekonomiaren egoera ez da Espainian dagoena bezain larria. Espainiako ekonomiaren ardatz nagusia erakuntza-enpresak dira, eta horiek bizi duten krisialdiak ekarri du, hein handi batean, ekonomiaren jaitsiera. Aldiz, Euskal Herrian

ERRELEBUA

**"Confebaskeko agintaldia uztailean amaitzen zait, eta oraindik ez dut erabaki jarraituko dudana"**

KRISIALDIA

**"Euskal Herriko ekonomiaren egoera ez da Espainian dagoena bezain larria 'krisialdi' hitza erabiltzeko"**

DEBAGOIENEAN

**"Debagoienez, bizi maila ona dugu, baina mantentzeko gogor egin behar dugu lan"**

industria da nagusi. Horregatik guztiagatik, hemen dugun egoera ez da hain larria *krisialdi* hitza erabiltzen hasteko.

Bestalde, Confebasken nahiko garbi ikusten dugu krisialdi egoera areagotu egingo dela datorren urtean. Hain zuzen, behea joko du ekonomiak.

Arazoa krisialdiari irtenbidea emateko orduan egongo da. Guk uste dugu bi urte beharko ditugula krisialdiari buelta emateko. Denbora laburragoa behar badugu, hobeto, baina aurrekariak diote epe hori beharko dugula. Dena dela, industria sektorearen laguntza beharko da horretarako.

**Horren harira, nola ikusten duzue Debagoieneko ekonomia?**

Debagoienez bizi maila oso ona dugu gehienok, baina ezin gara geldi egon. Bizi maila mantentzeko, lanean jarraitu behar dugu, eta gogor, gainera. Era berean, eskulan falta dagoela

uste dugu, eta beharrezkoa dugu hori bailarako ekonomia berpizteko.

**Krisialdiak norengan izango du eragina?**

Krisialdia guztiok jasango dugu, era batera edo bestera. Orain larrien eraikuntza-enpresa arloan gaude; baina, horien atzetik, beste asko etorriko dira. Ez dakiguna da bakoitzari zenbateraino eragingo dion. Baina guztiok gertu egon behar dugu.

**Espainian, Gobernuak estreinatuko du. Ze hobekuntza ekarriko ditu?**

Oraindik ez dakigu. Hauteskunde kanpainaren barruan agindutako hobekuntzak, besteak beste, lan merkatuaren erreformak, Gizarte Segurantzako kostuak eta enpresariendako zergak, nahikoak ez direla uste dugu. Hemendik aurrera, Espainiako Gobernuak benetan egiten dituen proposamenak zeintzuk diren ikusi beharko dugu.



zabalik

Txipi Ormaetxea

## Ondarea gorde

Gure ondarean garrantzi handikotzat jotzen dugu gehienok geure hizkuntza. Euskara aldatzen eta egokitzen ari da uneoro. Horrela, garai bateko hitz edo esamolde askok ez digute gaur balio. Baina beste askok bai. Eta, edozein kasutan, gaur erabilgarri ez direnak ere gutxienez jaso beharko genituzke. Eta ondare hori gehienbat gure zaharregan aurkitzen bada ere, sarri ez diegu arreta handirik ipintzen.

Azken elurtean, beheko suaren inguruan goxo-goxo ginela, nik aipatu nuen beheko suaren kristala garbitzeko sutako hautsa erabiltzen nuela. Hitzak hizpidea ekarri zuen, eta amak jaso gabe nuen berba bat bota zuen: *auslandarra*. Ondo ulertu banuen, hauxe zen auslandarra: ontzi handi batean ura irakin eta hautsa botatzen zen, eta han garbitzen ziren lapikoak eta trasteak. Iza-girrek Oñatin jaso zuen berba hau, baina Azkuek, esaterako, ez dakar.

Beste kontu batzuek ari ginela, amak lege berba erabili zuen nik jaso gabe nuen adieran, hau da, "maitasun" edo "txera" adieran: *Nik oni lege aundixe dutset, eta asko gure dutset*. Hau Azkuek be jaso zuen eta gero hiztegi gehienek ere badakarte, baina ez guztiek. Eta iruditzen zait guzti-guztiek jaso beharrekoa dela, erabat erabilgarria baita gaur egun ere.

Eta kontutxo hauek esanda, Arratia aldean azken urteetan egin duten lan polit baten propaganda egin gura nuke: *geureberbategie* du izena, eta Interneten aurkituko duzu. Ikasleak, irakasleak, gazteak, zaharrak... inplikatu, hiztegi bat, berbategi bat osatzen joan dira, eta jada 4.000tik gora sarrera ditu (berbak, esaerak, gaitzizenak, gazteen esamoldeak, toponimoak...). Auzolanaren ideia hau kopiaitzeko modukoa dela begitantzen zait.

**"Gaur erabilgarri ez diren hitzak ere gutxienez jaso beharko genituzke"**

**"Arratian lan polit bat egin dute, 'geureberbategie': 4.000tik gora sarrera ditu"**

## Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailletako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegui, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko  
JaurilartzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaAretxabaleto  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

## herritarrak galdezka

BIDEGORRIEN ALDEKO  
MARTXA NOIZ DA?

**Oñatiko irakurle batek hilero bidegorri sarea egin dezaten eskatzen egiten duten bizikleta ibilaldian parte hartu gura du, eta hauxe galdetu digu: "Noiz izango da hurrengo? Martxokoan irten gura nuen, baina ez zuten egin".**

Oñatiko Txirrinka bizikletazale elkarteak hilero antolatzen duen bizikleta martxa martxoaren 28an izango zela iragarri zuen, ohikoa baino aste bete geroago, Aste Santuagatik. Azkenean, ordea, martxoko ekitaldia bertan behera uztea erabaki zuten. Hurrengo bizikleta martxa gaur, egubakoi-tza, izango da, beti bezala, 18:30ean Oñatiko plazatik hasita. Ibilaldia leku berean bukatuko dute. Hurrengo ibilaldiak maiatzaren 16an, ekainaren 20an eta uztailearen 18an egingo dituzte.

ETXEAN SAHARAKO UMEAK  
HARTZEKO ZER EGIN?

**Arrasateko irakurle bat, udan Saharako umea etxean hartu nahi duela-eta, guregana zuzendu da: "Jakín nahiko nuke ea baldintza**

**berezirik bete behar den umea etxean hartzeko; bikoteek bakkirik har ditzakete, ala umeak dituztenek?"**, galdetzen digu.

Arrasate, Eskoriatza eta Oñatiko, Nubi elkarteak darama *Oporrak bakean* programa. Izenematea zabalik dago honako telefono zenbakietan: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18. Edozein modutan, Nubik batzar infor-ma-tiboa deitu du datorren aste-

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

lehenerako, Kulturaten, 18:30ean; iaz umeak hartu zituzten familia batzuk ere egongo dira.

Bestalde, ez da nahitaezkoa seme-alabak edo bikotekidea edukitzea; "bi hilabetean zehar haur saharar bat hartu nahi duen edonork parte har dezake", azaltzen du elkarteak. Izenemate epea apirilaren 30ean bukatzen da.

UDALTZAINAK AUZOETARA ZE MAIZTASUNEKIN DOAZ?

**Zubiaurren bizi den bergarar batek honakoa dio: "Gidari batek autoa etxebizitza bateko garaje ate aurrean laga zuen. Udaltzaingoa kostata topatu ondoren, autoak han segitu zuen bazkalostean ere ordubetez. Udaltzaina zenbetean behin dator auzoetara?"**

Bergarako Udaltzaingoa erantzun digunez, "goizeko lehen orduan eta goizean barrena errondak egiten dituzte udaltzainek herri osoan, kalean zein auzoetan. Horrelako abisuak egunero jasotzen ditugu; halakoetan, dei dezatela Udaltzaingoa 943 77 91 06 telefonora eta segituan joango gara".

## marrakiz

Unai Busturia



## Madrilgo inpresioak

Pello Urzelai

www.berria.info/blogak/pello

Hitzaldi luze eta aspergarrietatik atera daitezkeen ondorioak alde batera utzita, zenbait inpresio edo irudipen ekarri ditut Madriletik, Espainiako Kongresutik. PSOE eta EAJren arteko barne komunikazioa ez da ona. Batzuen eta besteen hizkerak ez daude ongi sintonizatuta. Hori iruditu zitzaidan, Erkore-

ka eta Zapateroren artean «arriskatzeari» buruz izan zuten gaizki ulertzea entzunda. Horrekin batera, sozialisten jarrera harro samarra sumatu dut. Euskal auziari begiratzen diotenean, 169/7 proportziotik begiratuko baliote.

EAJ apalduta ikusi nahi dute sozialistek. Hitz egin bai, baina ez edozertaz. "Badakite zeri buruz iritsi gaitzekkeen akordio batera, estatutu erreforma bati buruz, edo nahiago bada, autogobernuaren sakontzeaz, beraiek ikusiko dute zer nahi duten". Holako komentarioak entzun daitezke Kongresuko pasabideetan.

## Arraro samarra naizelako edo

Luis Aranberri 'Amatiño'

eibar.org/blogak/amatiño

Zenbait entzunez gero, badirudi Arrasaten alkatea aldatu nahi izana edo, hobeto esan, ANVri alkatesa kendu nahi izatea, traizio mortala dela, aberriaren kontrako eraso bortitza. Eta, ez dakit ba nik horrenbeste ote den.

Eusko Alderdi Jeltzaleari Azpeitiko alkatetza kendu

plazara

Hezkuntza curriculum berriak soinketa ikasgaiaren aldaketak ekarri ditu: derrigorrezko ordu kopurua murriztu egin da, eta ikaste-

txeen esku utzi du Hezkuntza Sailak ordu gehiago eman edo ez. Horrekin ez datoz bat SOHAT taldean batu diren soinketa irakas-

le gehienak. Joan den egubakoitzean, Huhezinegin zituzten euren errebindikazioak, eta honako artikuluan azaltzen dituzte.

Luis Larrañaga \*

## Soin hezkuntzaren heriotza ala piztuera?

Maiatzaren 3an urtebete beteko da Hezkuntza Sailak Curriculumaren Dekretuaren zirriborroa aurkeztu zuenetik. Bertan ezagutza arlo bat atera zen kaltetuena: soin hezkuntza.

Curriculum diseinu horretan teknikariek lehengo ordutegia erabili zuten oinarri bezala (Lehen Hezkuntzan 2,5 ordu eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bi), gero jarraian eskoletan zuen presentzia %40 murrizten zen (Lehen Hezkuntzan astean 2,5 ordu izatetik 1,5 ordu izatera, eta DBHn maila bakoitzean bi ordu izatetik lau mailatan bost ordu izatera) eta hori, inongo azalpenik eman gabe. Curriculum horretan, ikasleek lortu behar dituzten kompetentziak daude idatzita. Irakasle bezala, gure lana ikasleak horiek lortzera laguntzea da. Lan honetarako %40ko murrizketa ezartzen bazaigu, oso garbi dago ikasleekin egin behar dugun kompetentzia lorpen horietan arazoak izango ditugula. Dokumentu horretan ikasleei zer eskatzen zaien ikusita, ezinbestekotzat jotzen dugu astean gutxienez ordubeteko bi saio izatea. Baina legez, ez gomen dio hutsak, Hezkuntzako arduradunek nahi duten bezala.

SOHATetik (Soin Heziketaren Aldeko Taldea) ikerketa bat burutu dugu 140 ikastetxetan soin hezkuntzak betetzen dituen orduen inguruan. Emaitza 86 ikastetxetan indarrean dagoen legea ez dutela betetzen izan da. Garbi geratzen da Hezkuntza Sailetik gure ezagutza arloa gutxietsia eta alboratua dagoela. Egoera hau legea indarrean egonda gertatu baldin bada, zer espero dezakegu



MIKEL ARROIABE

ikastetxeetara ikasturte hasieran bidaliko dituzten gorputz hezkuntzaren garrantzia azpimarratzeko balizko gomendioez?

Murrizketaren erabaki ulerterezin horrek kezka handiak sortu ditu irakasle, guraso, ikasle, mediku, kirolari eta hezkuntzako hainbat eragileren artean.

Hezkuntza Sailekoek murrizketa justifikatzeko eskolan egiten ez duten soin hezkuntza gero eskola kirolaren bitartez orekatuko dela esaten dute. Eusko Jaurlaritzako Kirol teknikari Dorleta Ugaldek ere eskola kirolaren egoera sakonki kritikatzeko du. Begiraleen trebakuntza kasu askotan eskasa omen da, beharrezko prestakuntzarik ez dutelako. Hezkuntza

**"Ezinbestekotzat jotzen dugu astean gutxienez ordubeteko bi soin hezkuntza saio izatea, legez"**

**"Soin hezkuntza eskola kirolarekin orekatuko dela diote, baina eskola kirola hezigarri izatetik urrun dago"**

Sailak ez omen du esku hartu nahi eta, horrela, eskola kirola hezigarria izatetik urrun geratzen omen da. Kirol federatuaren ispilu izaten jarraitzen du, emaitzaren arabera antolatuta. Eskola kirolean parte hartzen duten haur gehienek ondo pasatzea dute helburu, ez dira errendimenduari bila ari, baina eskola kirolak ez ditu behar horiek asetzen.

Une honetan, gure proposamena (bi ordu LHn eta DBHn) hezkuntzako eragile guztiei (EHIGE, Sarean, BIHE, Sortzen-Ikasbatuaz, Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, CCOO, ELA, LAB, EILAS, UGT) azaldu diegu eta hauengandik jaso dugun babes nahikoa izatea espero dugu Hezkuntza Sailak dekretuan ordutegi aldaketa txertatzeko.

Gure aldetik ere, profesional bezala, autokritika egin behar diogu gure buruari: prestakuntza eta ikerketa bultzatu behar ditugu; talde lana bultzatu, mintegiak garatu eta esperientziak trukatu; ikastetxeetan familiei zuzeneko informazioa eskaini...

Bide hau eginez, soin hezkuntza eskoletan eta gizartean behar dituen lekua eta duintasuna berreskuratuko ditu. Baina irakasle onak izateko bidea jorratzeaz gain, presio soziala eta babes soziala landu behar dugu, administrazioak jarreraz alda dezan. Esperientziak erakutsi digu konponbidea landu egin behar dela, baina soin heziketak dituen balio hezitzaileetan sakonki sinesten dugulako, gustura eutsiko diogu.

\*Soin Heziketaren Aldeko Taldeko (SOHAT) bozeramailea.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Oinezkoendako hesiak ideia ona dira?

BAI	%40
EZ	%60

> GURE ONERAKO DA

Bidea toki egokitik gurutzatza behartzen bagaituzte, gure onerako da. Eta, seme-alabak ditugunok ere ohitu beharko genituzke.

Marta

> UMEEI IRAKATSI

Horrelako neurriak beharrezkoak ikusten ditut, batez ere, umeei erakusteko nondik ibili behar duten.

Karlos

> GIDARIAK ERE BAI

Gidariak kontu handiagoz ibiliko balira, ez litzateke arazorik egongo, ezta hesirik jartzeko beharrik! Aitor

> OHITURA KENTZEA, ZAILA

Ondo dago espaloiak egokitzea gurpil aukietan dagoen jendearentzat, adibidez, baina hortik guztia barandaz betetzera... Jendea ohitu egin da era batera eta hori kentzea zaila da. Gainera, horretarako erabiltzen duten dirua erabil dezakete beste gauza batzuk hobetzeko.

Asier

**DATORREN ASTEKOA: Ondo iruditzen zaizu Joko Olinpikoei boikota?**

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

zitzaion, hamazazpi zinegotzitatik zortzi lortu arren, eta, nik dakidanez, ez zen mundua erori. Beste horrenbeste gertatu zen Zumaian, Arteagan, Igorren edo Muskizen (...).

Harrigarria gero zergatik ANVri alkatea kentzea apokaliptiko samarra den eta PNVri kentzea, ostera, joko demokratiko hutsa baino ez. Zenbaitek esango du kasu diferentek direla. Jakina diferentek direna, norberari tokatzen zaionean beti iruditzen zaigu diferente (...).

Eta ulertu ere ez dut ulertzen zergatik zenbait jeltzale gehiago kexatu den

Arrasaten ANVri alkatetza kentzeagatik, Azpeitian ANVri PNVri berari kentzeagatik baino. Nik behintzat ez dut ulertzen. Baina, tira, behar bada, ni arraro samarra naizelako edo izango da...

### Patxitrapero

Patxi Iraeta  
[www.blogak.com/zabaldegia](http://www.blogak.com/zabaldegia)

Patxi Iraetak, bere bloga hain ezagun bihurtu zenetik, anonimotasunaren parte handi bat galdu egin du, baina horrek ez dio ekidi-

ten hasieratik jarraitutako bide berdinari jarraitzea (...).

Berdin da blog bat idazle famatu batena izan, edo pertsona ezezagun batena. Aukera zabala dago; umorea, informazioa, kirol konkretu bati buruzko bloga. Guzti honekin irabazle nabari bat dago; internauta. Ezinezkoa da blog guztiak kontrolatuta izatea; horregatik askotan internautak ez daki zeintzuk diren existitzen diren blogak. Hori dela eta geratzen zaigun irtenbidea gure interesak asetuko dituen blogak bilatzea da. Hortik aurrera, hiru aukera ditugu: idatzi, irakurri edo idatzi eta irakurri.

koplak

Enaitz Alustiza

### Ez dut nahi

Zazpi hilabete bete dituen Txekiako abenturan, Berri batekin gelditu nintzen Burua galtzeko mugan.

Larunbata zen, nik igandean Jaso nuen oihartzuna Ez dut ahaztuko Txapi barrura Eraman zuten eguna.

Halakoetan jasanezina Bihurtzen da distantzia Ta biderkatu egiten dira Mina ta inpotentzia.

Albiste txarrak nahiz asko entzun Bat zen ikaragarria Ez zen batere gozoa izan Gose grebaren berria.

Bera bezala ehunka daude Eta ez dira alperrik Ederki dakit Txapi-rena da Adibide bat bakarrik.

Dagon lekura muxu handi bat Ta sendiari ere bai Ez dut ahaztu, ez dut ahazten, Ez dut ahaztuko, ez dut nahi.

## Kontuz txakurrarekin!

Jose Inazio Isasmendi  
Aretxabaleta

Debagoieneko Mankomunitateak, orain dela gutxi, *Oinez Debagoiena* liburua 21 ibilbide laburrekin (PR deitutakoak) argitaratu du. Oso interesgarri eta gomendagarria.

Emaztea eta biok, astiro-astiro, bagabilta ibilbide hauek betetzen, baina domeka honetan egindakoari informazio pixka bat falta zaiola uste dugu. Elgetara abiatu ginen PR GI-90 ibilbidea (Elgeta, Aixola urtegia, Elgeta) egiteko asmoz.

Txuri eta horizko markak jarraituz, ibilbidea arazorik barik hasi genuen. Bidegurutz baten, zalantzan egon ginen, baina baserritar batek lagundu zigun bide zuzena hartzen.

Eskerrak eman ondoren, jarraitu genuen gure ibilbidea. Kilometro pare bat geroago, Egoetxeaga auzora heldu ginen. Bidea goitik behera doa eta lehenengo Egoetxeaga Aurten-goia baserri dotorea pasatzen da. Ondoren, Egoetxeaga Barrenengo baserrira heldu ginen eta hemen ikaragarriko harrera izan genuen. Ez bat, ez bi, ez hiru... lau txakur zaunka gure aurrean. Itxuraz, hamarretakoagin barik zeuden. Makila bat hartu genuen eta, jotzeko keinuak egitean, joaten ziren atzerantz, baina berehala bueltatu eta erasoan etortzen ziren guregana. Minutu batzuk geroago, bertako jabea agertu zen eta komentatu genion txakurrek lotuta egon behar dutela. Jabearen erantzuna,

ostera, txakurrak euren etxean zeudela eta kanpotarrak gu ginela. Gure aldetik, ostera, bide publikotik gindoazela eta eskubidea geneukala handik ibiltzeko. Eta jabeak, berriz, etxea berea dela eta nahi duena egiten duela, baina lasai egoteko, "txakurrek ez dute ezer egiten-eta". Esaldi hau beti entzuten diegu txakurren jabeek. Beraiei akaso ez diete ezer egingo, baina guri, auskalo!

Bidea jarraitzeko puntu horretan ez daude markak. Bat ikusi genuen metalezko ate baten, baina lurrean botata zegoen. Gure helburua zen ibilbide osoa egitea. Alde batera eta bestera begira egon ondoren, txakurren jabeak lagundu zigun bide ona hartzen (ez da samurra topatzea). Azkenean, eta hankak oraindik dardarka, sustoarekin, eskerrak eman genizkion jabeari (eta makilari). Beraz, 51. orrian eta goiko aldean agertzen den esaldia: "...eta ondoren Barrengo (Egoetxeaga Barrengo)", zera gehitu behar zaio: "Kontuz txakurrekin eta galdetu jabeari nondik jarraitu".

Beste dena, bikain. Animate nahi dugu jendea ezagun ditzagun gure txoko eta bazterrak. Debagoienak merezi du-eta.

## Etika?

Anjel Bergaretxe  
(Hautetsi desjabetua)  
Aretxabaleta

Etikaz mintzo dira talde terrorista bat antolatu eta diru publikoaz finantzatu zutenak, eta haien bidaiak lagun izateko inongo arazorik izan ez dutenak. Etikaz, tortura babesten dutenak, bai hori posible egiten duten lege bereziak onartu eta aplikatuz (haien aurka daudela esan arren), bai torturatzaile zigortuak indultatuz. Etika aipatzen dute ustelkeriaren txapeldunek.

Horrekin batera demokrazia ere badabil, lehenengo isilarazi, eta gero euren hitzak errepikatzen behartu nahi gaituztenen ahotan. Demokrazia omen dira eskusio politikoa arau bihurtu dutenak. Adierazpen askatasuna, biltzekoa, nork bere kabuz pentsatzekoa pikutara bidali dutenak. Demokratik, herri kontsultak ukatu eta galarazi arren, gizartearen gehiengoak zer nahi duen inork baino hobeto ei dakiten horiek.

Etika eta demokrazia aldarrikatzen dute, hilabete luze honetan Inoren izena eta izana zikindu nahian ibili direnak. Etika eta demokrazia, benetako linterak hau gidatu eta bultzatu dutenak, arrasatearren borondatea beste behin ere baztertzeko gertatzen ari direnak.

Ba, hara. Begira zelan diren gauzak. Niri, behintzat, ezinezko egiten zait etika hitza zuekin lotzea. Baina,aldi berean, gure barik ere burura etortzen zait Inorekin pentsatzerakoan. Hori, eta baita beste berba batzuk ere: duintasuna, lana, koherentzia... Eta ez niri bakarrik. Ziur nago berdin gertatzen zaiela Ino lanean edota militantzia politikoa ezagutu duten gehienera ere. Eta berdin, bera buru zuen zerrendari bozka eman zioten hiru milatik gora arrasatearrek ere. Eta behar bada azken hau da inkisidore berri hauei jasanezina gertatzen zaiena.

Besarkada bat ba, Ino. Zuretzat eta zurekin batera, arrasatearren agindua betetzen ahalegindu den taldearentzat, hitza eta lanerako gogoia, beste armarik ez dituzuela. Eta jakina, baita "etikoen" mehatxu berri hau jaso duten hautetsi guztiei ere. Esaldi hau erabiltzea arriskutsu bihurtu den arren, maite zaituztet. Maite zaituztegu.

Aurrera bolie!

## Mugitu bizikletan Oñatin

Daniel Enparantza  
Oñati

Leloak esaten duen moduan, bizikleta erabiltzeko gonbita egiten diegu Oñatiko herritarrei eta parte hartzeko deialdia ere. Kalera atera besterik ez dago ikusteko gure Oñatin zenbat gabezia dauden oinezkoendako eta bizikletazaleendako. Oñatiko Udala plangintza orokor bat egiten ari da hori bideratzeko, baina horretarako ez du harremanik izan ez gure taldearekin eta, guk dakigula, ezta herriko beste elkarteekin ere; bere garaian herritarren parte hartze hori azpimarratu zuenean.

Horrela, Txirrinkak hilabete hiru garren egubakoitzetan herriko plazan 18:30ean herritarrek bizikletarekin parte hartzeko gonbita egiten dizue, batez ere, Udalak kontuan hartzeko bizikleta bere plangintza eta, behingoz, minimoak bete ditzala adierazteko. Mugitu Bizikletan Oñatin!

## Gatazka, pankartak, exijentziak eta konponbideak

Inaxio Garro  
Aretxabaletako alkatea (Aralar)  
Aretxabaleta

Joan zen martxoaren 7an ETAK Arrasaten Isaias Carrasco kide sozialistaren kontra egindako atentatua krudela, justifikaezina eta zentzugabea izan zen.

Giza-eskubide guztien artean, duda barik bizitza dugu oinarritzkoena eta preziatuena. Horren kontra zuzenean edo zeharka egiten duenak ezer gutxi erakusten du bere alde eta bere gizatasunaren alde. Nola eska diezaioke beste inori norberak betetzen ez duen printzipioa?

Horrek ez du esan nahi aspaldion euskal gizartean egin den hamaika bidegabekeria eta injustizia sozial eta politikoen kontra ez gaudenik. Ekimen horiek ere merezi dute Aralar osatzen dugun guztion mespretxu sakonena eta maila bateko edo beste jazarpena jasan dutenekiko atxikimendu zintzoena.

Horago aipatutako atentatuaren eraginez, Aretxabaletako Alderdi Sozialistak bi "exijentzia" luzatu zizkion herriko alkateari: batetik, kendu zezala udaletxeko balkoian euskal presoan dispersioaren kontrako bandera; bestetik, martxoaren

8rako Eudel-ek (Euskal Udalen Elkartek, alegia) deitua zuen elkarretaratzea *ETA ez, ETA no* lelopean pankarta bat atera zezala.

Eskakizunaren aurrean, benetako demokraziak agintzen duen gisan, herriko Udalean ordezkatura dauden gainerako alderdi politikoei transmititu zitzaizkien arestian egindako exijentziak, horien aurrean eduki zezaketen iritzia eskatuz. Batzuen eta beste batzuen iritzia eta argudioak entzun ondoren, alderdien gehiengo batek atzera bota zituen sozialistek planteatutakoa.

Honako hauek izan ziren atzera bota izanaren argudioak:

- Isaias Carrasco zenaren bizitzaren kontra egindako atentatu basatiak ez du justifikatzen euskal gatazka sufrizten ari den beste kolektibo baten eskubideak bete behar ez direnik, Espainiako Konstituzioak berak aitortzen duen moduan. Euskal presoek ere bere giza-eskubideak dituzte, mendeku goseak zanpatuak eta baztertuak. Presoen dispersioaren kontrako bandera kentzeak, beraz, ez luke zentzurik.
- Eudel-ek elkarretaratzea deitu zuen idatzian proposamen bat ere egin zuen: udaletxera hurbildu eta beren samina adierazi nahi zuten herritarrek inolako mezu edo lelo barik joatea.

Beste hainbatetan erreferentzia gisa hartu izan den Eudel-ek egindako gomendioarekin bat egitea erabaki zen; beraz, pankarta barik azaltzea erabaki zen. Pankarta jarri ez izanak ez du esan nahi *ETA* gaitzesten ez denik edota gatazka konpontzeko soberan ez dagoenik sinestea.

Martxoaren 8ko elkarretaratzea amaitu bezain laster, Aretxabaletako udalbatza osatzen dugunok bilera egin genuen, komunikabideetara atentatuaren aurrean guztion gaitzespen idatzia adostu nahian.

Gaitzespen idatzia adostu ez ezik, herriko Eusko Alkartasunak proposamen bat egin zuen: *ETA ez, ETA no* pankarta zintzilikatu zedila udaletxeko balkoian.

Planteamendu horren aurrean, bozketa inprobisatua egin zen. Horretarako, bertaratutako ginenok iritzia emateko eta boza adierazteko aukera izan genuen. Aralar eta Ezker Batua-Berdeak alderdiek gaiak hausnarketa egin eta bozketa atzeratzeko egindako ahaleginak alferrikoak izan ziren, EA, EAJ-PNV eta Alderdi Sozialistaren iritzien kontra azaldu arren.

Iritzi dantza horren bueltan, herriko alkateak proposatu zuen generikoagoa eta irekiagoa zen leloa pankartan adieraztea, *Giza-eskubide guztien alde* bezalako mezua, esaterako. Izan

ere, gizartean dagoen injustizia bakoitzaren aurrean pankarta bana jartzearen aldeko apustu egiten jarraituko du Udalak? Udaletxeko balkoietan pankarta bana zintzilikatuko da? Eraso guztiak/gehiak biltzen dituen bestelako mezurik ez dago, datozen esparrutik datozela? Halako erabakiak bero-berotan hartzen dira, denbora minimo baten perspektiba barik?

Galdera horiek guztiek erantzun samurrak ez duten neurrian, Aralarrek *ETA ez, ETA no* pankarta ez jartzeko iritzia erakutsi du. Ezer konpontzeko bide baldin bada, aurrera, baina herri honen iraganari begiratuz gero...

Konponbideak balkoietan baino gehiago, mahaietan daude, mahaietan sortzen dira; baina bada hemen horretarako batere borondaterik ez duena, eta urrats erdirik ematen ez duena. Kexetan aurrena, ekimenetan azkena.

## ERANTZUNA

Aretxabaletako  
PSE-Eeri

Aretxabaletako Udaleko aurrekontuak ez onartzeko arrazoiaren artean, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen dirulaguntza eman izana aipatu du Aretxabaletako PSE-EEK. Dio "Goiena euskarazko medio pribatu" bat dela eta "ez dagoela zertan diruz lagundu", Goienaren ezagarraren artean "ez dagoelako terrorismoari zilegitasuna kentzea eta plurraltasuna".

Goienak, esandako horien aurrean, zera adierazi nahi du: gure hedabideek ez dute editorialik argitaratzen, baina bere aukera komunikatibo guztiak eskaintzen dizkie talde politiko eta eragile sozial ezberdinei, muga eta diskriminaziorik barik, bakoitzak bere iritzia eta proposamenak bota ditzan: prentsaurrekoetan, elkarrizketetan, gutunetan, iritzi artikuluetan, mahai inguruetan... Izan ere, plurraltasuna gure jardueraren ikur egiten dugun ondako, iritzi guztiak dira zilegi.

Hortaz, herritarrei adierazi nahi diegu, irakurle eta ikusleei zor diegun errespetuagatik, gure eskualdean errealtate garrantzitsua den PSE-EEren iritzia sarritan zabaldu ditugula, besteekin egiten dugun bezala, Goienaren bitartez herritarrei zerbait esan nahi izan dieten guztietan. Hala ere, bailarako PSE-EEko kideek uko egin diote GOITBko mahai inguruetan parte hartzeari edo GOIENKARIAn iritzi artikulak idazteari, horretarako aukera behin eta berriz eskaini arren. Ezetz esateko arrazoia izan da "Goienako hedabideak euskara hutsez direla eta ez elebidunak".

Goienako zuzendaritza batzordea

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak baidatzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

Jendeak badaki momentu onak aprobetxatzen.



**LACETTI** Diotenez, New Yorken 25 ordu iraun zuen itzalalditik 9 hilabetera milaka haur jaio ziren. Jendeak badaki momentu onak aprobetxatzen. Orain, 12.990 eurogatik 27 ZPko Chevrolet diesela duzu, eta honako hauek ditu: aire girotua, ABS, 4 aire-poltsa, atzeranzko ispilu termiko eta elektrikoak, laino-argiak, partikuladun filtro diesela, irrati CDa, laruzko bolante eta heldulekuak... Azkar ibili, 300 bakarrik ditugu.

**Chevrolet Lacetti TCDi SX**  
121 zp.  
12.990 eurogatik  
Martxoan zehar bakarrik.

GEHIAGO DA.



CHEVROLET

Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es  
Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es

Prezio baliagarria Penintsulan eta Balear uharteetan Lacetti 2.0 TCDi SX MY 07 bertsioarentzako, aire girotuarekin (BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Beste promozioetarako eskainza ez metakorra. Kontsumo mistoa (l/100 km): 5,7-8,8. CO2 emisioa (g/km): 146-210.

**MILAR ELKORO**

COMBI EDESA  
3 CE.340 NFX  
Kapazitatea: 331 L  
Elektronikoa  
Multifrech gunea  
Kristalezko erretiluak

NEURRIAK: 1,85 X 60

NO FROST

ALTZAIRU ERDOILGAITZA



~~699€~~  
**ORAIN 569€**

130 €KO  
AURREZKIA

KLASIFIKAZIO  
ENERGIATIKOA  
A

GAIBIKETA  
A

LEHENDAKETA  
A

ARRASTOEN AURKAKO ERDOILGAITZA  
5 PROGRAMA

~~499€~~  
**ORAIN 449€**

50 €KO  
AURREZKIA

BALAY  
ONTZI-GARBIGAILUA  
3 VS.353 ID  
Karga erdia  
4 temperatura

KLASIFIKAZIO  
ENERGIATIKOA  
A+

GAIBIKETA  
A

LEHENDAKETA  
B

7 KG  
1200 B/MIN  
KARGA ERDIA

~~449€~~  
**ORAIN 399€**

50 €KO  
AURREZKIA

BALAY GARBIGAILUA  
3TS.70120  
Sarrera bitermikoa  
Zimurren aurkako  
programak

TDT INTEGRATUA  
2 X HDMI



~~699€~~  
**ORAIN 629€**

70 €KO  
AURREZKIA

LCD SAMSUNG 32"  
32S86  
HD READY  
Kontraste dinamikoa  
7000:1  
Oin biratzailea

**Azken  
nobedadeak  
hilean 14€-tik  
aurrera!**

**MilarPasabidea**



MILAR ELKORO Olarte 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86

# Autoak aztergai

Autoen gaineko gehigarria  
Datorren egubakoitzean  
Apirilaren 25ean,  
Goienkariarekin batera.

- Kutsaduraren kontrako neurriak.
- Segurtasuna eta erosotasna.
- Gasoila eta gasolina.
- Auto berriak
- Aseguruak.
- IFEMA autoen nazioarteko azoka.



## Goienkaria

# ETEEO



## Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Administrazioa eta Finantzak
- Idazkaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketinga
- Nazioarteko Merkataritza



Ate irekiak: Datorren ostegunean, apirilaren 24an, arratsaldeko 18etan

ETEEO  
Larraña, 16  
20560 Oñati  
Izena eman **943718009** telefonoan

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **BERGARA**  
Kultura eta gastronomia elkarteak egin nahi dute > 24



> **OÑATI**  
Maiatzaren 30ean Latzenek Errekalde auzoan joko du > 33



> **ESKORIATZA**  
Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abian dago > 34



> **ELGETA**  
Intxortako Atea monumentuan berriz egin dituzte pintaketak > 37



Aparkaleku eta umeentzako jolastokia ere badago.

JASONE ZABALA



AISIALDI GUNEA Taberna, paseatzeko lekua eta atsedeen hartzeko mahai eta eserlekuak daude.

JASONE ZABALA

**BERGARA > GORLA**

## Aisialdirako ez ezik, paseatzeko guneak ere eskaintzen ditu Gorlak

### GORLA GUNEA

Taberna batek, umeek jolasteko txokoak eta atsedeen toki batek osatzen dute gunea

### PASEATZEKO LEKUAK

Oinezkoendako hara heltzeko bideak asko dira: Sorluzetik edo Deskargatik

JASONE ZABALA > BERGARA

Askok ezagutzen dute Bergaran dagoen Gorla gunea. Bergarako udalerriri dagokion zatia gune txikiena da, Antzuolako Udalaren lurak ere sartzen direlako berehala bertan.

Gorla guneak berak hainbat txoko ditu ikusteko: alde batetik, kantina edo taberna -Udalak esleituta dauka familia bati-, bai mendizaleentzat edo bertara eguna pasatzera joaten direnentzat. Taberna horren inguruan, umeek jolasteko txokoa dago, mahai eta eserlekuak dituen atsedeen toki bat eta baita paseatzeko guneak ere: alde batetik, Irukurutzetara edo karakterantz joaten direnak, Sorluzetik aldera dagoen pasealekua; eta bestetik, Gorlarantz joaten diren bideak, baina horiek Antzuolako

Udalaren lurak dira. Bergarako Udaleko agronomo Joseba Aizpuruak hau esan digu: "Gorla gunea deitzen duguna Antzuolako parte da, eta deitura egokia ez da hori; berez, Askagin edo Iturri Berri izena dauka, taberna eta umeen jolaslekua dagoen inguru".

Gorla inguruaren hedadura "lur pribatu asko daude. Baina Bergarako Udalak berak 100.000 m<sup>2</sup> ditu. Bergara aldera begiratuta ere, badaude Loidi mendia deitutako lurak; hantxe 500.000 m<sup>2</sup> daude, baina ganadu ustiaketa bati esleituta dauka Udalak", adierazi digu Aizpuruak.

Bestalde, Gorla gune hartan badaude elkarte batzuk, baina elkarte pribatuak dira. Handiena Altsasu da, eta hura Antzuolako

udalerriko lurretan dago. Familia-koen elkarte batzuk ere badaude, besteak beste, Askagain, Gorla eta Larrañaga familiarenak direnak. Bestalde, Azkoitiko bidea jarraitzen badugu, ezkerretara Santutxu izeneko gune bat ere badago -jabetza elizarena da-, pagadi eta iturri batekin.

### HELTZEKO HAINBAT AUKERA

Gorla ingurura heltzeko hainbat bide daude. Bertara autoz iristeko hiru bide daude: alde batetik, Bergaratik, Bolu auzo ingurutik gora joanda; beste bat, Antzuolatik dagoen bidea, Galartza inguruan; eta hirugarrena, Azkoititik. Oinezkoendako bertara heltzeko bideak, berriz, asko dira: Sorluzetik joan daiteke, baita Urretxutik ere; Deskarga aldetik ere badago beste bide

bat. Mendi bideak ere badaude, baina horiek gehiago dira. Oinezkoendako txukun egokitutakoak aipatutako hiru horiek dira.

Berrikuntza lanei dagokienez, ez dago proiektatuta ezer berririk: "Egin diren azken berrikuntzak umeen jolastokia egokitu eta umeentzat segurtasun neurriekin jartzea izan da, baita ur hornidura batzuk ere, gehienbat, nekazaritza ustiapenei ura zabaltzeko asmoz", adierazi du Aizpuruak.

### IZARRAK IKUSTEKO LEKU EGOKIA

Bestalde, izarrak ikusteko leku egokia da Gorlako gunea. Debagoieneko Ilatargi Astronomia Taldeko Manu Arregik dioenez, "ilargirik ez dagoenean, izarrak oso ondo ikusten dira bertatik, zerumuga guztia ikusten delako".

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Table with pharmacy names, addresses, and phone numbers for Arrasate.

BERGARA

Table with pharmacy names, addresses, and phone numbers for Bergara.

OÑATI

Table with pharmacy names, addresses, and phone numbers for Oñati.

ARETXABALETA

Table with pharmacy names, addresses, and phone numbers for Artxabaleta.

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin.

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Table listing emergency services like Antzuola, Armasate, Artxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, and Udaltzaingoaik with their phone numbers.

GARRAIOAK

Table listing taxi services in Arrasate, Aramaio, Artxabaleta, Bergara, Eskoriatza, and Oñati with their phone numbers.

DEBAGOIENA

Large table listing various services in Debagoiena including health, culture, and transport services with their phone numbers.

URBANOAK

ARRASATE

GOROSTIZATIK EROSKIRA (2 LINEA) 08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

EROSKITIK GOROSTIZARA (2 LINEA) 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

GOROSTIZATIK EROSKIRA (1 LINEA) 08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.

EROSKITIK GOROSTIZARA (1 LINEA) 08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.

BERGARA

SAN LORENTZO/SAN JUANDIK IRTEERAK 07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20.

LABEGARIAIETA/OLABARRETIK IRTEERAK 07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Table with bus routes between Arrasate, Aramaio, Gasteiz, and Bergara, listing departure and arrival times.

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 19

Goiza nahiko itxurosoa izan arren, arratsaldean hodei gehiago agertuko da, eta euria egingo du; tarteka, zaparradak ere. Iluntzean, atertzera joko du.




Domeka, 21

Egonkortasunerako joera hartuko du eguraldiak, baina oraindik hodeitsu jarraituko du zeruak. Euria botako du, baina ahal.

EUSKAL HERRIAN

Denetarik izango dugu datorren aste bukaeran: zapatuak aurrera egin ahala, hodeiak mardulagoak izango dira, euria gogotsu botako du, eta zaparradak izango ditugu. Domekan, ordea, zertxobait hobera egingo du. Haizeak hegoaldeetik joko du, indartsu samar.



TENPERATURAK

MINIMOA Martitzena, 15 3 °C

MAXIMOA Martitzena, 15 20 °C

ASTEKO EURIA (l/m²) 95,8 L

Table showing daily temperature and precipitation forecasts for the week.

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA APIRILEAN

Table showing moon phases for different dates in April.

oharrak eta deialdiak

ARRASATE > Txatxilipurdiren udalekutan izenematea

Uztaileko udaleku irekiarako izenematea epea zabaldu du Txatxilipurdik Arrasateko 2-10 urte arteko umeendako.

BERGARA > Gurasoek Berriketan egiteko aukera

Euskaldun zaharrek euskaldun berriekin laguntzeko Berriketan programan, Guraso lagun proiektuari ekin diote, hau da, guraso batzuk bateratu eta umeendako begiralea jartzea.

OÑATI > Ehizaren legedi berriaren gainera batzarra

Oñatiko ehiztari guztiak batzarrean deitu dituzte, ehizaren gainera legedi berria eztabaidatzeko.

BERGARA > 1963an jaiotako bazkarria hildan 26an

1963an jaiotako bergararrak bazkaritara batuko dira hilaren 26an, Iraho jate-txean, 14:30ean, eta izenematea zabalik dago Dixula eta Ariznoa tabernetan.

ARETXABALETA > Beinke-Loramendi dantzaren entseguak

Beinke-Loramendi dantza egingo dute Loramendi elkarteek maiatzaren 17an, Euskararen Eguna.

ARRASATE > 'Hiru haundixek hiru egunetan' martxa

Maiatzaren 1, 2 eta 3rako antolatuta aurretik AEDK Hiru haundixek hiru egunetan mendiko martxa.

ARETXABALETA > Nekazaritza ekologikoaren ezagutzeko irteera

Nekazaritza ekologikoaren gainera bertatik bertara ezagutzeko irteera.

tzeko, halako ortu bat ikustera joango dira Loramendi euskara elkarteak eta gura duten herritar guztiak.

OÑATI > Goi mailako hezkuntzaren gainera

Goi mailako hezkuntza zikloak: IMH (Elgoibar), Mariaren Lagundia (Bergara) eta Miguel Altuna (Bergara).

ARRASATE, ESKORIATZA, OÑATI > 'Oporrak bakean' programa bailaran

Nubi elkarteak deitzen die uztailean eta abuztuan Saharako umeak hartzeko gertu dauden familiei.

Bestalde, batzar informatiboa deitu dute astelehenerako, Arrasateko kultura etxean, 18:30ean.

BERGARA > Kooperante izatearen gainera hitzaldia

Aurten kooperante izan nahi al duzu? delako hitzaldia egingo du Silvia Carvallok.

OÑATI > Bidegorria eskatzeko bizikleta martxa, gaur

Txirrinka elkarteak gaurko, egubakoitzea, deitu du hileko bizikleta martxa bidegorri sarearen alde.

ESKORIATZA, ELGETA > Munduko dantzen eskola aste bukaeran

Munduko dantzen eskola emango du Patxi Monterok bihar, zapatua, Eskoriatzako pilotalekuko gimnasia gelan (17:30-20:30) eta etzi, domeka, Elgetako Espaloia antzokian (11:00-13:30).

943 25 05 05  
goienkaria@goiena.com



kale inkesta

# Uda datorrela eta, hasi zara kirolrik edo dietarik egiten?



**Izaskun Zeziaga**  
Langilea  
Arrasate



**Juan Carlos Martin**  
Langilea  
Arrasate



**Maria Asun Errazkin**  
Langilea  
Arrasate



**Mustapha Nedif**  
Langilea  
Arrasate



**Onintze Langaran**  
Ikaslea  
Arrasate

Gaztetan egiten nuen, baina orain ez. Jendeak kirola eta dietak ere egiten ditu, eta ondo ikusten dut. Bestalde, ez dut sinisten telebistan argaltzeko iragartzen dituzten produktuetan.

Ez dut egiten; gainera, beharrik ere ez dut. Emakumeek, orokorrean, serioago hartzen dute udan datorrenean argaltzeko kontu hori; baina telebistako iragarkiak gezur hutsak dira.

Ez dut ezer ere egiten. Argaltzeko dietak jarraitu izan ditut, baina ez udarako. Gainera, ez dago mirariak egiten dituen produkturik. Argaltzeko, ahoa itxi eta kirola egitea da onena.

Jendea, orokorrean, zaintzen da. Nik, lana dela-eta, ez daukat astirik gauza horietan pentsatzen hasteko. Gainera, gaur egun gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago zaintzen gara.

Nik uste dut, orain, sasoi batean baino gehiago zaintzen dela jendea. Gainera, udaberriari gehiago zaintzen gara denok, orokorrean. Telebistako produktuek epe motzera bakarrik dute eragina.

txistuak



## Labegaraieta auzoko eliza sarrerako zuloak



Bergarako Labegaraieta auzoko irakurle batek bidali digu aste honetan kexa. Domeketan, bertako elizara joaten da mezatara, eta elizako sarrera aurrean oinezkoendako izugarriko zuloak daude, eta euria egiten duenean, urez beteta egoten dira. Domekero hortik pasatzea deserosoa dela esaten du, eta dagokionari eskatzen dio zulo horiek tapatu ditzala.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

asteko datua

**140.448**

Horiek dira noizbait euskara tituluren bat atera duten pertsona kopurua eta egiaztapen sistema guztietan emanak dauden agiriak: 140.448 guztira. Guztiak Euskararen Gaitasun tituluen balizkotasunaren dekretu berriaren barruan sartzen dira.

ustek uste

Iker Barandiaran

## Urteurrena ospatzeko mila arrazoi

**R**adio Euskadik 25 urte bete ditu eta leku guztietatik sartu digute urteurren horren albistea. Eurek esaten duten moduan, ia *ikus*i ere egiten dugu. Dituzten baliabide guztiekin zer esateko eta egiteko gai ez diren! Zoritxarrez, euskal hiztun askok EAEko gaztelaniazko hedabideak ere kontsumitu egiten ditugu, eta horrek egiten ditu handiago, eta aldi berean, *pelma*-goak.

25 urte bete ditu, baita ere, AED elkarteak. Uholde en eta Tejeroren altxamendu saiakeraren urtean jaio zen Arrasate Euskaldun Dezagun. Orduan ezinezkoak ziruditen gauza asko zerotik sortu eta martxan jarri zituen. Haien ahaleginei esker, euskarazko herri komunikabide sendoak, ume eta gaztetxoendako euskarazko aisialdi aukera zabalak, enpresen alorrean euskarak leku nabarmena hartzea eta beste hainbat lorpen lortu dira.

AEDk sortutako ekimenetatik hainbat enpresa eta erakunde sortu dira, autonomoak direnak. Horregatik, badirudi gaur egun AEDk egiten duen lana ikusiezina dela. Modu berean, kontuan hartu behar da 80ko hamarkadako eta gaur egungo garaia ez direla berak, baina euskara bultzatzeko premia bizi-bizirik dago oraindik. Hori bai *ikusten* dela.

5 galdera...

## Viviana Dal Pont

Koma hizkuntza zerbitzukoa  
Oñati eta Arrasate

### 1. Txinera azkenaldian modan dagoen hizkuntza da. Zer dela eta?

Txinera, gaur egun, oso baliagarria den hizkuntza bat da, batez ere, enpresan, hizkuntza horren eskaera baitago. Guk, gehienbat, enpresa mundura begira egiten dugu lan. Horregatik, guretzat betebeharra da halako hizkuntza bat ikasteko zerbitzua eskaintzea, enpresek duten behar hori asetzeko.

### 2. Oñatin baduzue beste egoitza bat. Astelehenean, Arrasaten zabalduzue beste bat. Zergatik?

Guk orain dela bederatzita urte Oñatin zabaldu genuen lehen egoitza. Orain Arrasaten zabalteza, funtsean, bi arrazoirengatik da: alde batetik, Fagor talde guztiarentzat egiten dugunez lan, Arrasaten beste egoitza bat zabalteak bezeroarengandik hurbilago egotea ahalbidetzen digu; bestalde, gure ustez, Debagoienean, enpresa arloaren zentroa Arrasaten dagoelako.

### 3. Ibarrean orain arte zein da jendeak gehien eskatzen duen hizkuntza?

Inongo dudarik gabe, ingeleza. Esan daiteke enpresek gaur egun erabiltzen duten hizkuntza nagusia dela ingeleza.

### 4. Hizkuntza aholkularitza ere ematen duzue. Zertan datza?

Argi dago, gaur egungo gizartean, hizkuntzak oso garrantzitsuak direla. Horregatik, zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, lanean ate gehiago zabaltzen dira. Horregatik, ezinbesteko hizkuntza ingeleza da. Etorkizunerako, berriz, beharrezkoa ikusten dugun hizkuntza txinera izango da, baita alemanera ere. Guregana etortzen direnei beraien beharren arabera aholkatu egiten diegu zein hizkuntza ikasi behar duten.

### 5. Zure ustez, ba dago adinik hizkuntza bat ikasteko?

Ez dago adinik. Jaiotzen garenetik hizkuntzak ikasten ditugu. Gainera, hizkuntzak ikastean, oroimena lantzen da.



POLITIKA &gt; ARRASATEKO UDALAREN EGOERA

# Zentsura mozioa kolokan, EB barruko desadostasunengatik

Ezker Batuko exekutibak ahalegindu behar du alderdiko estatutuak aldatzen

Arrasatekoarena moduko kasuetan, azken berba exekutibak izan dezala gura dute

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Oraindik ez dago ezer itxita PSE-EEK eta EAJk Arrasateko Udalean aurkeztu gura duten zentsura mozioaren gainean, eta badi-rudi edozer gerta daitekeela. Izan ere, martitzen arratsaldean Arrasateko EB-Zutik koalizioak esan zuten ez zuela zentsura mozioa orain dagoen moduan babesteko asmorik. Bada, martitzen arratsaldean bertan, alderdi bereko exekutibak aditzera eman zuten ahalegindu behar dutela EBren estatutuak aldatzen, Arrasatekoaren moduko kasuetan alderdiaren herri batzarrek ez dezaten izan azken erabakia hartzeko eskubiderik. EBren araudiaren arabera, batzar oro-

korrean alda daitezke estatutuak, eta justu maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean egin behar dute batzar hori. Beraz, ikusteko dago zer gertatuko den. Horrez gainera, Izquierda Unidako zuzendaritzak indarra kendu gura dio Arrasateko zinegotzien erabakiari eta zentsura mozioaren kontrako iritzia aldatzeko eskatu die.

Edozelan ere, momentuz seguru dagoena da mozioa dagoenetan, ez EB-Zutik koalizioak ezta Aralar alderdiak ere ez dutela hura babesteko asmorik. Hori horrela, eta aldaketarik ez bada, mozioak ez lituzke eskuratuko aurrera egiteko behar dituen 11 botoak.

## HASIERAKO IRITZI BERA

Ander Rodriguez EB-Zutik koalizioko bozeramaileak azaldutakoaren arabera, PSE-EEK hasieran egin zuten proposamena da onartzen ez dutena. Eta gaineratu du momentuz inork ez diela bestelako proposamenik aurkeztu, oraingo astean bertan PSE-EEKo ordezkariekin batzartu diren arren: "Gure hausnarketa politikoak lehengo bera izaten jarraitzen du eta ez dago elementu berririk hura birplanteatzeko. Gure hausnarketa zentsura mozioaren aurkakoa izan zen.

Herri batzarrek aho batez hartu zuten erabaki hori. Horrez gain, herri batzarrean ikusi zen Udal gobernuan jarraitzeko aukerarik ez zegoela eta EAEEK gure akordioa hautsi egin zuela Isaias Carrascoren kontrako atentatua errefusatu ez zuelako. Erabaki hori ere aho batez hartu zen".

## LAU PUNTUKO ZENTURA MOZIOA

Rodriguezek esplikatu du lau puntuko proposamena aurkeztu duela PSE-EEK: batetik, zentsura mozioa bera; bestetik, PSE-EEKo alkatea izendatzea; hirugarrenik, gobernagarritasuna bermatzea, gobernutik edo oposiziotik; eta azkenik, gehien arteko gobernu osatzea. Gaineratu du "hausnarketa politiko sakona" egin ostean erabaki zutela proposamenari ezetz esatea, hainbat puntutan oinarritutako hausnarketa: "Jakín gura dugu nora eraman gura dituzten udal politika guztiak: hirigintza arloan, arlo komertzialean, liberazioen arloan, barne kudeaketaren arloan... Beraz, ea zerbait argitzen duten".

Horrez gain, Rodriguezek azpimarratu du presio politiko eta mediatikoa agerikoak izan arren, uste duela koalizioak egin duen hausnarketa "Arrasatera



Ander Rodriguez.

TXOMIN MADINA

begira" egin duela eta "arrasate-arendako hobea dela" euren jarrera "momentu honetan". Dena den, gaineratu du gertu daudela bestelako proposamenak entzuteko, eta proposamen berrien harira egingo dutela hausnarketa politikoak.

## ARALARREK ERE, EZETZ

Edozelan ere, EB-Zutik ez da bakarra zentsura mozioari ezetz esan diona: gauza bera iragarri du Aralarrek. Joxe Etxeberriak zera adierazi du: "Errazena da zentsura mozioak planteatzea. Baina ahaztu egiten zaie zentsura mozioak modu eraikitzailean aurkeztu behar direla, eraikitzeko eta egoerak hobetzeko. Zentsura mozioek eta dimisio eskaerek gobernagarritasun arazo larria eragingo dute hainbat udaletan eta, gobernagarritasun hori bideratuko duten gobernu programak adostu behar izaten direla konturatu orduko, hilabete pasa da. Arala-

rrek ez du zentsura moziorik babestuko, are gutxiago era orokor batean planteatzen denean".

## APIRILAREN 24AN, EZOHIKOA

Bestalde, zentsura mozioaren gainean erabakirik ez izan arren, datorren asterako ezohiko osoko bilkura deitu du Udalak: eguenerako egin dute hitzordua, hilaren 24rako. PSE-EEK eta EAJK eskatutako batzarra da hori, eta hor landuko dute EAJK aurkeztutako eta PSE-EEK babesten duen gaitzespen mozioa. Mozio horren bitartez, EAEEK udal ordezkarien dimisioa eskatuko dute, baldin eta haiek ez badute euren aurkeztutako mozioa babesten.

Dena den, hor ere ez dago batasunik alderdien artean; Itziar Lamarain PPko kideak iragarri du mozio propioa aurkeztuko duela. Emandako azalpenen arabera, EAJK eta sozialistek aurkeztu duten mozioa "ez da izan behar-ko lukeen bezain irmoa".

*Paraje eder baten kokatua*

*Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina*  
*Bazkaria hasteko beste modu berezi bat*

- ◆ Menu bereziak aukeran: 18 €
- ◆ Karta
- ◆ Ostiral eta zapatu gauetan, menu bereziak: 28 €

# Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria  
Garagartza auzoa, 37 zenbakia  
20500 Arrasate • Gipuzkoa  
Tel.: 943 71 18 81  
Faxa: 943 71 18 82



DENA BERRIA Orain arte egindako obretan, goitik behera berritu dituzte egoiliarren logelak.

U.M.

**OBRAK ETA ZERBITZUAK > BERRIKUNTZA LANAK**

# Herriko nagusien bizi kalitatea hobetzeko obrak, Iturbide egoitzan

Bigarren faseko obrak egiten dabilta Iturbide egoitzan: 2. eta 3. solairuetako hegal motzak berrituko dituzte datozen hiru hilabeteotan

**UBANE MADERA > ARRASATE**

Hastea kosta arren, Iturbide egoitzako obrak badoaz aurrera. 2. eta 3. solairuetaraino iritsi dira, eta, laugarren solairuan egin duten moduan, bi horietan ere eskumako hegalak edo hegal motzak berrituko dituzte. Bigarren faseko lanak dira horiek, eta hiru bat hila-bete iraungo dute.

**SEGURTASUNA HANDITU**

Orain arte egindakoetatik, Jon Ander Juldainek, Iturbide egoitzako langileak, azpimarratu du obrei esker "goitik behera berritu" dute la 4. solairuko eskumako zatia, eta, berrikuntzen artean, azaldu du orain jangela ere badutela solairu hartan. Nabarmendu du, baita ere, segurtasuna hobetzeko sistemak ipini dituztela: adibidez, "ateak zabaldu eta ixteko sistema

elektronikoa; sistema horrek atea zabaltzen den bakoitzean erregistratu egiten du, segurtasuna handituz. Obra guztiak bukatzean, egoitza osoko ateeak erabiliko dute sistema bera".

Segurtasunaren harira, logeletako abisu sistema ere hobetu egin dute, eta gaur egungo ospitaleetan dauden antzerakoak ipini dituzte: "Norbaitek deitzen badu, deia kontrol gelan hartuko dute eta kontrol gelatik bertatik erantzun diezaiokete egoiliarri".

Jakina, bestelako zerbitzuak ere berritzen dabilta Iturbide egoitzan: "Sistema elektrikoak, iturgintza, zoru ez labainkorrak ipini ditugu solairu guztian eta dutxetan...", dio Juldainek; dutxen harira, gaineratu du "dutxaren alkatxofa ere berezia" dela, "pertsonea nagusiendako egokia".

**LEIHO ELEKTRONIKOAK**

Bestelako berritasunen artean, pertsiana elektronikoa ipini dituztela ere adierazi du, eta baita leiho elektronikoa ere, sabaian: "Zabalik badaude eta euria egiten badu, bakarrik ixten dira".

Modu berean berrituko dituzte 2. eta 3. solairuetako hegal motzak. Horiek bukatutakoan hasiko dira 4. eta 3. solairuetako hegal zabalenekin. Gero, bigarren solairuan, gauza bera egingo dute, eta hala segituko dute Abaroaraino iritsi arte.

**ABAROAKOENDAKO LEKUA**

Dena ondo badoa, urte eta erdi edo bi urte barru guztia bukatuta izango dela aurreikusten dute Iturbidekoek. Horren harira, Abaroakoek kalean gelditzeko duten arriskua dela-eta, Iturbideko ordezkariak diote, Abaroako taberna kendu egin beharko duten arren, hainbat bulego eta beste zerbitzu batzuk erabiltzen jarraitu ahal izango dutela Abaroakoek egoitza berria izan arte.

**HEZKUNTZA > ESKOLA-ANTZERKI JARDUNALDIK**

## Apirilaren 22an eta 23an, antzerkira

XVIII. Eskola-antzerkiaren Jardunaldietan, Arrasateko ikastetxeetako 2.289 ikaslek parte hartuko dute, datorren astean hasita

**U.M. > ARRASATE**

"Antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzea", horixe da XVIII. Eskola-antzerki Jardunaldiaren helburu nagusia. Eta hori lortzeko, batetik, udalerriko ikastetxeetako neska-mutikoei antzezlanak egingo dituzte ikaskideen aurrean; bestetik, ikasleek Amaia Udal Antzokiko instalazioak bisitatuko dituzte; eta azkenik, antzerki-talde profesionalak ekarriko dituzte Amaia. 2.289 ikaslek parte hartuko dute ekimenean.

Ikasleek egingo dituzten antzezlanei dagokienez, datorren martitzen eta eguaztenean (apirilaren 22an eta 23an) egingo dituzte saioak, 10:30ean bata eta 14:45ean bestea. Martitzenean, Arizmendiko hain-

bat ikaslek eta Institutuko ikasleek jardungo dute. Eguaztenean, berriz, Arizmendiko ikasleak (Ferixalekua eta Almen) izango dira protagonista.

Bisita gidatuei dagokienez, berriz, apirilaren 28an eta 29an egingo dituzte. Andoni Zubiaga antzokiko arduradun teknikoaren laguntzarekin bisitatuko dituzte instalazioak.

**EGINBEHARRAK**

Bukatzean, Arrasatera lau antzerki talde ekarriko dituzte: Hortzmuga (apirilak 30), *Zirko Iluna* lanarekin; Markeliñe (maiatzaren 6an), *Kartoibiraka* lanarekin; Dar-Dar (maiatzaren 15ean), *Eta zer* lanarekin; eta Gorakada (maiatzaren 22an), *Irudimeneko hiria* lanarekin.

**HEZKUNTZA > ARIZMENDI IKASTOLAREN JARDUNALDIK**

## Eraikuntza berbegai Arizmendirekin

Eraikuntza jasangarria bultzatuz, jardunaldiak izango dira, Kulturaten

Jardunaldion bidez, "eraikuntza alorreko profesionalen esperientzia eta ikuspuntu desberdinak ezagutarazten" jarraituko du Arizmendik, "eraikuntza jasangarria bultzatuz".

**U.M. > ARRASATE**

Arizmendiko Lanbide Heziketak eraikuntzaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu. Maiatzaren 9rako (egubakoitza) egin dute hitzordua, baina apirilaren 25a baino lehen eman behar da izena, honako webgunean: [arizmendi.ikastola.net/eraikuntza](http://arizmendi.ikastola.net/eraikuntza). Jardunaldiotan edozeinek parte hartu ahal izango du eta doan dira.

**BERBALDIK ETA BESTE**

Goiz osoko egitaraua antolatu dute, 09:00etatik 14:00ak arte. Hizlariak eta gaiak askotarikoak izango dira: etxeko erosotasuna aztertuko dute Fagorreko ordezkariak; aseguru kontuak, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko Dekanoarekin; eta, besteak beste, mahai-ingurua izango da, basoen erabileraren gainekoa.

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua

**Especialitateak:**

**legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

**Erakusketa eta biltegia:**

Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE



ABERATSA Big Bandak hainbat musika estilo lantzen ditu, emanaldi aberatsak eskainiz.

ARRASATE MUSIKAL

MUSIKA > ARRASATE MUSIKAL BIG BAND

# Big Bandaren musikak hurrengo geltokia Bartzelonan izango du

Kontzertu bakarra emango dute, bihar, 20:30ean; ordubeteko emanaldian hamar kantu interpretatuko dituzte, hainbat estilo ezberdin uztartuz

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Asteburu osorako irteera egingo du Arrasate Musikal Big Bandak. Oraingoan Bartzelonara doaz, hiri erdialdeko areto famatu batean kontzertu bat emateko, Parc Sandaru kultura etxean, hain zuzen. Egun, banda 25 pertsonaz

osatua dago. Haize-instrumentuek –sei saxofoik, bost tronboik eta lau tronpetak– osatzen dute. Arlo erritmikoan, bestalde, piano bat, bi baxu, bateria, perkusioa eta bi gitarra entzun ahal izango dira. Amaia Arriaranen ahotsa, noski, ez da faltako.

BIHARKO EMANALDIA

Kontzertuan, arrasatearrek bakarrik joko dute, orduete inguru iraungo duen emanaldian. Hamar kantu izango dira, askotariko estiloak uztartuz: rocka, funkya, latinbossa, jazza, swing... Aurten entseatutako pieza

berriak joko dituzte, eta baita lehendik landutako pieza zaharrak ere. Horien artean, Jerome Kern-en *All the things you are*, Irving Berlin-en *Blue Skyes* edo Bob Mintzer-en *The 8 Avenue March* piezak joko dituzte.

Arrasate Musikal Big Banda 2000. urtean sortu zen, Arrasate Musikaleko irakasle zein ikasle-en eskutik. Orduetik hona, belaualdi berrietako musikariak taldean sartzeko joera nabarmena

izan da, eta, beraz, kide kopurua aldakorra izan da taldearen ibilbide osoan. Bartzelonara, baina, 25 musikari joango dira.

DONOSTIAKO JAZZALDIA

Biharko kontzertuaz gain, Big Bandak oso hitzordu garrantzitsua izango du maiatzaren 5ean, 20:30ean. Taldeak Donostiako Jazzaldian parte hartu ahal izateko txartela izango du jokoan. Hau da, munduko jazz talde onenatarikoekin agertokian izateko aukera izango dute.

Jazzaldian parte hartzeko aukera izatea ere irabazi egin behar izan dute. Hautaprobetara 30 talde aurkeztu ziren, eta horietatik 15 aukeratu zituzten probak egiteko. Azken horietatik hamar hautatu dituzte, Arrasateko Big Banda barne. Asko izango dute jokoan, beraz.

OSPAKIZUNAK > ARRASATEKO GAZTETXEA

## Gaztetxearen 17. urteurrena ospatzen jarraituko dute

'11+6 Herriari dei!' lelopean, hainbat ekimen antolatu dituzte; tartean, Biona tabernaren omenezko bazkaria

egubakoitzeko partxis eta xake txapelketak, esaterako, "espero baino arrakastatsuagoak" izan direla adierazi dute. Partxis txapelketan 15 bikotek hartu dute parte; xakean, zazpik. Zapatuko triki poteoan eta osteko pintxo afarian ere hainbat gazte izan ziren.

II. GAZTE EGUNA

Onena, ordea, heltzeaz da oraindik. Bihar, II.Gazte Eguna izango da Arrasaten, eta lehena bezain parte-hartzailea izatea espero dute antolatzaileek. Goizeko hamar eta erdietan pilota txapelketa izango da, Iturripen. Eguer-

dian Biona tabernaren omenezko bazkaria izango da. Taberna mitikoak hilabete eta erdi itxita daraman arren, gazte arrasatearrek faltan igartzen dute dagoeneko. AGAKOtik Bionako betiko jendea bazkarian izango dela ziurtatu dute. Txartelak bost eurotan

eskuratu ahal izango dira Irati, Basati eta Ekaitz tabernetan. Gazte Eguna, baina, ez da hor amaituko. Gauerako 70eko hamarkadako jai antolatu dute. Ez da kontzerturik izango, baina garai oparo horretako musikak jai giro aparta jarriko du gaztetxean, ziur.

J.B. > ARRASATE

Arrasateko gaztetxeak 17 urte bete ditu dagoeneko. Urteurrena ospatzeko, AGAKOk –Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua– egitarau oparoa prestatu du. *11+6, Herriari dei!* leloa aukeratu dute 17. urteurrenerako. Leloarekin, herriko gazteak erakarri nahi dituzte, gaztetxea benetan herriko gazteen etxea izan dadin.

**ORAINGOZ, BALORAZIO POSITIBOA**  
Orain arte ospatu diren ekitaldiak modu positiboan baloratu dituzte asanbladakoek. Pasa den

**margo industrialia**  
**margo orokorra**  
**margo dekoratiboa**  
**erreformak orokorrean**  
**fatxadak**

Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77

UGARAN  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



Amagara

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09

## Senti ezazu gorputz eta aurpegian




Ezagut itzazu elektroporazioarekin  
tratamendu berriak eta udaberriko  
gure promozio berria 08

- Aurpegiko 8 saio erosiz gero 2 DOAN
- Gorputzeko 10 saio erosiz gero  
2 DOAN + AURPEGIKO SAIO 1 DOAN

Deitu iezaiguzu  
konpromisorik gabe:  
**943 79 09 09**

 **ARKAUZ**  
MUEBLES  
ARETXABAETA



 **ETXE MOBEL**  
ALTZARIAK  
ARRASATE



 **ARKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
ARETXABAETA  
FAGOR  
banatzaile ofiziala



 **ARKAUZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
ARETXABAETA  
expert  
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.



GRUPO  
**ARKAUZ**

ARETXABAETA • ARRASATE  
1950•2008

## XAKEA

## Andoaini ondo irabazi arren, ezin mailaz igo

X.U. &gt; ARRASATE

Arrasateko San Andres Xake Taldeak Gipuzkoako Ligan jokatu du datorren urtean ere, ez dira Euskal Ligara igo. Asteburuan Andoainen kontra ondo jokatu dute, eta aldeko emaitza lortu (0,5-3,5). Baina, aurreikusten zen moduan, liderrak -Zarautz- ez du ezustekorik izan Mundaroren kontra.

Egia esateko, azken jardunaldian baino, orain dela 15 egun galdu zuen Arrasatek Euskal Ligara igotzeko aukera; orduan, Arrasatekoak ez ziren izan Zarautz mendean hartzeko gauza.

## JARRERA KONFORMISTA

Arrasateko taldeko ordezkariek penatuta daude liderraren aurrean Mundarrok izandako "jarrera konformistarekin". Izan ere, Zarautzen aurrean Idiazabalgoek ez zuten ezer galtzeko, eta hala ere, Zarautzek berdinketa eskaini zietenean, birritan pentsatu barik onartu egin zuten.

Gauzak horrela, San Andres Gipuzkoako txapeldu-nordea izan da, baina txapel-dunak bakarrik du gora igotzeko ahalmena, aurten, Zarautzek.

&gt; KIROLDEGIA

### Lau hileroko egin daitezke erreserba finkoak instalazioetan

Aukeako kirol instalazioetan erreserba finkoak egiteko eskaera orri bat bete behar da -kiroldegian eskuratu ahal da-. Hala, eskaera hori lau hilean behin bete behar da, eta dagoeneko aurkeztu daitezke maiatzetik irailera arteko erreserben eskaerak. Abonatuak bakarrik egin ahal izango dituzte erreserbak (943 77 16 77).

&gt; ATLETISMOA

### Arizmendi-Arrasate bigarren sailkatu zen Ordizian

Ordizian egin zuten eskola arteko Gipuzkoako atletismo txapelketa, eta Arizmendi-Arrasateko neskek lan ona egin eta 68 puntu poltsikoratuta bigarren sailkatu ziren. Izar Gorroño goitia, esaterako, lehenengoa izan zen luzera jauzian (4,38 m). 4x80 errelebotako lasterketan ere lan ona egin zuten, bigarren sailkatuta.



'MALLABI' Arrasateko jokalaria, joan den zapatuan, Leclerc taldeko jokalariei batekin errebotea hartzeko lehian.

A.EZKIBEL

SASKIBALOIA &gt; IGOERA FASEA

# MUK hiru garaipen behar ditu ametsa lortzeko: EB Ara igotzea

Joan den astean Merinoren mutilek E.Leclerc-en kantxan aurrerapauso erraldoia egin zuten; bihar dute beste malda bat gainditzeko aukera

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Joan den zapatuko ospakizunak ikusita, bazirudien MU dagoeneko EBAn zegoela; baina ez, oraindik ez dute helburua bete; oso-oso gertu dago. Horregatik, ulertzekoa da E. Leclerc taldea mendean hartuta Ointxe!-koen ospakizuna, zailena egin dute-eta. Gaitza da esatea zein izan den urteko garaipen garrantzitsuena, lehenago eskuratutakoekin egin dute-eta MUkoek orain arteko bidea. Baina, zapatukoak ikusmin handia piztu zuten, eta taldeak bikain erantzun (77-85).

Eta hemendik aurrera zer? Orain, MUK bost partidu ditu aurretik, hori da aurtengo ligari geratzen zaiona, eta *seguro*la izanda, hiru norgehiagoka behar dituzte ametsa errealitate bilakatzeko: EBA. "Orain errazagoa da, gure eta bigarren sailkatuaren artean tarte handiagoa dagoelako; horrek lasaitasuna emango dio taldeari". Arrasateko jokalariei Imanol Zeziagaren berbak dira.

'HAU DA GURE AUKERA'

Harmailatik telebista saiorako egindako adierazpenetan, Zeziagak garbi esan zituen gauzak: "Geratzen diren norgehiagoketara begira taldea konfiantza handiarekin ikusten dut. Azken bi urteotan EB Ara igotzeko borrokan ibili gara, baina ez dugu lortu. Eta, hau da gure aukera, aprobetxatu egin behar dugu".

Normala da Debagoieneko jokalariz osatutako taldea horren baikor egotea. Sailkapenean abantaila politarekin, geratzen diren bost jardunaldietan Zornotza, CNP-UPNA, Urdaneta, Viajes Marfil eta joan den aste-ko kontrario E.Leclerc taldeen kontra jokatu dute. Hala, talde horietako bat ere ez da gauza izan aurten MU mendean hartzeko. Eta hori gutxi balitz, bost partidu horietako lau Iturripen jokatu dituzte -Arrasateko taldeak 2007-08 denboraldian Iturripen oraindik ez du norgehiagokarik galdu-.

ZORNOTZAREN BISITA

MUK, aspaldiko partez, etxean jokatu du (zapatua, 18:00), igoera fasean azkenaurreko postuan dagoen Zornotzaren kontra. Joaneke partiduan, Iagoba Gamarrak kontuz ibiltzeko deia egin zuten, etxean jokatzeko dutenean Zornotza hazi egiten den taldea delako. Baina, bizkaitarren kalterako ez dute Zornotzan jokatu, Arrasatekoen gotorlekuan baizik, Iturripen. Gozatzeko partidua izango da, zaleek eta jokalariek, saskibaloia jaia.

### Igoera faseko sailkapena

Mondragon Unibertsitatea	25
E. Leclerc Vitoria	22
Valsay-Ardoi	21
Viajes Marfil	20
Cafes Aitona	20
Urdaneta	19
Baskonia	18
CNP UPNA	17
Zornotza	17
Tabirako Baque	16

ITURRIA: WWW.OINTE.XE.COM

## futbitoia zaldibar

## EMAITZAK

Cipris-McAwen Dauen	2-5
Iluntz-Saukelu Abian	0-1
Dublin Irish Pub-Cicatrús	2-4
Dribling-AT Celaya	2-2
Betrayer-Iritz Taberna	2-6
Total Disaster-Abokajarro	7-3
Bar Kokots-HLB 108	1-4
Kalapatak-THC	1-0
Iturriotz Taberna-Equs	5-5

## PARTIDUAK

Apirilak 19, zapatua		Epaileak	
10:00	Dublin Irish-HLB 108	Bar Kokots	Dublin
11:00	Iturriotz Tab.-Bar Kokots	Dublin	Dublin
12:00	McAwen Dauen-Iritz Tab.	Iturriotz	Iturriotz
13:00	Kalapatak-Ekaltz Taberna	Iritz	Iritz
15:00	Betrayer-Lasagabaster	Saukelu	Saukelu
16:00	AT Celaya-Saukelu Abian	Lasagabas.	Lasagabas.

## Apirilak 20, domeka

Apirilak 20, domeka		Epaileak	
12:00	Cicatrús-Cipris	Total Disaster	Total Disaster
13:00	Equs-Total Disaster	Cicatrús	Cicatrús

## SAILKAPENA

	P	J
1. McAwen Dauen	42	14
2. Dribling	32	16
3. Betrayer	31	15
4. Cipris	31	15
5. HLB 108	28	15
6. Iritz Taberna	27	15
7. Lasagabaster	26	14
8. AT Celaya	25	15
9. Saukelu Abian	23	15
10. Kalapatak	23	15
11. Dublin Irish Pub	22	14
12. Iturriotz Taberna	17	15
13. Cicatrús	15	15
14. Abokajarro	14	16
15. Ekaltz Taberna	13	14
16. Equs	13	15
17. Bar Kokots	12	15
18. Total Disaster	9	15
19. Iluntz	-	-
20. THC	-	-

### Hainbat taldek lehia estua dute bigarren postuari heltzeko

Mc Awen Dauen taldeak duen lidergoa arriskuan jartzeko aukera barik, ondoren datozen taldeek lehia estua dute bigarren postua eskuratzeko. Orain momentuan Dribling (32) dago postu horretan, baina atzetik datozen taldeak baino norgehiagokak bat gehiago jokatu (16). Eta, atzetik datoz bata bestearen ondoan Betrayer (31) eta Cipris (31).

Joan den astean, esaterako, Ciprisek ezin izan zuten Mc Awen Dauen taldearen bolada ona eten, baina Iritz Tabernak ezustea eman zion abantaila polita zuen Betrayerri, eta esandako moduan, orain parekatuago dago sailkapena; ona da hori.

Aste bukaerara begira, Iritz ahaleginduko da liderra geratzen (zapatua, 12:00), eta Lasagabasterrek bigarren aste ezusteko eman ahal dio Betrayerri (zapatua, 15:00). Driblingek deskantsua du, eta atzera egin dezake sailkapenean.

arrasatearrak kanpoan

Unai Urretxo > Musikaria  
Hego Korean bizi da

# "Adinaren arabera hitz egiteko era aldatu egiten dute korearrek"

JASONE ZABALA > ARRASATE  
Unai Urretxok ia lau urte daramatza Hego Korean bizitzatzen, zehazki Daejeon hirian. Bertan, orkestra batean dihardu lanean, tronboi bakarlaria. Oraingo, ez dauka Arrasatera itzultzeko asmorik, baina noizean behin etortzen da bisitan.

Urretxo 2000. urtean Arrasaten utzi eta AEBetara joan zen, ikasketak amaitzera. Brasilen ere ibili zen lanean, eta 2004ko iraila ezker Hego Korean dago.

Bertan, Seuletik bi ordura dagoen Daejeon hirian bizi da. "Bartzelona baino apur bat txikiagoa da Daejeon, baina, hala eta

gutziz ere, hiri handia da", adierazi digu Urretxok.

**EUSKALDUNAK ETA KOREARRAK**  
Urretxoren arabera, euskaldunek eta korearrek badute elkarren artean antzekotasunik: "Hitz egiteko orduan oso zuzenak dira, eta elkarren artean oso leialak.

**"Euskaldunak bezala, korearrek hitz egiterako orduan oso zuzenak dira, eta elkarren artean oso leialak"**



Unai Urretxo.

Beraientzat adina oso garrantzitsua da, eta duzun adinaren arabera, modu batera edo bestera hitz egiteko dizute".

Urretxoren esanetan, "urtarok oso ondo daude finkatuta hemen: neguan, hotz handia egiten du; eta udan, berriz, bero handia". Hego Korean korearrek hitz egiten da, eta txinatarrarekin edo japonierarekin alderatuz oso ezberdina dela esan digu Urretxok.

Janariarekin oso ondo moldatzen da Urretxo, han, Euskal Herrian bezala, mota askotako janariak dituztelako; baina bada- go diferentzia nagusi bat: "Korearrek dena nahastu egiten dute. Adibidez, okela jaten dutenean, barazkiekin edo zoparekin nahasten dute. Korean duten janari tradizionala *kimchi* izeneko barazkia da". Bertara joan nahi duenak jauregi eta hiri tradizionalak ikus ditzake, baita mendiak ere. Urretxok familia faltan sumatzen duen arren, oraindik ere Korean jarraituko du bizi izaten.

bere ustez



Ander Etxeberria

## Orain ezin eutsi izan ginena

**O**raingo larunbat gauak ez dira lehengoak bezalakoak. Jende gutxiago dabil tabernetan eta batez ere kaleetan. Zer gertatu da?

Iritzi ezberdinak entzun daitezke: gazteen ohitura berriak (filmak etxean ikustea, bideojokoetarako zale- tasuna, lagunaren artean alokatutako lokalean denbora ematea, zentro komertzialen eskaintzara hurbiltzea...), garestiegia dela tabernaz taberna ibiltzea, ez hain gazteen hipoteka-estutasuna edo demografiaren jaitsiera. Uste

## "Bikotea aurkitzeko eremua ez da domekako dantza, garai batean izan zen bezala"

dut, azterketa sakonik egin gabe, faktorerik garrantzitsuena azken hau dela.

Bikotea aurkitzeko eremua ez da domekako dantza, garai batean izan zen bezala. Izango dira eskola/lantokia edo eskolaz/lanez kanpoko jarduerak. Baina, hemen eta gazteentzat, *lekurik* proposena kalea da. Horregatik ez zait iruditzen ohitura berriek edo garestitze ekonomikoak kalera irten gabe utzi duenik gaztea. Bai, ordea, demografiak. Eustat-eko datuen arabera, Mondragoen, 20-64 urteko biztanleak (hori da ematen duen tarte bat) 1986an 15.877 baziren, 2006an 14.182 ziren. Baina datu adierazgarriena ondokoa da: epe berean 0-19 urte artekoak 8.092tik 3.355era jaitsi ziren!

txutxu-mutxua



SUDC BATZORDEA

## Arrasateko danborradarako izenemateak

San Juan jaietarako, urtero egiten den moduan, danborradan apuntatzeko epea zabaldu du dagoeneko SUDCek, Arrasateko gastronomi elkartearen batzordeak. Txikienen danborrada San Juan jaien aurreko asteburuan izango da, ekainaren 14an. Egun horretarako izena eman nahi duten gaztetxoek apirilaren 21a arte dute horretarako aukera. Nahi dutenek SUDCek

Pablo Uranga kalean duen egoitzara hurbildu behar dute; han egongo dira arduradunak astelehene- tik egubakoitzera bitartean, 18:00etatik 20:00etara. Entseguen, berriz, maiatzaren 17an hasiko dira. Helduak, bestalde, entseguen maiatz bukaeran hasiko dira, eta ekainaren 23an irtengo dira herriko kaleetara.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

**UGARTE**

Industria  
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.

Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943-71 21 40

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritate eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

GIZARTEA &gt; ELKARTE BERRIA

# Kultura eta gastronomia elkarteak egin gura dute Angiozarren

Hasi dira auzoko lokalak begiratzen, eta bazkideak egiteko deia egin gura dute orain

Bazkidearen giltzarekin, bikotekidea ere sartu ahal izango da, berdin-berdin erabiltzeko

OIHANA ELORTZA &gt; BERGARA

Kultura eta gastronomia elkarteak sortu gura dute Angiozarren. Proiektua gauzatzen ari da auzoko talde txiki bat: lokalak ikusten ibili dira, eta bazkideak lortzeko deia egin gura dute orain.

Proiektuaren ideia berria da, eta duela hilabete inguru hasi ziren forma ematen. Diruaren kalkulua ere atera dituzte. Horrela, pentsatuz elkarteak 120 bazkide izango dituela, 800 euro jarriko ditu bakoitzak hasieran, eta 25 euroko kuota, hileroko. Diru horrekin ordainduko dituzte lokalaren errenta eta uraren, argiaren edo garbiketa zerbitzuen fakturak, esaterako. Auzoan ikusi dituzten lokalaren artean, 120 lagun inguru sartzen diren bat ikusi dute eta hori izan dute oina-

rrian kalkuluak ateratzeko. Bazkide gutxiago elkartzen badira, proiektuarekin aurrera egin edo ez erabakiko dute bileraren baten, baita elkartearen estatutuak eta erabilpenaren inguruko proposamenak ere.

**BIKOTEKIDEA ERE SAR DAITEKE**

Bazkidearen giltzarekin bikotekidea ere sartu ahal izango da sortu gura duten elkarte horretara, eta bazkideek bezala erabili ahal izango du. Horixe da elkartearen berezitasun bat.

Egun, elkarte gastronomiko bat dago Angiozarren, eta sortu gura duten horretan, gastronomia ez ezik, ekintza kulturalak eta aisialdikoak ere landu gura dituzte. Familia giroko elkarteak izatea gura dute. Auzotar batzuek



AUZOA Beste elkarte bat egin gura dute Angiozarren.

IMANOL SORIANO

eman dute dagoeneko izena bazkide egiteko, baina interesa duen edozein garaiz dabil oraindik apuntatzeko. Horretarako, bi tele-

fono hauetako batera deitu behar du: 669 56 74 04 edo 605 74 58 28. Bi urteko konpromisoa hartu behar du bazkide sartzeko denak.

## Osintxuko frontoia konpondu eta margotu dute

Osintxuko frontoian hobekuntza eta margotze lanak egin dituzte eta, astelehenera aurrera, berriz ere erabiltzeko moduan egongo da pilotalekua. Izan ere, aste barruan ibili dira langileak pilotalekuko hormak konpontzen eta margotzen.

Frontoiaren erabilera okerraren ondorioz, frontisean zuloak egin zituzten, eta horiek tapatu dituzte, pilotalekua bera margotu aurretik. Horretarako, frontiseko zuloak tapatzeko, masilla berezi bat erabili dute.



IRATI AGIRREAZALDEGI

&gt; JAIK

### Pazkoetan txosna jartzeko baimena eska daiteke

Pazko jaietan txosna jartzeko eskaera epea zabalik dago. Bergarako irabazi asmorik gabeko edozein elkarte edo entitatek egin dezake eskaera. Eskaera orriak udaletxe-ko bulegoan aurkeztu behar dira apirilaren 29ko 12:00ak baino lehen. Bidebarrin zortzi txosna jarriko dituzte gehienez eta San Martin Agirre plazan bat. Txosna kopuru bakoitzeko gehiago badaude, zozketa egingo dute apirilaren 29an. Baita txosna bakoitzaren zein kokagune dagokion adjudikatzeko ere.

&gt; POLITIKA

### Aralarrek herri batzarra egingo du eguaztenean

Aralarrek herri batzarra egingo du datorren eguaztenean, apirilak 23, egungo egoera politikoaz jarduteko. Batzarra kultura etxean egingo dute, 19:00etan.

Isaias Carrascoren hilketak eta ondoren ETAK atera zuen komunikatuak egoera politikoak aldatu egin dutela uste du Aralarrek, eta horren gainean hitz egiteko eta eztabaidatzeko deitu du herri batzarra. Edozein herritar dago gonbidatuta.

&gt; IKASTAROA

### Sendabelarrei buruzko ikastaroa antolatu dute

Sendabelarrei buruzko ikastaroa egingo dute maiatzean. Maiatzeko lau eguetan, 8an, 15ean, 22an eta 29an egingo dute. Alberto Altube izango da irakaslea. Ikastaroan parte hartzeko izena eman behar da apirilaren 27a baino lehen. Kultura etxean apuntatu behar da. Prezioari dagokionez, bergararrek 15 euro ordaindu behar dute eta besteek, 20 euro. Jende askok ematen badu izena, zozketa egingo dute.

**Ion Murgizu Pinturak**  
Pintura orokorrean

Fatxadak  
Pintura Industrialak  
Dekorazio Pinturak

Bergara - Sorluze  
Tf: 943 75 13 24 - 652777030

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - SS

**BERGARA**

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



UDALA > URAREN FAKTURA

# Uraren fakturan kaltetuak direnak abonatu egingo dituzte

Ez dago erreklamazioa egin beharrik: Ur Partzuergoak fakturak berrikusiko ditu eta zuzenean abonatu dituzte kaltetuak, likidazioa egingo zaie



URA Ur kontadorea.

OIHANA ELORTZA

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Uraren azken fakturarekin kaltetuak izan diren herritarrei zuzenean abonatu zaie dirua. Udalak eta Ur Partzuergoak adostu duten moduan, ez dago erreklamazioa egin beharrik; Partzuergoak fakturak berrikusiko ditu eta kaltetuak izan diren abonatuak dirua jasoko dute. Faktura berri bat eta likidazioa egingo zaie. Azalpen horixe eman zuen Udalak martitzenean herritarrei zuzendutako batzarrean.

Bestalde, Udalak gogoratu gura du 2008ko bigarren hiruhilabetean bukatzen dela epea 2007koa likidatzeko, eta herrita-

rei esan gura die fakturak berrikusteko eta akatsen bat ikusten badute, jakinarazteko.

**ORAINGO ORDENANTZAK**

2008ko ordenantza fiskalak onartu zituztenetik, 10 euroko minimoa, akometidagatik, eta kontsumoagatik ordaindu behar du abo-

natu bakoitzak. 50 metro kubiko arte urak prezio bat izango du eta hortik gora, beste bat, garestiago. Ordenantza hauekin lehengo zerga-bilketa bera egingo du Udalak, baina "banaketa justuagoa" izango da, Udalaren iritziz. Kontsumoari kasu egiteko ere ohar-tarazi gura du Udalak.

> UDALEKUAK

## Dagoeneko zabalik dago udaleku irekietan izena emateko epea

Dagoeneko zabalik dago udaleku irekietan parte hartzeko izena emateko epea. Apirilaren 25a bitartean egongo da zabalik.

Izenematea Xipizaron egin behar da, ludotekak Agorrosin Ekintza Gunean duen lokalean. Arratsaldeetan eman behar da izena; hauxe da ordutegia: 17:00etatik 19:00etara. Aste honetan, eguaztena, zabaldu zuten epea. Kontuan izan behar da uztailera udaleku irekiak direla 1994tik 2005era bitartean jaiotako umeendako.

> ERRETIRATUAK

## Burgosera irteera eta hitzaldiak, San Joxepe elkarteak antolatuta

San Joxepe erretiratuen elkarteak irteera antolatu du Burgosko Espinosa de los Monteros herrira. Apirilaren 29an egingo dute irteera. Kostua eta beste xehetasun batzuk elkarteak pantailan kontsulta daitezke.

Bestalde, bi hitzaldi ere antolatu dituzte San Joxepekoek gizarte zerbitzuekin batera. Apirilaren 23an, zahartzaro osasuntsua izango da gaia eta apirilaren 30ean, pentsamendu baiko-rra. Hitzaldi biak San Joxepe elkartearen izango dira 17:30ean.

> EKITALDIA

## Musika eskolako gazte bandak Anoetan joko du domekako partiduan

Bergarako musika eskolako gazte bandak Anoetan joko du domekan, apirilaren 20an. Real Sociedad-Nastic partidua jokatuko dute domekan Anoetan eta giroa alaitzea eta jokalariek animatze-ira joango da musika eskolako gazte banda. Partiduaren hasieran eta amaieran, adibidez, Realaren ereserkia, Txuri-urdira joko dute, Gipuzkoako beste musika banda batzuekin batera. Partiduak irauten duen bitartean, txandaka joko dute bandek, giroa alaitzeko.



ZABALIK Egutero zabalitzen dute kiroldegiko taberna.

OIHANA ELORTZA

ZERBITZUAK > KIROLDEGIKO TABERNA

## Labegaraietako kiroldegiko taberna zabalik dago

Herriko elkarteekin batera ekitaldiak antolatu gura dituzte tabernaren ardura hartu dutenek

O.E. > BERGARA

Dagoeneko zabalik dago Labegaraietako kiroldegiko taberna. Herriko bi lagunen artean zabaldu dute, eta, baldintza ple- guak jasotzen duen moduan, tabernaz gain, kirol instalazioen mantentze-lanaz eta garbi-

ketaz ere arduratuko dira. Pintxo eta ogitartekoez gain, plater konbinatuak ere eskaini gura dituzte. Bestalde, herriko taldeekin harremanetan jarri dira, Beti Busti eta Bubishi taldeekin, adibidez, kiroldegian ekitaldiak antolatzeko.

IRTEERA > MINERREN VI. URTEURRENA

## Jose Luis Miner omentzeko motor irteera egingo dute

Bergaratik Azpeitirako bidea hartuko dute eta Elgoibarren lore eskaintza egingo dute

O.E. > BERGARA

Jose Luis Miner omentzeko motor irteera antolatu du seigarren urtez Bergara-bike elkarteak. Apirilaren 27an egingo dute eta hauxe da egitaraua: 09:30ean gosaria eta 10:30an irteera elkartearen lokaletik,

ondoren: Elorregi, Oñati, Udana, Zumarraga, Matximenta, Urrestilla, Azpeitia, Azkoitia, Azkarate eta Elgoibartik pasako dira. Elgoibarren lore eskaintza egingo diote. Jarraitu gura dutenak Zarautzera joango dira bazkaltzera.



OMENALDIA Jose Luis Miner omenduko dute.

BERGARA-BIKE

# EDEL

## TAPIZ DENDA

Etserako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

## TELEIXA BILTEGIAK


Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA



## JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95



TXARANGEN BILGUNEA Aurten lehen aldiz ospatuko da txarangen bilgunea herriko jaietan.

GOIENKARIA

MENDEKOSTE JAIK &gt; EUSKAL HERRIKO TXARANGEN BILGUNEA

# Euskal Herriko Txarangen lehenengo bilgunea egingo dute

Aurtengo Mendekoste jaietan izango da lehen aldiz halako ospakizuna, baina lehiaketa ere izango da; jaietan, euskal giroa suspertu nahi da

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Datorren maiatzaren 10ean, herriko Mendekoste jaietan ospatuko da Euskal Herriko Txarangen bilgunea. Halako bilgunea bat antolatzen den lehen aldia da.

BILGUNEAREN EGITARAUA

Bilgunean parte hartzeko izena ematen duten txaranga guztiak Bergarako udaletxean agertu beharko dute 10:30erako maiatzaren 10ean. Ordu horretan, txaranga jotzen hasiko dira 14:00ak

arte, eta arratsaldean, 17:30etik 20:30 arte. Bilgune horretan parte hartzen duten txaranga guztiak antzerako ibilbidea egingo dute, eta gunetik gunera errotazio sistema bidez mugitzen joango dira. Parte hartzen duten guztiak, gainera, 300 euroko dieta jasoko dute Bergarako Udalaren eskutik. Sari banaketa 21:00etan egingo da San Martin plazan; irabazleak 3.000 euroko saria jasoko du. Saria ematerako orduan, kontutan hartuko da txarangek jotako

piezen interpretazioa, afinazioa, erabilitako errepertorioa eta Bergarako herrian bakoitzak jarri duen jai giroa edo animazioa. Irabazleak jaietako domekan ere herria animatu beharko du.

IZENEMATEA

Parte hartu nahi duten txaranga guztiak postaz, fax bidez edo posta elektronikoki bidez eman beharko dute izena inprimakia betez. Izena emateko epea apirilaren 30ean, 12:00etan, bukatuko da. Inprimakiak [www.bergara.net](http://www.bergara.net) helbidean eskuratu ahal izango dira, edo telefonoz Bergarako Kultura Etxera deituta (943 77 91 59). Bestelako baldintzak ere bertan galdetu daitezke.

LEHIAKETA &gt; KARTELAK

## Mikel Calvok irabazi du aurtengo Mendekoste jaietako kartel lehiaketa

Irabazleak 600 euroko saria jasoko du; sari banaketa maiatzaren 16an izango da Kultura Etxean

J.Z. &gt; BERGARA

Lehiaketan, 18 urtetik beherako egileek egindako 34 kartel eta 18 urtetik gorakoek egindako sei kartel jaso dira; guztira, 40. Denen artean, Mikel Calvo Abarzuza bergararrarenak irabazi du. Calvok 600 euroko saria jasoko du maiatzaren 16an 19:00etan egingo den ekitaldian. Bide batez, ekitaldi berean, irabazlearen kartelarekin eta lehiaketara aurkeztu diren



Kartel irabazlea.

MIKEL CALVO

guztiekin batera, erakusketa inauguratuko da, Bergarako Udaleko Kultura sailaren eskutik. Saritu gabe geratu diren lanak jasotzea nahi duenak aukera izango du ekainaren 24ra arte.

MUSIKA &gt; EMANALDIAK

## Musika zikloaren barruan, hainbat ekitaldi daude gaur

Musika eskolako Gazte Banda, bestalde, Anoetara joango da Reala animatzera domekan

J.Z. &gt; BERGARA

Musika eskolako ikasleek apirilaren egiten dabilen musika zikloaren barruan, gaur, 17:30ean, emanaldia izango da. *Musika kalera!* lelopean, San Martin plazan, Simon Arrieta plazan eta herriko kaleetan zehar, hainbat instrumentu joko dituzte ikasleek; ordu berean baina musika eskolako egoitzan, gitarren mantenua izango da, eta 18:00etan, piano kontzertua.

Arratsalde amaieran, 20:30ean, Zumarraga eta Bergarako konbo taldeek emanaldia egingo dute Jam aretoan.

GAZTE BANDA, ANOETARA

Domekan, berriz, Bergarako Musika eskolako Gazte Banda Anoetara joango da Real-Nastic partidua animatzera. Gipuzkoako beste banda batzuekin batera, partidu hasieran eta bukarran alaituko dute giroa.

# Herran

## BERGARA

Etxetresnak: Soinua, telebista, hozgailuak  
Matxiategi 3 - 4 • 943 76 12 22

H<sub>2</sub>O Lounge

altzari denda  
ikerleku zeharbidea · bergara  
tel.: 943 03 46 30

**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

**K21**

arotz lanak orokorrean  
leihoak  
ateak  
horma-armairuak

erakusketa eta tailerra  
san juan 1a · bergara  
tel.: 943 76 54 91  
faxes: 943 76 08 04



# "Zaldiendako hotela daukagu Elosun "Benta" hipika eskolan"

"Benta" hipika eskolan disfrutatu zaldiarekin naturaz

## - Zenbat urte zoaz zaldiak hezten?

Orain dela hamazazpi urte hasi nintzen zaldiekin lanean, baina ez zen nire ogibidea. Taberna baten ere egiten nuen lan. Orain dela lau urte erabaki nuen taberna lagatzea eta zaldien zainketa dedikatzea.

## - Beraz, gustuko dituzu zaldiak.

Bai oso gustuko ditut zaldiak. Umetatik gustatu izan zaizkit zaldiak. Gustuko dudanean lanean haritzeaz oso pozik nago. Mundu guztiak ez dauka zorte hori.

## - Zer eskaintzen du "Benta" hipika eskolak?

Zaldiendako hotela. Zaldia duten pertsonak bertan utzi dezaten.

- Ikastaro praktikoak: zaldian ikasi nahi duen edonorentzat. Taldeka edo bakarka.

- Umeendako hasiera ikastaroa.

- Taldekako ibilaldiak

## - Zer eskaintzen du zaldiendako hotelak?

Atentzio pertsonalizatua pertsona espezializatu baten asteko zazpi egunetan. 3x3 neurriko gelak dituen zalditegia. Gure zalditegian dauden zaldiak hezi egiten ditugu, garbitu, jaten ematen diegu eta ariketa egiten dute.

## - Deskribatu zure lan jardun bat.

9:00etan. Zalditegia nola dagoen ikusi eta zaldiari jaten eman. Ohea txukundu, gaueko manta kendu eta orraztu.

10:00etan. Preparatu zaldia ariketa egiteko.

12:00etan. Zalditegian sartu zaldia orraztu eta eguneko manta ipini. Ura eman eta gela garbitu.

13:00etan. Bigarren bazkaria.

16:30ean. Zalditegia garbitu eta jaten eman zaldiari.

19:30ean. Zalditegia ondo dagoen ikusi eta gaueko manta jarri zaldiari.

## - Zenbat balio du zaldia hotelean edukitzea?

Zaldiaren hileroko mantenua 250 euro da hilean.

## - Ba al dago zaldian ibiltzeko ohiturarik gure baidarlan?

Ez. Ez daukagu zaldian ibiltzeko ohiturarik gure baidarlan. Jende gutxi dauka zaldi propioa. Zaldian ibiltzen ikasteko eskola bakarra da nirea. Jendea zaldian ibiltzera animatu nahiko nuke, naturaz disfrutatzeko era polita da.

## - Zaldian ibiltzen ikasteko ikastaroak ere ematen dituzu ezta?

Bai. Zaldian ibiltzen ikasi nahi duen edonor etorri daiteke eskola batzuk hartzera. Ordua 25 euro kobratzen dugu.



## Benta

### Hipika eskola

**Juan Ignacio Regorigo Garmendia**  
Zaldi hezitzailea

Benta baserria ELOSU (Bergara)  
943 85 25 62 - 649 56 11 89



## PILOTA

## Asteartekoa, errazegi gainditutako kanporaketa

X.U. &gt; ARRASATE

Emozio gutxi izan zen martitzenean jokatu zituzten Bergara Hiriko hirugarren kanporaketetan, txapelketan aurrera egin duten bikoteek errazegi gainditu zituzten-eta norgehiagokak.

Lehenengo partiduan, Elezkanok eta Landaburuk 22-10 irabazi zieten Iturriotzi eta Merinori. Galtzaileek partidu eskasa egin zuten, bai aurrean eta bai atzean tanto larregi galduta.

## NAGUSIETAN, ANTZERA

Senior mailako norgehiagoka ere antzerakoa izan zen, Renobalesek eta Arrastoak erraztasun handiarekin irabazi zuten-eta partidua (22-11). "Renobales oso ondo ibili zen, baina bikote errioxarrak erraztasun guztiak eman zituen, makal ibili ziren-eta. Gorka iaz promes mailan txapeladun izan zen, aurten nagusiekin sartu dugu eta ez zen ondo ibili. Eta, Gomez ere txarto, gozatu barik", adierazi zuen Reyes Azkoitiak.

## FUTBOLA &gt; ERREGIONALA

## Amara Berri taldearen zelaian ahaleginduko da Bergara bigarren postura salto egiten

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Erregionaleko liga amaitzeko lau jardunaldi baino ez dira geratzen, eta Bergarak (47 puntu) bi puntura du sailkapeneko bigarren postua -Roteta da bigarrena, 49 punturekin-. Bistan da Amakak Bat (55) taldeak hartuko duela Preferenterako bidea, eta ikusteko dago bigarren sailkatuak igoera faserik jokatuko duen ala ez, baina hor egon behar du Bergarak. Hala, asteburuan mahoneroek 13. postuan dagoen Amara Berri taldearen kontra jokatuko dute; donostiarrek ez dute talde sendorik, zazpi partidu baino ez dituzte irabazi, baina jaitziera postuetatik aldentzeko lehiatzen dabilta, eta horrek motibatu egiten du beti.

## BTLS-KO TALDEAK, BIGARREN

BTLSkoak denboraldi biribila egiten dabilta, bai gizonezkoen taldea eta baita emakumezkoena ere. Bigarren erregionaleko taldeak (17) bigarren jarraitzen du igoera fasean. Kostkas (20) hiru puntura baino ez dago, eta bihar



ROTETA Irudian, Rotetaren kontra Agorrosinen jokatutako partidua.

GOIENKARIA

ahaleginduko dira tarte hori txikitzen, Amarozen kontra (Agorrosin, 15:30).

Emakumezkoen taldea ere igoera fasean dabil buru-belarri, horiek ere bigarren sailkatuta

(38). Eta, bihar (19:30, Ipintza) norgehiagoka erabakigarria jokatuko dute lider dagoen Intxaurdiren kontra (42). Etxean irabazita, liderra puntu batera baino ez litzateke geratuko.

## labegaraieta

## EMAITZAK

Belengua-Niu Tim	3-10
Irubide-CM Errotagain	1-10
Latinos.com-Tiki-Taka	10-4
Hamaika Jintxi-Deportivo Oriente	7-6
Komando Piperrak-Los Blus	6-7
Carboneros-Irish Pub	6-1

## PARTIDUAK

Apirilak 20, domeka, barruan	Epaileak
10:30 Belengua-Irubide	Irish Pub
11:30 Irish Pub-CM Errotagain	Belengua
16:00 Los Blus-Deportivo Or.	Carboneros
17:00 Carboneros-Niu Tim	Los Blus
18:00 Komando Piperrak-Tiki Taka	Niu Tim
19:00 Latinos.com-Hamaika J.	K.Piperrak

## SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errotagain	58	21
2. Irish Pub	47	21
3. Los Blus	40	21
4. Komando Piperrak	39	21
5. Carboneros	38	21
6. Tiki-Taka	32	21
7. Niu Tim	32	21
8. Latinos.com	18	21
9. Belengua	17	21
10. Hamaika Jintxi	16	21
11. Irubide	15	21
12. Deportivo Oriente	1	21

## Ligako azkena

Domekan jokatuko dute Labegaraietako ligako azken norgehiagoka, eta datorren astetik aurrera kopari helduko diote. Hala, Irish Pub eta Errotagain taldeek jokatuko duten partiduen ondoren egingo dute sari banaketa.

ipuin  
kontaketa  
zirkuitoa

XII  
2007 · 2008



Oihulari  
Klown

presenta / aurkezten du

Cuentos  
y cantos  
(Madrid)

“Las  
corredoiras  
y el mar”

apirilak 24 osteguna  
22:30ean

bergarako

Pol·Pol

**kanpotarrak bergaran**

**Karina Louro** > Txokolate dendako jabea  
Bergara

# "Bergarara egin dudan bidaia azkena izatea espero dut"

NEREA MENOR > BERGARA

**Karina Louro Txokolate osagarri dendako saltzaile eta jabea dugu. Abizen galiziarra du, katalana da jaiotzez eta Valentzian bizi izan da. Duela 4 urte, Santiagoko bidea egin zen zebilela, antzuolar batekin maitemindu eta urtebete geroago Bergarara etorri ziren.**

Uda partean heldu zen hona Karina Louro, eta gehien harritu zuena eguraldia izan zen: "Aldi hartan arratsaldero egin zuen euria. Nire buruari galdetzen nion: nola daiteke udan egon eta egunero euria egitea?". Janariari dagokionez, harrituta gelditu

zen kokotxak saltsa berdean probatu zituenean.

Valentziatik Bergarara etortzea aldaketa handia izan zen Lourorentzat. Hemengo jendea Valentziakoarekin konparatuz oso hotza dela esan zigun, baina Bergaran oso pozik dagoela dio: "Oso pertsona irekia naiz eta

**"Hemengo jendea Valentziakoarekin alderatuz oso hotza da, baina oso pozik nago, bezero jatorrak ditut"**



Karina Louro.

halakoetan ez dut arazorik izaten. Gainera, nire bezeroak oso jatorrak dira".

Familiaren falta ez du askorik sumatzen Lourok: "Familia osoa Galizian elkartzen gara udan. Ez daukat herrimin handirik, hona etorri aurretik baneramatzalako 8 urte etxetik kanpo. Hamaika aldiz aldatu naiz bizilekuz eta Bergarara egin dudan bidaia nire bizitzako azkena izatea espero dut".

**HIZKUNTZA**

Lana topatzerakoan, hizkuntza ez jakiteak ate asko itxi zizkion Karinari, baina euskara ikasten ari da orain: "Kanpotik zatozenez asmo askorekin etortzen zara, hizkuntzak bideak ixten dizkizu. Euskara ez da batere erraza. Bi urte daramat euskara ikasten. Saiatu saiatzen naiz, seguruena ez naiz oso ondo hitz egitera helduko, baina ea hizkuntza ulertzera heltzen naizen, behintzat".

**bere ustez**



Maite Plazaola

## Erramu Zapatu aitzindaria

**A**isialdia, jaiak... nire belarrietarako oso doinu politez beteriko fonema kateak. Halere, erakargarriagoak zaizkit hitz hauek adierazten dutena, ekartzen baitute lagunekin, familiakoekin eta gure beharrak betetzen dituzten beste hainbatekin gustura egoteko aukera. Askotan, gainera, aisialdi hau festa giroarekin lotzera ohituta gaude. Urteetan atzera eginenez gero, momentuok gozatzeko era antzekoa zela iruditzen zait; edonork ez du gogoan aitona-amonek nostalgia ttan-

**"Hala ere, festa egitearen ohitura ez aldatu arren, modua aldatu dela nabaria da"**

tta batekin narratzen zizkiguten erromerietako kondairatxoak. Hala ere, festa egitearen ohitura ez aldatu arren, modua aldatu dela nabaria da. Mendekosteetan blusen eraginez Bergarako kaleek hartzen zuten kolore bizia gogoratzea besterik ez dugu; baita Erramu Zapatuan gure izatea oroitzeke janzten ziren mahoizko arropak ere. Nire ustez, ohitura hauek galtzea gure kulturaren erraiak galtzea da, eta noizbait izan ginena oroitzeke bada ere, haietara bueltatzen hasi beharko genuke, hauek berreskuratuz. Honegatik, asko gustatu zait Erramu Zapatua berpizteko aurten egin den saiakera arrakastatsua. Orain Mendekosteetan joera errepikatzea modu ona litzateke, zer iruditzen?

**hau be badogu**



HILARIO AZKARGORTA

## Espainiako Errepublikaren urteurren afaria

Aurreko astelehenean, hilaren 14an, Espainiako Errepublikaren urteurren ospatzeko batu ziren, urtero bezala, Bergarako Errepublikazaleak. Laneguna izan arren, ospakizun egun bihurtu zuten la 30 lagun batu ziren Tokiederreko Haizepe Elkartearen. Hilario Azkargorta bertan ibili zen eta giro alaia eta ezin hobea egon zela azaldu digu: "Oso ondo pasa genuen".

Ospakizunekin hasteko, Errepublikaren bandera zintzilikatu zuten Fraizkozuriko plazan, Martinez de Iralaren omenez egindako monolitoan. Ondoren, frontoitik Tokiederreko abiatu ziren lagun guztiak, afaltzeko ordua zen. Kontu-kontari ibili zirela esan digute eta afaria amaitu zutenean abesten hasi ziren batutako guztiak.

**arrasate**n - biteri 11

**berria**

badabil

uda 08 + arropa + oinetakoak +

Biteri aparkaleku parean

**badabil**

**haur moda ... baino +**



# IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984

Faxa: 943 76 09 32



**HALCON**  
BIDAIK



## SAN JUANAK

Arrasatetik Tenerifera Ekainaren 22tik- 29ra.  
H. Hesperia Troya (ME) + Bilborako autobusa

**GUZTIRA: 498€**

HALCON BIDAIK  
Garibai 6 20.500 Arrasate • Tel.: 943 79 29 88

HEZKUNTZA > ERASMUS PROGRAMA

## Ander Ginart eta Maia Ruiz Suedian daude praktiketan

Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko goi mailako heziketa zikloa egin dute herriko institutuan

MIRIAN BITERI > ARETXABAETA

Ander Ginart eta Maia Ruiz arrasatearrak Suedian daude martxoaren hasiera ezker. Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko goi mailako heziketa zikloa egin dute Aretxabaletako institutuan eta, ikasketen amaierako praktikak etxean egin beharrean, horiek atzerrian egitea erabaki dute. Suediako Hoganas enpresako instalazioetan daude.

Europako Batasunak bultzatzen duen Erasmus programari esker joan dira Ginart eta Ruiz

Suediako kostaldeko ingurune hartara. Ekainean bueltatuko dira ibarrera, 380 orduko praktikak egin ostean. Denbora horretan, institutuan egindako ikasketen gaineko formazioa jasotzeaz gain, hango kultura eta lan mundua ezagutzeko aukera izango dute arrasatearrek.

**BIGARREN URTEA**

Ez da lehenengo aldia Hoganas enpresak Aretxabaletako institutuko ikasleak formatzen dituela; Ginarten eta Ruizen aurretik bes-



SUEDIAN Ander Ginart eta Maia Ruiz Suedian daude.

GOIENKARIA

te bi ikasle izan dira instalazio haietan praktikak egiten. Joan zen urtean izan ziren han.

Aretxabaletako institututik azaldu digutenez, pulbimetalurgiaren alorrean puntako enpresa da Hoganaseko. Debagoienarekin harreman estua du. Arrasateko Polmetasa eta Oñatiko Stadler enpresen hornitzaile nagusia da; hauts metalikoaz hornitzen ditu ibarreko bi enpresak. Aretxabaletako institutua ere kontaktuan dago, ikasle formazioa dela eta.

**AURREKO ESPERIENTZIAK**

Urteak daramatza institutuak ikasleak atzerriara bidaltzen, Erasmus programari esker. Lehenengo esperientzia Alemaniako Gustav von Schorl de Weide zentrokoa izan zen. Jarraian, Txekia eta Portugalen izan ziren eta, joan zen urtean, lau ikasle izan ziren praktikak atzerrian egiten: Suedian eta Eslovakian. Azken horretan, Ederlanek han duen lanetxean izan ziren bi ikasle. Orain arte egindako irteera guztiak ikasleendako nahiz instituturako "oso emankorrak" izan direla diote irakasleek.

UDALA > ZERGA

## Zabalik dago ur eta zabor tasak ordaintzeko epea

Aurtengo zabor bilketaren tasa %13,9 igo da, eta ur horniduraren ere antzeko igoera izan du: %10,6koa da hori

M.B. > ARETXABAETA

Etkez etxeko zabor bilketaren tasak eta estolderia zerbitzua eta horrekin batera kobratzen den ur horniduraren tasak kobratzeari ekin dio asteotan Udalak; hain zuzen, aurtengo lehenengo hiru hilabeteetan egindako gastua kobratuko du.

Ordainagiriak helbideratuta dituztenei datozen egunotan kobratuko dizkie Udalak esandako tasak. Gainontzeko guztiak, berriz, udaletxeko bulegoetan ordaindu beharko dituzte ordai-

nagiriak. Maiatzaren 15era arte izango dute horiek ordaintzeko epea.

Gogorarazi behar da, azken horren harira, borondatez ordaintzeko epea 60 eguneko izango dela, ordain aldiari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Apirilaren 14an, astelehena, argitaratu zen esandako iragarki hori.

**TASEN IGOERA**

Udalak 2008ko udal zergen igoerak onartu zituen joan zen urteko urriaren 7an egindako osoko bilkuran; tartean, zabor bilketaren eta estolderia zerbitzua eta ur horniduraren tasek igoera onartu zuten.

Horren harira, igoera horiek lehenengo hiru hilabeteetako ordainagiritan igarriko dituzte aretxabaletarrek.




ZABORRA Zabor bilketatik %13,9 gehiago ordainduko dute aurtengo aretxabaletarrek.

MIRARI ALTUBE

Zaborra %13,9 igoera dute, Sasieta Mankomunitateak garestitu egin duela zabor zerbitzua. Antzekoa gertatuko da urare-

kin; Ur Partzuergoak garestitu egin ditu kanona eta beste zerbitzu batzuk, eta ondorioz, %10,6ko igoera jasango dute aur-

ten herritarrek. Gainera, minimoto gora gastatzen dutenek KPIren igoera ere izango dute ura hornidurako tasetan.



## EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

HEZKUNTZA &gt; JAIA

# Arizmendiko Basabeazpi guneak udaberri jaia ospatuko du bihar

Egun osorako prestatu diren irteeran, jolasetan, kalejiran, bazkarian eta tailerretan parte hartzeko aukera izango dute umek eta gurasoek

MIRIAN BITERI &gt; ARETXABALETA

Udaberriari ongietorria egingo diote bihar, zapatua, Arizmendi ikastolako Basabeazpi guneok. Horretarako, egun osoko jaialdia antolatu dute. Dagoeneko esperientzia dute Basabeazpin horrelako jaia egiten, hiru alditan egin izan da eta.

Egunari 09:30ean emango diote hasiera ikastolan. Hasteko, herriko kanposantu ondoan dagoen Porruketxara basora irteera egingo dute. Handik bueltan, ume eta gurasoek gertu izango dituzte jolasak. Horiek amaitzean, kalejira egingo dute. Buruhan-

diak haurren atzetik ibiltzen diren bitartean, trikitilariak herriko kaleak alaitzeaz arduratuko dira.

280 LAGUNENDAKO BAZKARIA

Bazkaria 14:00etan hasiko da. Bazkaltzeko 280 bat lagunek eman dute izena. Eguraldiak laguntzen badu, Iralabarri plaza inguruan izango da; bestela, ikastolan.

Bazkalondoan, umek taillerak eta ipuin kontaketak izango dituzte; helduek, berriz, antzerkia. Txokolatearekin agurtuko dute jaialdia, Argitxo eta Kukua lagun dituztela.



AURKEZPENA Udaberri jaiaren berri eman zuten joan zen astean.

MIRARI ALTUBE



TXIKIENEKIN Irati Pagoaga aretxabaletarra txikienekin izan da.

MIRARI ALTUBE

HEZKUNTZA &gt; LITERATURA

## Kurtzebarri eskolako ikasleak literatura astea egiten dabilta oraingo astean

Txikienek, ipuin kontalariekin eta hainbat idazlerekin solasean aritu dira; DBHkoak, berriz, ikasle gazteendako ekintzak prestatzen ibili dira

M.B. &gt; ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako ikasleak literaturarekin lotutako ekimenak egiten dabilta asteen. Haur Hezkuntzakoak ipuinen munduan murgildu dira, Irati Pagoaga ipuin kontalariaren eskutik. Lehenengo mailakoek Patxi Zubi-

zarretarekin *Urrezko giltza* liburuaren gainean jardun dute; bigarrenekoek euren buruen deskribapenak eskaini dituzte; eta hirugarrenekoek, hainbat kulturatarako zortzi haurren bizimoduak azalduko dituzte.

Hurrengo mailakoek ipuin mitologikoak idatzi dituzte eta bosgarren kurtsokoak Aitzpea Goenagarekin izan dira, *Lauterdi pirataren altxorraz* hitz egiten; seigarrenekoek, berriz, horma-irudiak egin dituzte. DHBkoek, azkenik, hainbat ekintza prestatu dituzte ikasle txikiendako.

Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide frogia prestatzea nahi duzu?  
**Nahikoa duzu 18 urte izatea.**

Etor zaituz AARETXABALETA GLHB Institutura eta informatu.

Inskripzio epea: apirilaren 30a arte.

*Etxebarri auzoa, z/g*  
20550 AARETXABALETA (Gipuzkoa)  
Tels.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55

E-mail: ia@iaretxabaleta.com Web orria: www.iaretxabaleta.com



Mobiliario  
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

&gt; DEIALDIA

## Apirilaren 23rako batzarra deitu du ezker abertzaleak

Herri batzarrerako deialdia egin du Aretxabaltako Ezker Abertzaleak apirilaren 23rako, eguaztena. Urbaltz elkartearen jarritako dago hitzordua, 19:00etan.

Batzarrak irauten duen bitartean haurtzaindegi zerbitzua egongo dela ere jakinarazi du.

&gt; AISIA

## Udaleku irekietarako begirale bila dabil Kultura Saila

Uztailaren 2tik 23rako udaleku irekietan begirale modura lan egin gura dutenendako izenemate epea zabalduko du Udalak. Apirilaren 23tik maiatzaren 9ra arte eman daiteke izena. Curriculumak eta nortasun agiriaren fotokopia kultura etxera edo Udalera eraman behar dira.

&gt; AISIA

## Errioxara joango dira 1958an jaiotakoak maiatzaren 31n

Irteera bat eginez urteurrena ospatu gura dute 1958an jaiotako kintoek. Errioxara joango dira maiatzaren 31n. Apirilaren 30a baino lehen eman behar da izena Gurea, Eguzki, Artano eta Izartu tabernetan edo Euskadiko Kutxan. Hogei euro sartu behar dira esandako kutxan.

&gt; NEKAZARITZA

## Loramendik ortu ekologiko batera irteera antolatu du

Loramendi Euskara Elkartek ortu batera irteera egingo du apirilaren 24an, eguena. Hara joaten direnek nekazaritza ekologikoaren gaineko argibideak jasoko dituzte.

Esan bezala, datorren eguenean, 18:00etan elkartuko dira udaletxe zaharrean, jarraian ortura joateko.

&gt; KIROLA

## Gaztelekukoak 'rafting'-a egitera joango dira domekan

Gazteria Zerbitzuak gaztelekuko kideendako antolatu duen apirileko egitarauaren barruan, domekan egingo den irteera nabarmentzen da. Eskoriatzako gaztelekukoekin batera, Nafarroa Behereko Bidarrai herrira joango dira, *rafting*-a egitera. Hogei euro jarri behar dituzte interesa dutenek.



LEHIAKETA > ARGAZKILARITZA

# Argazki lehiaketa egingo dute Korpus bezperako lasterketaren inguruan

Maiatzaren 24an jokatu da proba, eta lehiaketarako izenematea egunean bertan egin behar da

600 euro banatuko dituzte hiru argazki onenen artean

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Maiatzaren 24an jokatu den VI. Nazioarteko Herri Lasterketak berrikuntza bat izango du: alegia, argazki lehiaketa deitu dute. Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak bat egin du proba antolatzen duen Antxintxiketan taldearekin, eta dagoeneko egin dute argazki lehiaketarako deialdia. "Guretzat aukera paregabea da lasterketa zabaltzeko. Gainera, probaren gaineko argazkiak izateko aukera emango digu, alegia, argazki-fondoa egiteko aukera izango dugu", esan digu Antxintxiketa taldeko Jesus Arregik.

IZENEMATEA, EGUNEAN BERTAN

Argazki lehiaketan parte hartu gura dutenek izena lasterketa egunean bertan eman beharko dute gaztelekuan, 18:00ak baino lehen. Ondoren, lasterketak dituen hamar kilometroetan nahi beste argazki egingo dituzte. Proba postetxearen aurrean hasiko da eta, herriko kaleetan ibili ondoren, plazan bukatuko da.



LASTERKETA Argazkian, iazko lasterketako momentu bat.

GOIENKARIA

600 EURO SARITAN

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, lau argazki aurkez ditzake. Lanak CD edo DVD euskarrian entregatu behar dira Antxintxiketan Elkartearen, edo Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen, ekainaren 14a baino lehen.

Bestalde, leihaketara aurkezten den argazki bakoitzeko, bi artxibo entregatu behar dira: bat bereizmen baxukoa, jpg formatuan, eta bestea, bereizmen altukoa, tif edo jpg formatuetan.

Argazkilaritzan adituak diren lagunek osatutako epaimahaiak erabakia ekainaren 25ean hartuko du. Lehiaketara aurkez-

tutako lanekin egingo den erakusketak zabaltzen den egunean, hau da, uztailaren 4an, egingo dute sari banaketa ekitaldia. Hain zuzen, hiru sari banatuko dira, 300, 200 eta 100 eurokoak.

Informazio gehiago gura duenak [arrekorta@euskalnet.net](mailto:arrekorta@euskalnet.net) helbidera idatz dezake.

CHEMA MARTINEZ, EZ

Lasterketari dagokionez, parte-hartzaileen zerrenda erabat lotuta ez duten arren, iazko irabazle Chema Martinez ez da irteera puntuan egongo. Dena dela, iaz baino korrikalari gehiago espero dituzte, 70 bat, hain zuzen.

> BERBALDIK

## Elikadura eta Goi Mailako zikloen gaineko hitzaldiak Ikastolan

Gurasoen prestakuntzaren inguruan, Txantxiku Ikastolak bi hitzaldi antolatu ditu datorren asterako. Alde batetik, martitzen, Goi Mailako Hezkuntza zikloen gaineko berbaldia egingo dute. Hain zuzen ere, Arizmendi Ikastolako, ETEOko eta Mondragon Goi Eskola Politekniko kideek hango eskaintza azalduko diete Batxilergoko 1. eta 2. mailetakoko ikasleei eta horien gurasoei.

Beste alde batetik, eguaztenean, Ana Elbusto nutrizionistak elikaduraren ohitura egokien garrantziak egingo du berba. Bi hitzaldiak 18:30ean hasiko dira, Txantxiku Ikastolako aretoan.

> DEIALDIA

## 1982. urtean jaiotakoen kinto afaria antolatzeko deialdia egin dute

Oñatiko gazte talde batek 1982. urtean jaiotakoen kinto afaria antolatu gura du. Datu Babes Legea dela eta, Udalean ez dute helbiderik lortu, eta deialdia komunikabideen bidez egitea erabaki dute. Hain zuzen ere, 1982. urtean jaiotako eta kinto afarian parte hartu gura dutenekin, datu base bat egin gura dute. Hortaz, baldintza horiek betetzen dutenei izen-abizenak eta telefonoa bidaltzea eskatzen diete [kinttuak82@gmail.com](mailto:kinttuak82@gmail.com) helbidera. Oraindik ez dute kinto afaria egiteko egunik jarri, ez eta egitaraurik osatu. Helbide berera jo daiteke informazioa eskatzeko edo zalantzak argitzeko.

> SALAKETA

## EAE-ANVk Oñatiko Udalean duen parte-hartzea salatu du PPK

Oñatiko Udaleko Alderdi Popularreko zinegotzi Julio Perez de Arriluzeak EAE-ANVk udalbatzordeetan duen parte-hartzea salatu du. "EAE legez kanpo dago Oñatin, baina udal batzordeetan parte hartzen du, eta alkate eta zinegotziek darabilten dokumentazio guztia jasotzen dute", esan du. Bestalde, PSE-EEko zinegotzi Blanca Roncalen jarrerari buruzko adierazpenak egin ditu: "PSE-EEko zinegotziak begi onez ikusten du legez kanpo dauden ordezkarien parte-hartzea batzordeetan".

Oñatiko Udalean "bizi den egoera aldatzeko" lanean jarraituko duela esan du.



LATZEN Argazkian, Eskoriatzan emandako kontzertuko une bat.

J. ARANZABAL

MUSIKA > ERREKALDEKO JAIK

## Maiatzaren 30ean, Latzenek Errekalde auzoan joko du


Discipulos de Dionisos, Los Cretinos eta Anestesia taldeekin joko dute

tako bat. Beraiekin batera joko dute Los Cretinos, Discipulos de Dionisos eta Anestesia taldeek. Emanaldia 21:00etan hasiko da, eta doanekoa izango da.

SASKIBALOI TXAPELKETA

Kontzertua baino bi ordu lehenago hasiko dira Errekalde auzoko jaiak, hain zuzen, 19:00etan. Txorimaloen kalejiraren ondoren, sagardo eta ardo-dastatzea egongo da, txoriz eta gaztarekin.

Zapatuan, 3x3ko saskibaloi txapelketa, mendi ibilaldia, umeendako jolasak eta Los Inpekables taldearekin erromeria egongo dira. Domekan, auzo bazkaria egingo dute.



GOIENKARIA

## Gartzia, Gipuzkoako txapeldun

Aloña Mendi karate saileko Xabier Gartzia oñatiarrak Gipuzkoako Karate Txapelketa irabazi zuen martxoaren 9an. Kumite modalitatean eta 70 kilo baino gehiago dutenen artean, onena izan zen. Bestalde, Euskal Herriko Txapelketan, hirugarren tokian sailkatu zen maila berean. Argazkian, Alberto Lera irakaslearekin dago.

EUSKARA &gt; KANPAINA

# Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abian dago

Aitorpena euskaraz egiteko zer aukera dauden argitu du Euskara Zerbitzuak

Diptikoak banatu dituzte udalerriko etxeetan eta hainbat enpresatan

IKER BARANDIARAN &gt; ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Euskara Sailak *Nora begira zaude? Egizu euskaraz* kanpaina abiarazi du. Helburua da eskoriatzarrek errenta aitorpena euskaraz egitea. Koh diseinu enpresak Udalarendako diptikoak egin ditu eta etxez etxe banatzen dabilta.

Diptikoekin herritarrei gogoratzen diete errenta aitorpena euskaraz egiteko aukera dutela. Hain zuzen ere, azaltzen diete horretarako hiru zerbitzu dituztela: Euskadiko Kutxa, Kutxa eta

Arrobi aholkularitza. Horrez gain, azpimarratzen dute aitorpena autolikidazio bidez, mekanizatua eginda, telematikoa edo nork bere bidetik, beti dagoela aukera euskaraz egitea eskatzeko. Hain zuzen ere, Udaleko Euskara Sailak argitu du Foru Aldundiak aukera hori beti ematen duela, baina askotan erabiltzailearen ardura dela hori eskatzeko eta aldarrikatzeko.

Hala, Internet bidez, telefonoz zein aurrez aurre, errenta aitorpena egiteko harremanak izanez



ARGIBIDEETARAKO DIPTIKOAK Etxez etxe banatu dute diptikoak.

KOH DISEINUA

gero, euskaldunek euskaraz egiteko bideak dituztela argitzea.

**EUSKARA PLANA DUTEN ENPRESAK** Gainera, Euskara Sailak langile euskaldunen gehiengoa duten edo euskara planak dituzten enpre-

tara ere diptikoak bidali ditu, eta horiekin orri-puntuak. Orri-puntuak errenta aitorpenarekin lotutako hiztegi txikiak dakarte.

Guztira, 2.000 diptiko eta 500 orri-puntu egin ditu Udalak herritarrei banatzeko.

ONDAREA &gt; AUZOLANA

# Erretiratu talde batek eta Udalak iturri bat jarri dute Aingeru Guardan

Erretiratuen eta Udalaren artean Aingeru Guarda txukuntzen dabilta

Jarlekuak ipiniko dituzte, eta baranda eta zebra-bidea jartzea eskatu dute

I.B. &gt; ESKORIATZA

Azken urteotan Aingeru Guarda ermitaren ingurua asko hobetzen dabilta. Lehenengo pausoa herriko erretiratu talde batek egin zuen, Aingeru Guarda ermita berreskuratzeko lanak bere gain hartuta.

Gerora, Udalak hainbat konpromiso hartu zituen, erdizka bete dituenak. Hala ere, azken urteotan egin duten Zuhaitz Egunaren bitartez, hainbat zuhaitz landatu dituzte inguru hartan.

**UR-HARTUNEA, BALIATUTA**

Egunotan, erretiratu talde horren beste eskaera bat bete da: herriko erretiratu talde horrek Udalera jo zuen iturri baten eske. Hain zuzen, Udalak erosi eta Aingeru Guardan jarri dute, Udaleko brigadaren eta erretiratuen lanari esker.



IBILTARIENDAKO ITURRIA Argazkian, Aingeru Guarda inguruan jarri duten iturria.

IKER BARANDIARAN

Inguru hartako tailer eta bestelakoek erabiltzeko ur-hartunea dagoela baliatuta, iturria jarri dute bertan; eta dagoeneko hainbat ibiltarik estreinatzen auzoan izan dute.

**ZEBRA-BIDEA ETA ESKUDELAK**

Erretiratu taldeko kideek azaldu digute beste eskaera bat egin dietela Udalari eta Aldundiari: Aingeru Guardaren alboan zebra-bidea jartzea. Bigarren aldia da

eskaera hori egiten dutela, aurrekoan Aldundiak eskaera atzera bota zuen-eta.

Horrez gain, Udalak jarleku batzuk jarri gura ditu; eta erretiratuek ingurunean egoten diren

ibiltariak autoetatik babesteko barandalak jartzea ere gura dute, eta horretan ere badabilta.

Bestalde, badira beste asmo batzuk Aingeru Guardan eragingo dutenak. Hain zuzen ere, Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek jakinarazi digu Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalari eskatu diola Aingeru Guarda inguruan gatz biltegi bat jartzeko.

**GATZ BILTEGIA JARRIKO DUTE**

Udalak onartu egin du eskaera eta, hilabeteko epean-edo, biltegia Eskoriatzan jarriko dute. Biltegi hartan, gatz gordeko dute, eta hura baliatuko dute, izotza dagoenean, Aldundiko langileek errepidean botatzeko.

Biltegiak 15 metroko luzera izango du eta 100 bat tona gatz sartu ahal izango dira. Sistema horren bitartez, posible izango da kamioiak biltegiaren azpian jarri eta gatzarekin betetzea.

**HERRIKO ARTISTEK APAINDUTA**

Horrekin batera, alkateak azaldu digu, biltegi horren tamaina kontuan hartuta, Udala harremanetan jarri dela herriko hainbat artistarekin biltegia apaindez. Herriko artistek oso ondo hartu dute proposamena, eta horietako batzuk hasi dira zer marrazki egingo duten aztertzen. Aldundiak finantzatzeko du apainketa, jakina.

KULTURA > LIBURUAREN EGUNA

# Liburuak trukatzeko azoka eta antzezlan bat egingo dituzte zapatuan Herriko plazan

Liburuaren Egunaren gaineko ekitaldien barruan, liburuak trukatzeko azoka egingo dute bihar; horrez gain, 'Karrakela' antzezlan ere egingo dute

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA  
Eskoriatzako Udaleko Kultura eta Euskara zerbitzuek eta Udal Bibliotekak liburu azoka antolatu dute biharko, zapatua.

Liburu azoka herriko plazan egingo dute 18:00etatik 20:30era bitartean, eta bertan liburuak trukatu dituzte. Hain zuzen ere, azken asteotan, gura izan duten herritar guztiek etxean zituzten liburu zaharrak eraman dituzte. Baldintza bakarra zen liburuak egoera onean egotea eta

ikas-liburuak ez izatea. Hala, bibliotekara eramandako liburu bakoitzaren truke, herritarrei azokan bi liburu eskuratzeko txartela eman diete.

**BIBLIOTEKAKO LIBURUAK**  
Herritarrek eramandako liburuak Udal Bibliotekatik kenduko dituzten beste hainbat ale batuko dizkiete. Hain zuzen ere, bibliotekak urtero baliatzen du liburu azoka liburu zaharretako batzuk kentzeko.

Aurreko bi urteotan *Kataia eten barik* ekimena antolatu dute Liburuaren Egunaren harira. Irakurtzeko zaletasuna kultura transmisioarekin lotu zuten antolatzaileek.

Aurten, berriz, liburu azokaz gain, txotxongilo eta antzerki ikuskizuna egingo dute. Zapatuan egingo dute ikuskizun hori. 18:30ean izango da, Herriko plazan; eta eguraldi txarra egingo balu, Huheziko areto nagusian egingo lukete.

**'KARRAKELA' IKUSKIZUNA**

Kilima antzerki taldearen *Karrakela* ikuskizunak aktoreen lana eta txotxongiloak batzen ditu. Horrez gain, musika, abestiak, ikusleekin egiten dituzten jokak eta efektu bereziak ere erabili dituzte ikuskizunean.

*Karrakela* ipuinak itsasontzi txiki baten abentura kontatzen du, eta egileen esanetan istorio hori egiazkoa da. Aktoreak Clara G. Arana, Inaxio Tolosa eta Ainhoa Alberdi izango dira.



Argazkian, joan den urtean Eskoriatzako plazan egin zuten liburuak trukatzeko azoka.

GOIENKARIA

## Errepublikako bandera, udaletxean

**I.B.** > ESKORIATZA

Astelehenean Errepublikako bandera jarri zuten zintzilik udaletxeko balkoitik, Eibarren Errepublikaldarrek 77. urteurrena ospatzeko. Azkeneko Udaleko osoko bilkuran EB-Berdeak taldeko Juan Luis Merino zinegotziak egin zuen eskaera, eta Pedro Lasagabaster alkateak onzat hartu zuen. EB-Berdeek salatu dute monarkia gauza zaharra dela, iraganeko.



GOIENKARIA

> AISIALDIA

### Aldundiaren Gazte Oporraldian izena emateko epea zabalik

Gipuzkoako Foru Aldundiak 14 eta 17 urte bitarteko gazteendako Gazte Oporraldiak 08 ekimena antolatu du. Zazpi, hamar edo 15 eguneko egonaldiak izango dira, eta txandak uztailaren 1etik abuztuaren 29ra bitartean izango dira.

Izena emateko azkeneko eguna apirilaren 25a da. Interesatuak Eskoriatzako Gazteria Zerbitzura jo dezakete martitzen edo eguenetan. Bestela, informazio gehiago eskura daiteke 605 70 89 46 telefonoan. Izena ematen dutenen arteko plazak zozketa bidez banatuko dituzte maiatzaren 8an.

> AISIALDIA

### Bihar, zapatua, gaztelekutik 'rafting'-a egitera joango dira

Eskoriatzako gaztelekuan ez da atsedunik egongo datozen asteburuetan. Bihar, zapatua, *rafting*-a egitera Bidarraira joko dute. Egun osoko irteera egingo dute, eta interesatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte. Hori bai, komeni da lehenbailehen gaztelekura joatea izena ematera.

Horrez gain, hilaren 26an, sukaldaritza tailerra egingo dute. Dena dela, gaztelekua zabalik egoten da egubakoitzero 17:00etatik 20:30era, eta zapatu eta domeketan, 16:30etik 20:30era. Mota askotako jokak eta ekintzak egiten dituzte han.

ELIZA &gt; OBRAK

# Datorren asterako ipini nahi dute kanpandorreko erlojua

Ordulari berriak hiru esfera izango ditu, eta kanpai txikiak jotzen hasiko da berriz

Barruan korua, zorua, argiteria eta soinua konpondu eta pintaketa lanak egingo dituzte

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Erloju zaharra elizako kanpandorretik kendu eta laster ipiniko dute berria. Errioxatik ekarriko dute erlojua eta datorren asterako ipinita egotea da Udalaren asmoa. Horretarako, aprobetxatuko dituzte kanpandorra konpontzeko erabili dituzten aldamiok eta baita garabia ere. Izan ere, horrela lana errazagoa izango den ustea dute. Erlojua ordezkatuko duten arren, teknikarien esanetan, merezi du zaharra konpontzea eta zaintzea; ondoren ikusiko dute zer egin ordulari zaharrarekin.

Erloju berriak izango du zaharrarekin ezberdintasunik: batetik, bi esferaren ordez hiru

izango ditu orain; Sagasti alde-ra ipiniko dute hirugarrena. Bestalde, diseinuari dagokionez, klasikoagoa izango da, hau da, ez du ez argi ez kristalik izango, esfera eta zenbaki erromatarrak baino ez.

Gainera, elizako erlojua kanpai txikiak jotzen hasiko da berriz. Egun, grabazio bitartez, megafoniatik entzuten dugu soinua, eta, hemendik aurrera, kanpai hotsa naturala izango da. Horretarako, erlojuarekin batera, kanpandorreko kanpai txikietan, mailu bat ipiniko dute ordulariari konektatuta, eta horiek izango dira, hain zuzen ere, aurrerantzean entzungo direnak.

## BIGARREN FASEA

Elizako lanen lehen fasea ere amaitzeaz dago. Eliza azpiko etxearen erreteila egitea falta da, baina erlojua ipini artean ezin dira aldamiok kendu; hortaz, kanpoko lanak maiatzerako amaitzea espero dute. Bien bitartean, barruko obretarako aurrekontuak aztertzen dihardute. Barruan egin beharreko lanak hauek dira: pintaketa eta korua, zorua, argiteria eta soinua konpontzea. Erretaulak zaharberri-tzea azken lana izango da.



KANPANDORREA Hirugarren esfera Sagasti auzora begira ipini nahi dute. I.A.

## ERRETIRATUAK

### Erretiratuen batzarra da bihar, zapatua

I.A. > ANTZUOLA

Erretiratuen Elkarteak batzar orokorra egingo du bihar, zapatua. Bilera erretiratuen lokalean izango da, 18:00etan. 2007ko jarduerak eta 2008rako aurreikusitakoak izango dituzte hizketarako gai. Estatutuen eta kuoten berritzearen gainean ere jardungo dute. Batzordeko kideek ordurako joateko dei egin diete bazkideei. Batzarraren ostean, luntxa egingo da.

## ANTZERKIA

Bestalde, antzerki saioa izango da apirilaren 24an Erretiratuen Elkarteak antolatuta. Ikusi-Makusi Oñatiko erretiratuen antzerki taldeak emaldia eskainiko du 18:00etan herriar guztiendako.

## ZIRKULAZIOA

### Herriko plaza itxi egingo dute gaurtik

I.A. > ANTZUOLA

Apirilaren 18tik aurrera, Herriko Plaza zirkulazioaren dako ixten hasiko dira. Asteazken zehar gauean itxiko dute eta aste bukaeretan eguerdian. Plazatik irteteko, Surpeko irteera erabili ahal izango da eta larrialdi kasuetan baita Olarangoko aldapa ere.

## Ordutegia

Aste bukaeretan	
Zapatuan itxi	15:00
Astelehenean zabaldu	6:45

Astean zehar	
Egunero itxi	20:30
Egunero zabaldu	6:45

> AISIALDIA

### Zabalik dago uztaileko udaleku irekietarako izena emateko epea

Uztailaren 1etik 17ra bitartean, goizetan, udaleku irekiak izango dira Antzuolan. Udalekuetan umeekin arduratzeko begiraleak behar dituzte, eta izena emateko epea apirilaren 30era arte zabalik dago udalekuean. Bestalde, udaleku irekietan parte hartu nahi duten umeei ere izena eman dezakete. Informazio gehiago udalekuean eskura daiteke.

> GAZTEAK

### Bertsolariak, luntxa eta kontzertua izango dira gaur, gaztetxean

Antzuolako Gazte Batzarrak ekitaldiak antolatu ditu gaurko, egubakoitz. Triki-poteoa egingo dute 19:00etan eta, ondoren, luntxa izango da gaztetxean. Gero, Beñat Gaztelumendik eta Eneitz Zabalak bertso saioa eskainiko dute. Gauean kontzertua izango da Bergarako No Hay Solucion eta Exorsion, eta Ondarroa eta Markinako Txato Plato taldeekin.

> IRTEERA

### Jolasak, afaria eta 'rafting'-a gazteguneko azken asteburuan

Antzuolako gaztegunean ikasturteko azken aste bukaera izanik, egitarau berezia antolatu dute. Zapatuan, agur festa egingo dute. 17:00etan hasita jolasak eta aisialdi ekintzak izango dira gaztegunean, eta afaria ere egingo dute. Bestalde, domekan Ur Bizia abentura taldearekin rafting-a egiteko aukera izango dute gazteek Urdaibain.

> ANTZERKIA

### Domekan umeendako 'Edabe magikoa' antzezlan Olaranen

Domekan, apirilaren 20an, 4 eta 12 urte bitarteko umeendako txotxongilo saioa izango da Olaran etxean, 18:30ean. Asociacion Cultural Opera Divertimento taldeak *Edabe magikoa* lana eskainiko du. Antzezlan hori Donizettiren *L'Elisir d'amore* operaren egokitzapena da. Amodiozko istorio baten bitartez antzerkia umeengana helaraztea dute helburu.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK  
Jose Gomez Abad  
Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19  
INDUSTRI MANTENIMENDUA

**EGAÑA**  
Era guztietako arotz lanak  
Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak  
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

> AZOKA

## Udaberri jaien lore azoka izango da, apirilaren 26an

Guraso elkarteak Udaberri Eguna antolatu du apirilaren 26rako. Goizean landare azoka izango da eta herritarrek han izango dute etxeetako balkoiak apaintzeko loreak erosteko aukera. Loreak ez ezik ogitartekoak eta etxean egindako pastelak eta tartak ere izango dira salgai. Umeek ere izango dute ongi pasatzeko aukera loreak landatuz, udaberriko irudiak margotuz eta ohe elastikoetan saltoka.

> AZPIEGITURAK

## San Roke kalea eta Espaloirako bidea aste bukaeretan itxita

San Roke kalean eta Espaloirako bidean piboteak ipini dituzte eta horiek ixteko ordutegia finkatu dute. San Roke kalearen hasieratik elizara arteko zatia eta Espaloira doan bidea itxita egongo dira ibilgailuendako aste bukaeretan. Barikuetan, 14:30ean, ipiniko dituzte piboteak eta astelehen goizean bitartean ez dute zabalduko. Gune horietan oinezkoak lasai ibiltzea da asmoa.

> AISIALDIA

## Ipuin kontalariak, zirkoa eta erakusketa Espaloian asteburuan

Aisialdi aukera zabala izango da asteburuan Espaloian. Gaur, barikua, kontzertua egongo da Gainsbourg-en omenez. Zapatuan, Jose Campari eta Pablo Albo ipuin kontalarien saioa izango da 22:30ean. Domekan, 18:00etan, *Bazen behin zirkoa* izenburupean ikuskizuna eskainiko du Zirkua Zirkus taldeak umeendako. Bestalde, hilaren amaierara arte Cristina Azpiriren lanak egongo dira ikusgai.

> ERRETIRATUAK

## Apirilaren 25ean izango da Ozkarbin erretiratuen batzarra

Erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du apirilaren 25ean, 18:00etan, Ozkarbi elkartearen. Balantze ekonomikoa jakinarazteaz gain, batzordekide berriak eskatuko dituzte, eta, norbait aurkeztuz gero, baita presidentea aldatu ere. Bestalde, erretiratuendako podologoaren kontsulta apirilaren 24an izango dela jakinarazi dute. Aurrez ordua hartu behar da telefono zenbaki honetara deituta: 943 76 80 77 (Nati).

JAIK > EKINTZA BERRIAK

# Herri Eguna izendatu nahi dute jaietako zapatua aurten

Herritarrei zapatu horretan baserriar arropa janzteko gonbita egin die jai batzordeak, eta erromeria antolatu dute arratsalderako

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Uztailaren 3tik 6ra bitartean izango dira aurten herriko jaiak eta astelehenean bilera izan zuen Jai batzordeak Azoka Nagusiko jaiak antolatzen.

Hainbat koadrilak proposatu du jaietako zapatua Herri Eguna izatea, eta ideiarekin aurrera egin dute. Hortaz, zapatuan, koadrila giroa izango da nagusi herrian. Goizean, hamaiketako egingo dute, eta asto karrera izango da gero. Azken urteotako ohi-turari utsiz, paella-jana egingo dute ondoren. Bazkalostean izango da aldaketarik. Izan ere, orain arte jokoak egin izan dituzte, baina aurten erabaki dute erromeria egitea arratsaldean.

Egunari herri kutsua emateko, pentsatu dute denek baserriar arropa janztea. Hori jakina-



BAZKARIA Azken urteotan bezala Paella jana izango da zapatuan.

GOIENKARIA

razi nahi diete jai batzordekoek herritarrei, arropa gertatzen joan daitezen eta ez daukatenez erosi edo eskura dezaten.

**BARIKUA, UME ETA ERRETIRATUENA** Jaietako gainontzeko egunetarako ekintzak gertatzen dihardute oraindik. Eguena mozturro egu-

na izango da, orain artean bezala, eta domekan, berriz, azoka egingo dute.

Barikua erretiratuen eta umeen eguna izango da. Orain arte, umeendako ekintzak antolatzen ziren eguen arratsalderako eta bariku goizerako, eta orain, dena barikura pasatu nahi dute.

ARTEA > ESKULTURA

## Intxortako Atean berriz egin dituzte pintaketak

I.A. > ELGETA

Intxortako Atean asteen *Guardia Civil jota bertan hil* eta *Gora ETA* pintaketak egin dituzte. Horren aurrean Udalak haserrea azaldu eta ekintzok gogor kritikatu nahi ditu. Egilearekin hitz egin ostean, hareazko txorrotan erabiliz garbituko dute eskultura. Eguna zehazteke badago ere, lehenbailehen garbitu nahi dute, apirilaren 27an lore eskaintza eta omenaldia egingo dutelako han.



PINTAKETAK Asteon, pintaketa gehiago agertu dira monumentuan. IBAN ARANTZABAL

bere ustez



Geaxi Ezpeleta

## Beraien gurgpilean jira eta bira

**G**izarte honetako arazo nagusia terrorismoa dela errepikatzen dute, behin eta berriz, agintariak eta alderdi desberdinetako ordezkariak.

Han eta hemen egiten dute salaketa eta kondena. Hain eroso da espainiar agintarien gurgpilean jira eta bira jardutea.

Benetan politika egin eta gizarteaz arduratuko balira bestelako botere gose eta interes ekonomikoak alde batera utziz, gauzak beste era batekoak lirarteke...

## "Terrorismoak baino biktima gehiago ditu emakumeen aurkako indarkeriak"

Terrorismoak baino biktima gehiago ditu emakumeen aurkako indarkeriak, esaterako. Baina ondo erakutsi digute denak ez direla maila bereko biktimak.

Hauekin ezin da horren erraz politikarik egin. Hitz politiek eta kondena hutsek ez dute ezertarako balio, terrorismoa desagertu arren hemengo arazoak bere horretan jarraituko luke.

Eta zuek hipokresiaz beteriko joko politikoa jarraitzen duzuen bitartean emakume asko eta asko sufrimenduak jango ditu, dagoeneko luzeegia den zerrenda luzatuz.

Baina zuek jarraitu zuegan, botoak horrek mugitzen ditu, eta azken finean hori da garrantzitsuena, ezta?

**((112))**  
SOS DEIAK

**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi  
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR



Enpresa  
Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

Sabin Salaberri &gt; Organo jotzailea

# "Aramaio da munduko herririk ederrena eta maitekorrena"

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Sabin Salaberri organo jotzaile aramaiorak Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jasoko du etzi Aramaioko kultura etxean. Aramaio seme kuttuna da Salaberri eta Aramaio munduko herririk ederrena dela uste du. Salaberrirekin hizketan jardun dugu, sariaren inguruan eta baita bere ibilbide musikaren gainean ere.

**Zer esan nahi du Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona sariak zuretzat?**

Harrituta uzten nau. Ohore handia da eta, are gehiago, orain arte sari hori nortzuek jaso duten ikusita. Eskerrak eman nahi dizkiet sari hori niri ematea erabaki dutenei.

**Ez zenuen espero, orduan?**

Inolaz ere ez. Jose Mari Velez de Mendizabalek eman zidan berria. Hasieran, ez nuen sinetsi. Itxura denez, norbaitek merituren bat ikusi du niregan nik ikusten ez dudana. Horregatik, harrituta gelditu nintzen lehenengo momentutik.

**Zer dela eta aukeratu duzu Aramaio saria jasotzeko?**

Gehienetan, Eusko Ikaskuntzak bere programan dituen ekitaldietako batean ematen du sari hori. Baina, nire kasuan, Velez de Mendizabalek aukera eman zidan tokia aukeratzeko; nik nire herrian jaso nahi nuen saria. Gainera, Aramaio Udalaren proposamen bat ere iritsi zen Eusko Ikaskuntzara. Izan ere, saria niri emango zidatela jakin zutenean, ekitaldia Aramaion egitea proposatu zuten.

**Zer da Aramaio zuretzat?**


Nire jaioterrria da. Nire lehenengo 12 urteak Aramaion pasatu nituen. Gogorapen handiak ditut nire herriarekiko. Duda barik, niretzat munduko herririk ederrena, politena eta maitekorrena da. Horregatik, domekako ekitaldia oso berezia da niretzat: alde batetik, sariak berak duen garrantziarengatik; eta, bestetik, Aramaion jasoko dudalako.

**Eusko Ikaskuntzak zure biografia jasotzen duen liburu bat argitaratu du. Izan duzu liburua irakurtzeko aukerarik?**

Bai. Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzi du, eta harekin jardun dut inprentarako zuzenketak egiten. Beraz, badakit zer jasotzen duen liburu horrek.

**Zer jasotzen du biografia horrek, bada?**

Zein girotan jaio eta hazi nintzen Aramaion, nire haurtzaroko adiskideak zeintzuk izan ziren,



Sabin Salaberri organo jotzaileak Manuel Lekuona saria jasoko du domekan kultura etxean, 12:00etan. J.M. VELEZ DE MENDIZABAL

**"Ohore handia da, are gehiago, orain arte saria nortzuek jaso duten ikusita"**

**"Domekako ekitaldia oso berezia da, sariak duen garrantziarengatik eta Aramaion jasotzearengatik"**

nire ibilbide musikala; helburuak, ilusioak, porrotak... dene-tik pixka bat.

**Nola sartu zinen musikaren munduan?**

Nire familian musikarekiko zaletasun handia egon da beti. Aitak eta anaia nagusiak Aramaio abesbatzan abesten zuten. Ni ere, 7 urterekin, Ara-

**"Nire familiari eta Aramaioko herriari eskainiko diet Manuel Lekuona saria"**

**"Itxura denez, norbaitek merituren bat ikusi du niregan, nik ikusten ez dudana"**

maio elizako abesbatzan sartu nintzen. Gero, hango organistak zerbait ikusi zuen nigan, eta pianoa jotzen irakatsi zidan. 12 urterekin, organoa jotzen nuen Aramaio elizan.

**Organoa duzu instrumenturik kutunena?**

Aitortu behar dut pianoa oso berezia dela niretzat. Jotzen ika-

si nuen lehenengo instrumentua izan zen, eta hortik pasatu nintzen, gero, organora. Pianoarekin barru-barrutik irteten diren doinuak lortzen dira.

**Zuregan aldatu egin da musika sentitzeko modua?**

Bai; gehitu egin da. Izan ere, bizitzaren momentu batzuetan ez dakizu nora jo, dudak izaten dira. 18-22 urte nituenean, ez nekien musikara dedikatu nahi nuen. Baina iritsi zen momentu bat, Arabako abesbatza sortu genuenean, musikaren munduan bete-bete sartu nintzela. Poliki-poliki, gero, zaletasuna handitzen joan da.

**Zeini eskainiko diozu sari hori?**

Lehendabizi, familiari, bi familiari: Aramaio anai-arrebei eta Gasteizko familiari, emazte eta seme-alabei. Azkenik, herriari, Aramaioari.

TXIRRITOLA ELKARTEA

## Apirilaren 25ean, 'Hor al zaude?' antzezlan

A.B. &gt; ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta *Hor al zaude?* antzezlanaz gozatzeko aukera izango da datorren barikuan, apirilaren 25ean. 22:00etan izango da emanaldia kultura etxeko aretoan.

Javier Daultek idatzitako lana da. Londresen estreintu ondoren, Buenos Aires eta Bartzelonan ibili dira, besteak beste. Umorez eta fantasiaz betetako antzezlan horren atzean, maitasunari buruzko gogoeta argia dago. Ane eta Patxi elkarrekin bizitzera joango dira. Etxea traketza eta txikia da, eta arazoak dituzte auzokideekin. Gainera, gizon ikusezin baten presentziak ohartuko dira laster.

&gt; SALAKETA

## Agirrek astelehenean deklaratu du Gasteizko epaitegian

Estatuko Fiskaltzak Asier Agirre alkatearen aurkako salaketa ipini zuen pasa zen astean. Fiskaltzaren arabera, iazko irailaren 28an, 29an eta 30ean, AHTren gaineko legez kanpoko erreferenduma egin zuten herrian, udal azpiegiturak baliatuta. Alkateak aste honetan jaso du salaketaren autoa. "Desobedientzia eta diru publikoa bidegabe erabiltzea egozten didate. Nik argi daukat herriak eskatutakoa egin nuela eta ez dudala inolako deliturik egin", azaldu du Agirrek. Astelehenean deklaratu du Gasteizko epaitegian.

&gt; ZINEMA

## 'Huck eta Tomen abenturak Mississippi' filma

Domekako film emanaldiek aurrera jarraitzen dute, eta asteburu honetan abenturazko istorio batez gozatzeko aukera izango dute Aramaioko gaztetxoek.

Film horren abiapuntua Mississippi ibaia da. Huck Finn deritzon mutikoak ahal duena egiten du bizitzan aurrera egiteko, horretarako, irudimen eta ausardia handia erakutsiz. Aitarengandik ihesi, beste mutiko bat ezagutu du, Jim izeneko. Biak, bat eginda, abentura bila joango dira. Jim-ek gauza asko irakatsiko dizkio bizitzan moldatzeko.



VENTOS DE SAUDADE Fadoak jotzen dituen Soraluzeko taldea Elgetan kontzertua egin zuenean.

GOIENKARIA

25 de Abril Sempre!  
Leintz Gatzagako  
Kofradixie taldeak  
antolatu du ekimena,  
eta Gatzagainen  
egingo dute afaria;  
dagoeneko txartel  
gutxi geratzen dira

OSPAKIZUNA > KRABELINEN IRAULTZA

## Fado afaria egingo dute hilaren 26an, Krabelinen Iraultza gogoan dutela

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Portugalen 1974ko apirilaren 25ean gertatu zen Krabelinen Iraultza aitzakia hartuta, fado afaria antolatu dute hainbat gatzagarrek. 25 de Abril Sempre! Leintz Gatzagako Kofradixie ize-na jarri diote sortu berri duten taldeari, eta gatzagar zein portugaldar guztiendako izango da hilaren 26ko afaria.

PORTUGALDAR ASKO

Gatzaga inguruan portugaldar asko bizi dira, batzuk autobideko lanak egitera etorrira eta beste batzuk beste lanbide batzuetan: "Gure artean bizi dira, herriko tabernetan ibiltzen dira, eta harremanak sortu dira", azaldu digu ekimenaren bultzatzaile Jon Zuzabeitiak, eta hau gaineratu du: "Afarira etortzeko animatu guran

ibili gara, baina ez dira asko etorriko". Gatzagain jatetxean egingo dute, eta 50en bat lagun elkartuko dira, gehiagorendako tokirik ez dagoelako. Txartelak Gatzagainen bertan eta Labidea dendan daude salgai, baina dagoeneko oso gutxi geratzen dira. Udalaren eta Amaral eta Razkin eraikuntza enpresen laguntza jaso dute antolatzaileek.

VENTOS DE SAUDADE-REN FADOAK

Afalosterako, fadoak abesten dituen taldea ekarriko dute. Soraluzeko Ventos de Saudade lauokoteak doinu triste eta dotoreekin girotuko die solasaldia, eta bat baino gehiago oroitu da jaioterriarekin. Talde horrek, gainera, jasotako dirua Guatemalako proiektu bati laguntzeko erabiliko du.

> DESJABETZEAK

### Lurrak erosteko 14.000 euro bideratu dituzte aurrekontuan

Bigarren faseko azpiegitura lanek aurrera egiteko, hainbat desjabetze egin behar dituzte herrian. Horixe onartu zuen udalbatzak hilaren 10ean egindako osoko bilkuran. Gainera, lur horiek erosteko 14.000 euro aurreikusi ditu 2008ko udal aurrekontuko inbertsioen atalean.

Ur saneamendu hodiak aldatu eta gasa sartzeko lanak martxoarekin batera hasi zituzten Gatzagan. San Migel plaza inguruan eta Pilar kalearen bukaeran dabilta langileak, eta hain zuzen Pilar kale bukaeran zegoen garaje bat bota behar izan zuten lanek aurrera egiteko, errepide alboan. Jabearekin adostua zeukan txabola eraitea Udalak.

> URA

### Gaztainuzketako arazoa Aldundiaren esku utzi du Udalak

Gaztainuzketako mendi etxetan arazoak izan dituzte urarekin azken urtean. 2006ko Gabonetan lehortu egin zen Lapikozuluetako iturburua, eta ur barik geratu ziren. Autobideko lanen erruz lehortu zelakoan, Aldundiak beregain hartu zituen iturburu berritik -Marotobaso- ura ekartzeko lanak.

Arazoa, baina, ez zen konponduta geratu, ur gutxi iristen zaielako oraindik Gaztainuzketara, batez ere, uda sasoiari. Udalak gura du Aldundiak beregain hartzea kontua, eta egin beharreko lan guztiak ordaintzea. Hala ere azaldu zuen Eusebio Villar alkateak osoko bilkuran, eta Aldundiarekin berbetan jarraituko dute.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

MENDIKO ESKIA &gt; 'GLAZIARRETAKO PATRUILA' LASTERKETA

# Isa Casado: "Proba gogorra izango da, ordu asko dira eta, gainera, gauez"

Gaur gauean (22:00) hasiko dute Suitzan 'Glaziarretako Patruila' mendiko eskiko proba ezaguna; emakumezotan talde euskaldun bakarra izango da, ibarreko Isa Casadok, Leire Ezpeletak eta Loreti Elortzak osatuko dutena

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Europar egiten den mendiko eskiko proba ikusgarrienetako baten izango dira asteburuan hainbat debagoiendar, Suitzan egiten duten *Glaziarretako Patruila* proban, hain zuzen. Parte-hartze euskaldunari dagokionez, aipatzekoa da emakumezko talde bakarra izango dela –lasterketa hiruko taldetan egiten da–, eta gainera, Debagoienekoa. Hala, Arrasateko Isa Casadok eta Leire Ezpeletak eta Oñatiko Loreti Elortzak osatuko dute hirukotea.

*Glaziarretako Patruila* egun batean egiten den mendiko eskiko proba luzeena da; 53 kilometro ditu, Zermatt (1.616 metro) eta Verbier (1.520 metro) herriak banatzen dituztenak. Lasterketa gauez hasiko dute –ibarreko neskek 22:00etan dute irteera ordua–, eta lasterketan zehar 3.900 metro inguru igoko dituzte, eta beste 4.000 metro jaitsi. Hala, ibilaldian hainbat glaziar zeharkatuko dituzte, eta baita mendi-lepoak gainditu ere, besteak beste Tete Blanche (3.650 metro) eta Rosa-Blanche (3.160 metro).

Kilometro horietan guztietan eskiatzaileek ez dituzte zona oso teknikoak gainditu behar izango, alde horretatik badira proba zorrotzagoak: "Hala ere, Chamonix-etik Zermatt-erako zatia eginda daukat, eta ez pentsa... Dena dela, uste dut zati teknikoren baten argiak jartzen dituztela".

*Glaziarretako Patruila*-ren ezaugarria, baina, iraupen luze-ko proba dela da, gogorra: "16-17 orduren bueltan ibiliko gara uste dut, eta hori izango da gogorrena, denbora tarte horretan ez dakigulako gorputzak zelan erantzungo duen. Neguan 6-7 orduko saioak egin ditut entrenatzen, eta oraindik beste 10 ordu egin beharko ditugula pentsatzeak...",

**'Glaziarretako Patruila' 53 kilometro dituen iraupen luze-ko proba da; 2.500 eskiatzaile inguruk hartuko dute esku Suitzako militarrek antolatzen duten lasterketan**

**Lasterketa gauez egitearen arrazoia II. Mundu Gerratik dator: orduan, Suitzako brigada militar batek mendiko mugak zaintzeko ardura hartu zuen, gauez**

adierazi du aste barruan Isa Casadok: "Saltsa ederrean sartu gara, eta barregarriena da gu hirurok animatu gintuen laguna –Oihana Mendoza zarauztarra– azkenean ez datorrela probara.

LOTUTA JOATEA, ZAILENA

Ibarreko hiru neskek ez dira neguan eurek gurako luketen beste entrenatu; batera ez, behintzat. Nor bere kontura ibili da, eta joan den zapatuan elkartu ziren lehenengoz batera entrenatzeko: "Leire eta Loreti ibilita daude elkarrekin, eta Leirek eta biok Pierra Menta ere egin izan dugu; hortaz, bada zerbait. Baina lotuta joan behar izate horrek asko zailtzen du dena, batez ere erdian joan behar duenarendako. Koordinazioa behar da, eta horrekin batera, gauez eskiatzea ere berria da guretako. Leire ibilita dago Candanchu inguruan gauez eskiatzen, baina hark esanda, ez zen erabateko iluntasuna. Ni ez naiz sekula ibili, baina hasierako taldean irtengo gara, eta jendeak aurreratu egingo gaituenez, besteei jarraitzen ahaleginduko gara".

EGURALDI TXARRAREN BELDUR

Proba apirillean izanda, azken edizioetan eguraldi ona izan dute, baina badirudi oraingo astebururako bestelako egoera aurkituko dutela: "Iragarpenen arabera ez da giro izango, elurra ere botako du-eta. Oso txarra egiten badu, antolatzaileek aukera dute lasterketa 24 orduz atzeratzeko. Horrela, egubakoitzean beharrean zapatu gauean hasiko genuke proba". Horrek itzulerako bidaia atzeratuko luke, "baina astelehen gauean lana daukat!".

Dena dela, asteburuan lasterketa horretan izango da Iban Letamendi oñatiarra ere, eta hark adierazitakoaren arabera, badi-



Leire Ezpeleta, Isa Casado eta Loreti Elortza, joan den zapatuan Valdezcarayn egindako

rudi ez duela horren txarra egingo: "Ni ere iragarpeni begira egon naiz, baina Suitzan lanean dabilen lagun baten esanetan, ez omen du horren txarra egingo; hori diote azken orduko iragarpenek, behintzat".

MOTXILA ONDO BETE BEHAR

Matterhorn (Cervino) mendi mitikoa testigu izango den lasterketak badu beste zailtasun bat, lasterkariak soinean eraman behar dutela proban behar dutena: "53 kilometro horietan edatekoa

KONTUAN HARTZEKO

## Iban Letamendi, Aitor Otxoa eta Fernando Monasterio ere lasterketan izango dira

Debagoieneko emakumeekin batera, Oñatiko Iban Letamendi eta Aitor Otxoa ere Suitzan izango dira, eta Iruñeko Fernando Monasteriorekin osatuko dute taldea. Horiekin batera, Suitzan ikasten dabilen Gorka Galdos oñatiarrak ere parte hartuko du *Glaziarretako Patruila*-n, baina hango lagunekin osatuko du taldea.

"Gauzak behar den moduan joaten badira, gure aurreikuspena da 10 orduan lantsaioa amaitzea. Baina horrelako proba batean ehunka arazo egon daitezke; hortaz...", adierazi du Letamendik. Casadoren moduan, Letamendik ere ez du inoiz gauez eskiatu: "Indar handiko linternak eramango ditugu gurekin, eta, Aitorrek esandakoaren arabera, mendian 05:00etarako argitzen hasten da. Horrenbestez, ez dut uste horrekin aparteko arazorik izango dugunik. Ikusteko dagoena da zelako elurra egongo den. Elur onak asko errazten du egin beharreko lana, baina izotza badago... egun argiz txarto egoten bada, pentsa gauez".

Horrekin batera, Letamendik baieztatu du *Glaziarretako Patruila*-n ez dela derrigorrezkoa lasterketa osoa lotuta egitea: "Mezzalama izeneko lasterketan, esaterako, proba osoa lotuta egiten da, baina hemen ez".



Iban Letamendi, aurtengo Pierra Mentan.

ARKAITZ IRURETA





entrenamendu saioan; birritan igo ziren San Lorentzora.

ISA CASADO

MENDIKO LASTERKETAK > IV. ALOÑAKO IGOERA

# Inoizko Aloñako igoera jendetsuena, domekan

Korrikalarien parte-hartzeari dagokionez, urtetik urtera Aloñako igoerak errekorra hausten du; 300 lagunek eman dute izena

XABIER URTZELAI > OÑATI

Domekan egingo dute IV. Aloñako igoera, eta parte-hartzeari dagokionez inoizko jendetsuena izango da. Hala, domekan 300 lagun inguru izango dira irteera puntuan (Foruen plaza, 10:30), lasterketak dituen 15,5 kilometroei aurre egiteko gertu.

Aloñako igoeraren laugarren edizioa izango da domekako, eta antolatzaileak ere harrituta geratu dira parte-hartze kopuruarekin: "Mendiko lasterketak geroago eta herrikoioagoak dira, azken urte hauetan jende asko dabil horrelako probetan korritzen eta geroago eta lasterketa gehiago antolatzen dituzte. Egutegia hitzorduz beteta dago; kirol gogorra izango da, baina jendea batetik bestera ibiltzen da, astero, lasterketetan esku hartzen", adierazi du Santi Mendiolak. "Gainera, dome-

kan puntako korrikalariak izango dira Oñatin. Nesketan, besteak beste, joan den astean Beraiko lasterketan nagusitu zen Alizia Olazabal izango da, eta baita Aloñan bigarren sailkatzea zer den badakien Nerea Milibia".

ZINCA EZ DA EGONGO

Akaso, hori izango da puntako korrikalarien artean huts egingo duen korrikalari nabarmenena, errumaniarra ezaguna da eta Oñatin: "Hala ere, Fernando Etxegarai, Joxe Felipe Larrazabal, Asier Urdanpilleta... lasterkari onak etorriko dira".

Antolatzaileak, baina, eguraldiarekin daude arduratuta: "Iragarpenek diote euria botako duela, eta kandelak ipini, mojei arrautzak eraman... zerbait egin beharko dugu euririk egin ez dezan". Izan ere, egural-

di txarra egiten badu antolatzaileek ezer gutxi egin ahal izango dute: "Akaso ibilbidean aldaketa txikiren bat edo beste egin ahal izango dugu, baina beste leku batzuetan ere txarra dagoenean berdin-berdin egiten dute proba. Ondo dakigu eguraldi txarrarekin Aloñatik korrika jaiste arriskutsua izan daitekeela, leku askotan oso labainkor egoten delako. Hor, korrikalariak jarri beharko dute neurria".

ERREKORRA GAINDITZEA, GAITZA

Ohiko sariekin batera –lehenengoak 300 euro, trofeoa eta bi lagunendako afaria eskuratuko du–, Aloñako igoerako errekorra ontzen duenak beste sari bat izango du, 100 euro. Baina, domekan korrikalariak nekez onduko dute errekorra (1.13.23), izan ere, errekor hori Ionut Zincarena da, eguraldi apartarekin lortutakoa. Eta, domekan Aloñako maldek ez dute horrelakorik onartuko: "Dakitenek diote irabazlea ordu eta hoge minutu-ten bueltan ibiliko dela".

emango duten hiru postu baino ez daude, jatekoa norberak eraman behar du eta baita gainontzeko materiala ere: granpoi eta pioletak, aldatzeko arropak, pala, arba, soka... Konturatu orduko pisua hartuko du aldean eraman beharreko motxilak".

ZERGATIK GAUEZ?

Glaziarretako Patruila Suitzako militarrek antolatzen duten proba da. Eta, lasterketa gauze egitearen arrazoia II. Mundu Gerratik dator. Orduan, Suitzako brigada militar batek mendiko mugak zaintzeko ardura hartu zuen, etsaiak mendi artetik muga gainditu eta ezustekorik eman ez zezan. Hala, zeregin hori beteko zuten militarrek aukeratzeko ondorengo proba egiten zuten, Zermatt-etik Verbier-era eskia-tzen joatea, alegia. Militarrek hiruko taldeak osatzen zituzten, eta egun batean egiten zuten zeharkaldia.

Ibilbide horrek 1943an hartu zuen lehenengoz lasterketa izatera. Orduan hamabi ordu behar izan zituzten zeharkaldia egiteko, iparrorratz barik. Urte haietan militarrek bakarrik egiten

zuten proba hori, baina 1949an antolatzeari utzi zioten, istripu batean hildakoak izan zirelako.

Hogeita hamar urte baino gehiago igarota, 1984an berriro ere lasterketa antolatzen hasi ziren. Probak, baina, hainbat aldaketa izan zituen, eta nabarmenena militarrez gain zibilak ere onartu zituztela da –gaur egun oraindik militarren eta zibilen sailkapena ezberdina da–.

SUITZAZ OSAK JARRAITZEN DU

Azken 24 urteotan Glaziarretako Patruila probak sekulako oihartzuna hartu du –[www.pdg.ch](http://www.pdg.ch)–, eta Suitzan gehien jarraitutako kirol hitzorduetako bat bilakatu da. Egia esateko, hango militarrek egiten duten lanagatik izango ez balitz, zailtasunak izango lituzkete horrenbesteko aurrekontua duen proba antolatzeko –2.500 eskiatzaile inguru batuko dira erronka horretan–.

Azken urteotara arte lasterketak ez du inongo babeslerik izan, baina azken ediziotan marka komertzialak hasi dira animatzen; tartean, aitzo militar ezagunak eta erlogu suitzarrak egiten dituen Wenger etxea.



URTIAGAINEN Korrikalariak lasterketako lehenengo zatian, Urtiagaineko aldapari aurre egiten, 2006an.

XABIER URTZELAI



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 51 57 57  
20100 LEZO

FUTBOLA &gt; PREFERENTEA

# Borrokan jarraitzen duen Berio, Mojategin

Mondrak liderra bost puntura duen Berio hartuko du bihar Mojategin (16:30); Aretxabaleta eta Aloñak etxetik kanpora jokatuko dute, biek ala biek larri dauden taldeen kontra

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Mondrak (42) oraindik Hirugarren Mailara igotzeko aukera erabat baztertu gura ez duen Berio-ren (52) bisita izango du bihar Mojategin. Donostiarrak laugarren dira sailkapenean, bost puntura daukate Real Union (57) eta joan den astean Trintxerperen (52) kontra etxean bertan jasotako kolpea (2-3) gainditzera etorriko dira Arrasatera.

Mondra, berriz, ez dago denboraldiko une gozoenean. Bazirudien liga amaieran aurreko bost taldeen artean egon zitekeela, baina Gordobilen mutilek hilabete daramate partidurik irabazi barik –ligan berdinketa gehien egin dituen taldea da, zenbat puntu joan diren hor...–, eta aurreko taldetxo horretatik poliki-poliki atzean geratu dira. Ikusteko dagoena da aurrealdean jarraitzen duen Berioek ze maila duen.



EKAIN GARIN jaurtiketa egiteko gertu, Eibartarrak taldearen kontra.

GOIENKARIA

## LARRI DABILTZANEN KONTRA

Aretxabaleta (47) eta Aloña Mendik (32) gauza bat izango dute asteburuan komunean, aurrean izango dituzten kontrarioak ez daukela bromatarako. Arenatzaren mutilek Zumaiakoren (29) kontra jokatuko dute bihar, zapatua (16:30). Kostaldeko taldea 14. lekuan dago sailkapenean, eta bi puntura baino ez dago Anaitasuna,

jaitsiera postuetan –motibatzeko ez dago egoera horretan egoitea modukorik–.

Aloñak arnasa hartu du joan den asteko hiru puntuekin, baina bizpahiru garaipen behar dituzte lasai lo egiteko. Hain zuzen ere, Anaitasunaren zelaian jokatuko dute bihar (16:30), orain momentuan zulo beltzean daudenen etxean.



GOIENKARIA

## Arrasateko eskalatzailak aurreko postuetan Boulder Ligan

Joan den astean egin zuten Gasteizen Boulder Ligako azken jardunaldia, eta 18 urtez azpikoen kategorian Arrasateko eskalatzailak berebiziko protagonismoa izan zuten. Gizonezkoetan aipatzeko lana Viejo anaiek egindakoa. Josurendako izan da Ligako lehenengo postua, eta hirugarren sailkatu da haren anaia Iñaki. Emakumezkoetan, Miriam Mulasek irabazi zuen azken saioan, eta sailkapen orokorrean berdinduta geratu zen ordura arte aurrean ibili zen Maialen Martinez gasteiztarrekin. Baina, Gasteizkoarendako izan zen Liga, txapelketan zehar garaipen gehiago zituelako. Nahia Bizcaino arrasatearrak ere lan txukuna egin zuen, hirugarren sailkatuta.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**  
Real-Gimnastic de Tarrago.  
Domeka. 18:00. Anoeta.  
Eibar-Castellon  
Domeka. 18:00. Ipurua.

**Kadeteen euskal liga**  
Aretxabaleta-Sestao River  
Zapatua. 12:00. Ibarra.

**Preferente maila**  
Anaitasuna-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:30. Txerloia.  
Mondra-Berio  
Zapatua. 16:30. Mojategi.  
Zumaiako-Aretxabaleta  
Zapatua. 16:30. Zumaiako.

**Lehen erregionala**  
Amara Berri-Bergara  
Zapatua. 17:30. Martutene.  
Antzuola-Elgoibar  
Zapatua. 16:30. Estala.

**Bigarren erregionala. Igoera**  
Aretxabaleta-Martutene  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
BTLA-Amaroz  
Zapatua. 15:30. Ipintza.  
Getaria-Mondra  
Zapatua. 17:00. Orrio.

**Bigarren erregionala. Kopa**  
Urki-Elgeta  
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Ohozeiko mailako gazteak, igoera fasea**  
Aretxabaleta-Anaitasuna  
Zapatua. 16:00. Ibarra.  
Bergara-Hondarribia  
Zapatua. 17:30. Agorrosin.

**Ohozeiko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera**  
Elgoibar-Aloña Mendi  
Domeka. 17:30. Mintxeta.  
Mondra-Tolosa  
Zapatua. 18:30. Mojategi.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**  
Aretxab. Arizmen-San Martz.  
Zapatua. 18:30. Ibarra.

**Lehen mailako gazteak, Kopa**  
Segura-Bergara  
Domeka. 16:30. Alustiza.

**Ohozeiko mailako kadeteak, igoera fasea**  
Real Union-Bergara  
Zapatua. 11:45. Gal.  
Aloña Mendi-Ordizia  
Gaur. 18:00. Azkoagain.

**Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea**  
Anaitasuna-Arrasate  
Domeka. 11:00. Txerloia.  
Eibartarrak-Aretxabaleta B  
Zapatua. 19:30. Unbe.

**Kadeteak, Kopa**  
Bergara B-Arizmendi  
Domeka. 12:00. Ipintza.

**Kadete Txiki. Kopa**  
Arrasate-Touring  
Zapatua. 11:00. Mojategi.

**Ohozeiko mailako infantilak, txapelkunak**  
Lagun Onak-Bergara  
Domeka. 11:00. Garmendipe.  
Kostkas Miren-Aretxab. Ariz

Domeka. 12:00. Matigoxot.

**Ohozeiko mailako infantilak, kopa eta jeitsi.**  
Real Union-Arrasate  
Zapatua. 13:30. Gal.

**Lehen mailako infantilak, igoera fasea**  
Trintxerpe-Aloña Mendi  
Zapatua. 11:00. Trintxerpe.

**Infantil txiki kopa**  
Aretxab. Arizm.-Arrasate  
Domeka. 11:00. Ibarra.

**Emakumezkoen igoera**  
BTLA-Intxausti  
Zapatua. 19:30. Ipintza.

**Emakumezkoen kopa**  
Bergara-Arizmendi  
Domeka. 17:30. Ipintza.  
Arizmendi-Mutriku  
Zapatua. 15:30. Almen.  
Urola-Mondra  
Zapatua. 18:00. Argixao.

**Emakumezkoen F8 Kadet.**  
Zestoa-Bergara KF-8  
Domeka. 11:00. Iraeta.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, txapelkunak**  
Arizmendi-Zarautz  
Zapatua. 11:45. Almen.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Txapelketa**  
Inter UPV-Eskoriatza  
Zapatua. 18:00. Donostia.

**Lehenengo maila**  
Denak Pizak-Aloña Mendi  
Zapatua. 17:00. Tolosa.

**Hirugarren maila**  
UDA Izotz-Tecnun B  
Zapatua. 17:00. Aretxabaleta.

**Gazteak**  
Aloña Mendi-Eskolapioak  
Domeka. 11:45. Zubikoa.

### SASKIBALOA

**Lehenengo maila, Igoera**  
MU-Zornotza  
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako seniorrak**  
Ordizia-Candy Bergara  
Gaur. 20:00. Majori Kirol.  
MU-Santo Tomas Lizeoa  
Zapatua. 16:00. Musakola.  
Ainhoa Taberna-Aloña M.  
Zapatua. 16:00. Lasarte.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**  
Eskoriatza-Añorga  
Zapatua. 18:00. Intxausti.

**Gazte maila, gizonezkoak**  
MU-Ordizia  
Domeka. 12:00. Musakola.

**kadete maila, gizonezkoak**  
Aloña Mendi-Konde Pan.  
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

MU C-STL Lizardi  
Zapatua. 12:00. Musakola.  
MU A-Easo Loyola  
Zapatua. 16:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak**  
Arizmendi Esk.-Aloña Mendi  
Zapatua. 11:00. Intxausti.

Eskoriatza-Zarautz  
Zapatua. 16:00. Intxausti.

**Gipuzkoako ligako infantilak, gizonezkoak**  
Arizmendi Ikastola-Easo  
Zapatua. 10:30. Musakola.  
Zubiri Manteo-Aloña Mendi  
Zapatua. 12:15. Donostia.  
Leintz Esk. A-Axular Lizeoa  
Zapatua. 10:30. Musakola.  
Gamon BHI-Bergara  
Zapatua. 12:30. Erreterria.

**Gipuzkoako ligako infantilak, emakumezkoak**  
BKL B-LEK A  
Zapatua. 19:30. Beasain.  
LEK E-Premank  
Zapatua. 12:00. Musakola.  
LEK B-San Luis Easo  
Zapatua. 12:00. Musakola.  
Andraitz-Bergara  
Zapatua. 11:00. Legazpi.  
San Benito-LEK D  
Zapatua. 11:00. Lazkao.

### ESKUBALOA

**Gipuzkoako Kopa, senior**  
Ford Mugarri-Bergara  
Gaur. 20:00. Musakola.

**Gipuzkoako kadeteak, giz.**  
Verkol Aloña-Bera Bera  
Domeka. 11:45. Zubikoa.

**Gipuzkoako Kopa**  
Bergara-Aloña Mendi  
Zapatua. 20:00. Labegarai.

**Gipuzkoako Kopa, gazteak gizonezkoak**  
Zarautz-Arrasate  
Domeka. 10:15. Zarautz.

**Gipuzkoako Kopa, gazteak emakumezkoak**  
Verkol Aloña-Usurbil  
Zapatua. 17:30. Zubikoa.  
Ereintza Ag.-Verkol Aloña  
Domeka. 10:15. Pasaia Don.

**Gipuzkoako Kopa, kadeteak gizonezkoak**  
Bergara-Leizaran  
Domeka. 12:00. Labegarai.  
Berezo Aloña-Irongo Gaz.  
Zapatua. 17:30. Zubikoa...

**Gipuzkoako Kopa, kadeteak emak.**  
Verkol Aloña-Usurbil  
Zapatua. 16:00. Zubikoa.  
Bergara-Elgoibar  
Zapatua. 18:00. Labegarai.  
Ereintza-Verkol Aloña  
Domeka. 10:15. Domeka.  
Usurbil-Bergara  
Domeka. 10:45. Usurbil.

**Gipuzkoako Kopa, kadeteak emak.**  
Verkol Aloña-Usurbil  
Zapatua. 16:00. Zubikoa.  
Bergara-Elgoibar  
Zapatua. 18:00. Labegarai.  
Ereintza-Verkol Aloña  
Domeka. 10:15. Domeka.  
Usurbil-Bergara  
Domeka. 10:45. Usurbil.

**MENDIKO LASTERK.**  
**Aloñako IV. Igoera**  
Domeka. 10:30. Oñatiko  
Foruen plaza..

### TXIRRINDULARITZA

**Alebin eta infantil mailako lasterketa**  
Zapatua. 16:30.  
Aretxabaleta Basabe  
poligonoa.



Alebin eta infantil lasterketa, bihar, 16:30ean

Dorletako Amak antolatuta txirrindulari gaztetxoek lasterketa izango dute bihar Aretxabaleta Basabe poligonoan hasita.



> **GAINSBOURG**  
artistaren kantuak euskaraz, gaur Elgetako Espaloia antzokian > 45



> **AHOTSAK.COM**  
Euskal iztun nagusien ehunka ahots webgune batean > 51

> **OLATZ MANUEL EZENARRO**  
Arizmendi ikastolan heziketa fisikoa irakasten du. Eskubaloian ere jokatzen du. Bergararra da, 26 urte ditu. Bidaiatzea oso gustuko du > 50



## HUHEZI-KO X. LITERATURA ASTEA

# PlayStationaren belaunaldiaren ostean, bada poesiarik?

Poesia, zer da poesia?  
Zu zara poesia?  
Etorkizunez kargaturiko arma bat da.  
*Gabriel Zelaia*

Limonada prestatzea bezain ekintza humanoa  
*Joseba Sarrionandia*

### JARDUNALDIAK

'PlayStationaren belaunaldia? XXI. mendeko poesia eta gazteak' izenburupean aurkeztu dira

### EGITARAU ABERATSA

Plazaratzen den dilema argitzeko saioak izango dira Huhezin, datorren astelehenetik egubakoitzera

**JOKIN BEREZIARTUA > ESKORIATZA**  
Oraingo martitzenean aurkeztu dira aurtengo Literatura Astearen gaia, egitaraua eta kartela. Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatean eskainitako prentsaurreko baten bidez, Nekane Arratibel Huheziko dekanok, Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkateak eta Arantza Oza-

eta Huheziko irakasle eta jardunaldien antolatzaileak eman zuten kultura ekitaldiaren berri.

Unibertsitatea eratu zenetik antolatu dira jardunaldiok, eta hamar urte bete dituzte dagoeneko. Hamar urte eta hamaika ekimen.

(44. orrialdean jarraitzen du)

## PlayStationaren belaunaldiaren ostean, bada poesiarik?

(43. orrialdetik dator)

Urtean urteko gaiak askotarikoak bezain interesgarriak izan dira. Hala, bidaia, umorea, zazpi bekatu nagusiak, itzulpengintza, erotismoa, filosofia eta beste gai batzuk jorratu dituzte, betiere literaturari lotuz.

### GOZATU, ETA GOZARAZI

Hamarkada oso bat, beraz, literaturaz gozatzen. Gozatzen, eta gozarazten. Emanaldiak unibertsitatean direnez, Huheziko ikasleak dira horietan probetxu handien ateratzen dietenak. Edoze lan ere, nahi duenarentzat zabalik izango dira fakultateko areto nagusiko ateak. Beraz, sarrera doakoa eta irekia da.

Egungo poesiaren egoera aztertzeke helburua dute aurten go literaturaz jardunaldiek. Baina, zergatik poesia? Arantza Ozaeta jardunaldien antolatzaileak esan bezala, "gorputzari kapritxo bat emateko" aukeratu dute poesia. Poesiak askorako ematen du, hau da, hamaika ikuspuntu ezberdinetatik azter daiteke. Horregatik, XXI. mendeko euskal gazteek poesiarekin harremanik baduten —eta izateko kasuan, harreman hori nolakoa den— jakiten saiatuko dira.

### BESTE INFLEXIO-PUNTU BAT

Poesia eta gazteak egun kontrajarriak kontsidera daitezkeen berbak dira. Baieztapen ezkorra, agian, baina badago historian zehar poeziaren mintzatzean ezkorragoa izan denik.

Theodor W. Adorno filosofo ospetsuak, esaterako, juduen genozidioaren ostean poesia betiko hilko zela uste zuen. Frankfurtoko Eskolako kide esanguratsuenetarikoak pentsamenduaren alor ezberdinetara egin zuen ekarpena ukazina den arren, ez zuen poesiaren etorkizunari buruzko baieztapenean asmatu. Egoera gordinean ere bizirik irautea lortu zuen



MUSIKA Gosereren (goian) kontzertua eta Anariaren berbaldi eta gitarra saioa izango dira Huhezin.

GOIENKARIA

### JARDUNALDIETAN ZER

## Artista gonbidatuek planteatutako dilema argitzen saiatuko dira

Astelehenean egubakoitzera iraugo duten literatura jardunaldietarako Anjel Erro, Anari Alberdi, Beñat Sarasola eta Gose musika taldea gonbidatu dituzte, eta azken egunean fakultateko ikasleen eguna izango da. Erro idazle nafarrak, *Poematrix (reloued)* bataiatu duen saioan, Literatura Astean planteatzen den galderari zuzenean eutsiko dio, bideojokoen belaunaldiaren ondoren poesiari idazten den erantzun nahian. Anari abeslari eta konpositore

azkoitiarrak, bestalde, ez du bere musika taldea ekarriko. Bai, ordea, bere gitarra. Kantuaren eta poemaren hesiez arituko da *Kantuaren poHesia* saioan. Eguaztenean, Sarasolaren txanda izango da. Idazle donostiarrak poesiaren indar iraultzailea berreskuratu behar dela defendatuko du bere saioan. Eguenean, berriz, Gose izango da Huheziko areto nagusian. Azkenik, fakultateko ikasleek *Poesia eta zubiak* deituriko emanaldi berezia egingo dute.

poesiak, literaturan gutxietsia izan den generoak.

Poesiaren bizi iraupena arriskuan jarri duten inflexio-puntuen harira, Huheziko literatura jardunaldiak beste inflexio puntu baten aurrean ote gauden planteatzera datoz: "PlayStationaren langa pasa ondoren, betiko iraugo ote du poesiak?"

Hau da, e-posta, SMS eta telefono mugikorraren bitartez komunikatzen diren eta bideojokoei hezitako gazteek poesia irakurri edota idazten dute? Posible da PlayStationaren belaunaldiaren osteko poesia?

Galdera horri erantzuteko idazle eta artista gazteak ekarriko dituzte Huhezira. 30 urtetik beherakoak dira guztiak, baina horrek ez du esan nahi poesiaren munduan hasiberriak direnik. Poesia oso berezia den generoa da eta Ozaetak adierazi bezala, "genero gutxietsia izan arren oso fruitu aberatsak ematen ditu".

Adinak ez dio axola, eta hori egiaztatzeke aukera paregabea izango da jardunaldien azken egunean, ikasleen egunean, alegia. Ikasleak ikasteaz gain, irakasteko eta erakusteko asko dute frogatuko dute.

Arantza Ozaeta > Literatura Asteko antolatzailea

## "Irakurtzeak sortzen digun atsegina helaraztea da xedea"

J. B. > ESKORIATZA

Arantza Ozaetak bihotz-bihotzez maite du literatura eta Literatura Astea antolatzen hamar urte daromatza dagoeneko. Urte hauetan guztietan lan mardula egin du uneanek euskal literaturako idazle esanguratsuenak Huhezira ekarri ahal izateko. Aditza eman digunez, hamargarren edizio honen berezitasuna hautatutako gaia bera da.

Hamarkada osoa daramazu Huheziko Literatura Astea antolatzen. Zerbait berezirik prestatu duzue urteurrena ospatzeko?

Ba, egia esan, formatu aldetik jardunaldiek ez dute aldaketarik izango. Aurtengo berezitasuna aukeratu dugun gaia bera da: poesia eta gazteak. AEBetatik datorren *PlayStation generation* horren ostean poesia idaztea posible den jakin nahi dugu.

Beraz, galdera hori planteatu behar diezue jardunaldietara etorriko diren idazle eta artistei, ezta?

Bai, halaxe da. Artista bakoitzak poesiak bizi duen egoera bere ikuspuntutik azalduko du, eta planteatu zaion galderari erantzuten saiatuko da. Ikasleek ere izango dute aukera euren ekarpenak egiteko.

Ikasleak aipatu dituzu. Zein paper jokatzen dute Huheziko ikasleek Literatura Astean?

Ikasleen Eguna oso egun kuttuna da guretzat. Ikasleen artean oso sortzaileak diren jendea dugu, artista hutsak direnak. Hasiarik Literatura Astea fakultatean sortu den zerbait izan denez, ikasleei irakurtzeak sortzen digun atsegina helaraztea izan da xedea.

Literatura Astea, orduan, ikasleei begira antolatutako ekitaldi sorta moduan definituko zenuke?

Ikasleentzako planteatutako egoitek ez du esan nahi euren soilik zuzenduta dagoenik.

Guk unibertsitatea gizartearekin harremanetan egon behar den kultur gune ireki moduan ikusten dugu. Beraz, gerturatu nahi duen edonorentzat zabalik izango dira areto nagusiko ateak.



MIREN ARREGI

Bota dezagun atzera begirada. Zein izan da, urte hauetan guztietan, Literatura Astearen helburua?

Literatura Astea irakurtzeak ematen digun plazerra transmititzea nahi izan dugu hasiera-hasieratik.

Jakintzarako bidea da literatura. Agian ez da iraultzailea izango, ez du mundua aldatuko. Baina berriak eta guretzako ezezagunak diren munduak ezagutzeko aukera ematen du.

Nola ikusten duzue egungo literaturaren egoera?

Bi korrante daudela esango nuke. Bata, kontsumo azkarrerako zuzendua dagoena, eta bestea, benetakoa dena, barrutik ateratzen dena. Honekin ez dut kontsumo azkarrera bideratuta dagoen literatura txarra denik esan nahi, ezta gutxiago ere. Mota honetako literatura ona izan daiteke kalitatez, baina nik "benetako" literatura dut nahiago.



OMENALDIA Sanchis y Jocano-ko Juankar Landak bultzatu du Gainsbourg-en omenaldi-kontzertua eta haren kantuekin euskaraz egindako diskoa.

JOSU E. BEOBIDE

## Espaloian jardungo duten artistak

### KANTARIAK

Gari  
Mikel Agirre (La Buena Vida)  
Diego Vasallo  
Estanis Elortza (Natural Project)  
Saioa  
Rafa Berrio (Amor a Traicion)  
Txuma Murugarren  
Urko Menaia  
Enrique Mingo  
Santi Gasca (Sanchis y Jocano)  
Giorgio Bassmatti  
Jone Gabarain

### IDAZLEAK

Luisa Etxenike  
Jorge Carretero

### MUSIKARIAK

Juan Zulaika  
Aitor Unanue  
Joserra Senperena  
Javier Sun  
Borja Iglesias

### KOORDINATZAILEA

Juankar Landa

MUSIKA > KONTZERTU-OMENALDIA ESPALIOAN

# Serge Gainsbourg artistaren kantuak euskaraz, gaur Elgetan

Frantziarraren 15 kanturen euskarazko egokitzapenak jaso dituzte 'Gainsbourg gainbegiratz' diskoan

Kantari eta musikari mordoak jardungo dute Elgetan, Azkoitian eta Donostian egingo dituzten emanaldietan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Serge Gainsbourg-en heriotzaren hamabosgarren urteurrenaren harira, 2006an, Juankar Landa kantari donostiarrak Gainsbourg zaleak bildu nahi izan zituen kontzertu-omenaldia prestatzeko. Orduko hartan nahikoa denborarik izan ez bazuten ere, proiektuak aurrera egin du. Apirilean argitaratuko da bakarlarri frantziarraren 15 kanturen egokitzapenak jasotzen dituen *Gainsbourg gainbegiratz* diskoa, eta zuzenean gozatzeko aukera ere izango da.

Aurre-estreinaldia gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloian izango da, 22:30ean. Sarrerak Espaloian bertan izango dira salgai, 13 eta 10 eurotan. Ondorengo saioak Azkoitian eta Donostian egingo dituzte.

Gehienek Serge Gainsbourg pertsonaia dute gogoan: Frantziako emakume ederrenetariko batzuk maiteminduarazi eta *La Marseillaise*-ren reggae bertsioa egin zuen kantu egile polemiko, ikonoklasta eta zirikatzailea. Pintorea, idazlea, argazkilaria, aktorea, zinema zuzendaria, askatasun sexualaren aitzindaria, erretrazile porrokatua, edale ase ezina eta belaunaldi oso baten erreferente estetiko ere izan zen. Baina hori baino askoz gehiago izan

zela erakutsi nahi dute lan eta emanaldi horiek. Izan ere, Frantziako musika irauli zuen estilistik estilora jauzika eta, sarri, bere garaia aurre hartuz. Gainera, letra idazle handia izan zen, hitzen sonoritateari zukua atereaz eta esaldi bakoitzari esanahi bat baino gehiago emanez.

### MUSIKARI TALDE ZABALA

Euskal kantagintzari hain artista eraginkorraren ondarea bere egitea falta zitzaioela eta, Juankar Landak, hutsune hori betetzeko asmoz, pentsatu zuen bazegoela Gainsbourg-en bertsioak euskaraz egiteko aukera. Urte eman-

korra itzulpen, egokitzapen eta grabaketan pasa ostean, hamabost abesti grabatu zituen lagun talde heterogeneo batek. Euskaldunak eta gaztelaniaz abestu ohi dutenak elkarrekin, ibilbide luze-koak gehienak, Euskal Herrian egindako pop-rockaren historikoak, batzuk, eta azken belaunaldiko gazteak, besteak: Gari, Mikel Agirre (La Buena Vida), Diego Vasallo, Estanis Elortza (Natural Project), Saioa, Amaia Intxausti, Rafa Berrio, Txuma Murugarren, Urko Menaia, Enrique Mingo, Santi Gasca (Sanchis y Jocano) noren beste erdia), Giorgio Bassmatti, Jone Gabarain...

Eurekin musikari lanetan hartu dute parte Juan Zulaikak, Aitor Unanuek, David Soriazuk, Iñaki Huartek, Txelik, Agusek, Joserra Senperenak, Borja Iglesiasak eta Javier Sunek. Hitzetan zeresan handia izan dute Luisa Etxeniketik eta Jorge Carreterok.

*Gainsbourg gainbegiratz* lanak 30 urtetik gorako ibilbidean Gainsbourg-ek idatzitako alerik esanguratsuenetarikoak jaso ditu, eta baita berak landutako esparruak ere: Gainsbourg *chansonier*-a, kabareteroa, malenkoniatsua, sofistikatua eta Brigitte Bardot, Jane Birkin edo Catherine Deneuvearekin bikoa osatu zueneko.

Proiektu horretan buru belarri jardun duen Juankar Landak zera dio lanaren gainean: "Gainsbourg-ek berak burua altxatuko balu, bere lanari esker erre, edan eta berba egin dugun guztia ikusirik harro-harro legoke".

## Serge Gainsbourg, zaletasuna etxetik jaso zuen musikaria

Lucien Ginsburg 1928ko apirilaren 2an jaio zen Parisen, Errusiako boltxevikeen iraultzatik ihesi Frantziara iritsitako familia judu batean. Izena frantsestu eta Serge Gainsbourg bihurtu zen. Aita pianojole eta ama abeslari izanik, etxean pianoa eta gitarra jotzen ikasi zuen. Arte Ederretako ikasketak hasi arren, arrakastarik ez eta musikaren bidea hartu zuen. Kasino eta kabaretetan pianoa jotzen jazz deskubritu eta bere kantuak idaztea erabaki zuen. Gero, emakumezko abeslariarentzat idatzitako kantuek eman zioten ospea.

Brigitte Bardot aktorearekin harreman labur baina beroa izan zuen 1967an. *Je t'aime, moi non plus* kantuaren lehen bertsioa grabatu zuten elkarrekin,

baina ez zen argitaratu. Jane Birkin-ekin berriz grabatu eta kantuaren oihartzuna handia izan zen munduan. Hamar urteko harremanak hainbat disko eta filmetako kolaborazioez gain, alaba Charlotte ekarri zuen.

Hainbat filmetako soinu bandak sortzeaz gain, lau disko grabatu zituen 70eko hamarkadan. 1979an, Frantzia aztoratu zuen *La Marseillaise*-ren reggae bertsioarekin, eta hurrengo diskoan ere reggaeari heldu zion. 80ko hamarkadan, funk eta dantza doinu elektronikoetan murgildu zen.

Musikari ez ezik, aktore ere izan zen, eta lau film zuzendu zituen. 1991ko martxoaren 2an hil zen, bihotzekoak jota.



INMOBILIARIA  
Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Fax: 943 76 97 97  
www.inmokrosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**Bergara:**  
• Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.  
• Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.  
• Zubieta 65 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Aranerreka 75 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.  
• Elusu baserna. Berritua.  
• Bidekuruzeta 60 m<sup>2</sup>. Berritua.  
• Ibargarai 74 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• San Juan. Bifamiliara.  
• Zubiatze 67 m<sup>2</sup>. Berritua.  
• Matxiategi 61 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Zabalotegi 60 m<sup>2</sup>. Berritua.  
• Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.  
• Zubieta 75 m<sup>2</sup>. Txokoarekin.  
• Simon Arrieta 80m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
**Antzuola:**  
• Buzinzuri 76 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Buzinzuri 67 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.  
• Antigua 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.  
• Zurrategi plaza 90 m<sup>2</sup>. Terraza.  
**Esportatza:**  
• Baseria. Berritua.



Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**  
• San Lorentzo, eraikuntza berria  
• Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin  
• San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo  
• Ibargarai, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Artekalde, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Koldo Elizalde, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Antekale, 89 m<sup>2</sup>, ondo  
• Zubietza 70 m<sup>2</sup>, ondo  
• Urdangain p., 132 m<sup>2</sup>, berritzeko  
• Irizar p., 89 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Matxiategi, 73m<sup>2</sup>, berritzeko  
• Bidekuruzeta, duplexa, berritua  
• Aranerreka, 80m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Etxebizitza berrien eraikuntza  
Madura, Masterreka eta Zubiaren.  
• Zurradero, 81m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Simon Arrieta, 57m<sup>2</sup>, terrazarekin.  
**SORALUZE**  
• Baltegieta, 83m<sup>2</sup>, berria  
**ANTZUOLA**  
• Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, erdi berritua.  
**ELGETA**  
• San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEA OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. ESKAINZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 90 metro koadroko duplexa salgai Zurrategi plazan. Bi logela eta bi komun (bat leihorekin). Eguzkitsua eta balkoiarekin. Sarrera bi solairuetatik. Garaje itxia. Deitu telefono honetara: 943 76 65 03 edo 656 73 25 99.

**Aramaio.** Berritua dagoen harrizko etxea salgai Errotabarrin. Lorategi eguzkitsua. Leku lasaia eta herritik oso gertu. Sartzeko prest. Deitu telefono honetara: 685 71 35 63.

**Bergara.** San Lorentzo etxebizitza salgai. Deitu telefono honetara: 669 53 97 03.

**Esportatza.** Aukera ederra. 82 metro koadroko etxebizitza. Lau logela, jangela-egongela, berogailua. Oso eguzkitsua. Lehenengo solairua. Prezioa negoziatu daiteke. Deitu telefono honetara: 645 97 45 64 edo 615 70 91 38.

**Oñati.** Bidebarrietan 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, sukalde, egongela, bi komun eta terraza. Garajea eta garajea barne. Deitu telefono honetara: 665 74 98 47.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza errentan ematen da. Hiru logela eta bi komun. Egoera onean. Eguzkitsua. Garajea eta igogailuarekin. Deitu telefono honetara: 628 26 65 77.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arebaleta.** Etxea hartu nahi dugu errentan. Bikote arduratsua gara. Deitu telefono honetara: 669 12 25 63.

**Arrasate.** Urtebeteko umea daukan bikote batek etxea errentan hartuko luke. Deitu telefono honetara: 610 67 12 22.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke. Deitu telefono honetara: 686 99 59 41.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Deitu telefono honetara: 686 99 59 41.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 664 38 49 76.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergaran. Deitu telefono honetara: 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Elgeta.** Etxebizitza errentan hartzeko bila gabiltzan bikotea gara. Deitu telefono honetara: 615 73 79 11.

**Esportatza.** Etxea behar dugu alokairuan. Bikotea gara. Deitu telefono honetara: 618 55 46 63.

**Oñati.** Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Oñatin lanean dabilen neska bat naiz. Deitu telefono honetara: 655 72 27 61.

## 105. ETXEA OSATU

**Aramaio.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 699 28 99 06.

**Arebaleta.** Lanean hasi berri naiz eta bertan edo inguruan bereziki Arrasaten; logela alokatu nahi nuke. Hasiera baten, urtebetarako. Deitu telefono honetara: 653 74 28 83.

**Arrasate.** Gela bat alokatzen da erdialdean, sukalde erabilteko aukerarekin. Abuztuaren bukaera arte bakarrik. Deitu telefono honetara: 630 71 35 83.

**Gasteiz.** Neska bat behar dugu Gorbea kalean etxea osatzeko, maiatzetik aurrera. 300 euro gehi gastuak. Deitu telefono honetara: 652 72 18 87.

## 3/ LOKALAK

## 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara eta Arrasate.** Jardunean dagoen taberna bat alokairuan hartuko nuke. Deitu telefono honetara: 697 20 78 24.

**Bergara.** Taberna bat errentan hartuko nuke. Jantzieta egon behar du. Deitu telefono honetara: 661 06 07 23.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINZAK

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 652 75 79 71.

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com  
edo www.goiena.net-en

## PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.

- LOKALA SALDU/ALOKATU.

- GARAJEA SALDU/ALOKATU.

- MOTORRA SALDU.

**GOIENKARIA + ASTELEHENKO GOIENKARIAN: 17 EURO ASTEBETE (BEZ BARNE).**

**PROFESIALEN IRAGARKIAK (MODULOA).**

**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).**

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).**

OHARRA: BI MODULU BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 402. ESKAERAK

**Arebaleta** edo Arrasaten garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu telefono honetara: 646 50 83 59.

**Arebaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Mari. Deitu telefono honetara: 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. Deitu telefono honetara: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 667 87 99 16.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Roxana. Deitu telefono honetara: 697 20 00 86.

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu atariak eta etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 663 04 53 99.

## ARRASATE

Neska behar dugu estetika lanetarako.  
620 21 04 57

## ARRASATE

**Bergara** edo Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak egun ez gertu zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak daukat. Deitu telefono honetara: 686 99 59 41.

**Bergara** edo Arrasate. Neska gertu ekainean eta uztailean haurrak zaindu eta tabernan lan egiteko. Gizarte Integrazioa ikasten ari naiz. Deitu telefono honetara: 636 01 60 15.

**Bergara.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 606 64 16 09.

**Bergara.** Emakume esperientziaduna gertu pertsona eda detuak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Bergara.** Emakumea garbiketa lanak zein haur edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Deitu telefono honetara: 627 03 16 40.

**Bergara.** Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Martoko kalea 30, 1. ezkerre. Deitu telefono honetara: 669 56 56 87.

**Bergara.** Paperak dituen emakumea haur zein nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. Deitu telefono honetara: 686 99 59 41.

**Debagoiena.** Adinekoak zaintzeko emakumea gertu. Orduka,

## ARRASATE

80m<sup>2</sup> inguruko lokala erosi edo errentan hartuko genuke, bulegotarako.  
943 79 94 21

## ARRASATE

egun osoz edo gaez. Deitu telefono honetara: 678 80 96 01.

**Debagoiena.** Arratsalde edo asteberrietan pertsona nagusiak zaindu edo tabernetan lan egiteko gertu nago. Deitu telefono honetara: 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Ekuadorko emakume arduratsua etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan lo egiteko prest. Paperak ditut. Deitu telefono honetara: 688 68 06 96.

**Debagoiena.** Emakume bat gertu nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak orduka egiteko. 669 68 38 36.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Deitu telefono honetara: 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Debagoiena.** Emakumea etxean lan eta lo egiteko prest. Deitu telefono honetara: 669 33 65 54.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 618 94 19 93.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. Deitu telefono honetara: 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile titulua duen neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, eta garbitasun lanak egiteko. Nagore. 615 76 30 62.

## DEBAGOIENA

Autokarabana berria errentan ematen da.  
943 71 25 30

## DEBAGOIENA

**Debagoiena.** Haur Hezkuntza ikasten ari den neska eskaintzen da arratsalde haurrak zaintzeko. 15:00etatik aurrera lan egiteko prest. Interesatuok Leiregatik galdetu. Deitu telefono honetara: 699 74 98 13.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lan egiteko gertu. Arkaitz. Deitu telefono honetara: 622 81 53 31.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lanetarako prest. Aaron. Deitu telefono honetara: 622 84 08 86.

**Debagoiena.** Lantegian edota makinak garbitzen lan egingo nuke. Baita sukaldari lanetan ere. Esperientziaduna. 656 66 49 75.

**Debagoiena.** Mutil gaztea pertsona nagusiak edo atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Paperak ditu. Deitu telefono honetara: 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Debagoiena.** Neska arduratsua garbiketa lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Neska gertu haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko gogo.

**Irakasle** ikasketak egiten ari naiz. 669 61 97 71.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea edozein lan egiteko.

ko gertu. 696 48 42 50.

**Oñati.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna lanerako gertu. Etxeak, elkarrekin... garbituko nituzke. 635 71 12 88.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko matematikako eskola partikularrek hartu gura ditut. 645 72 25 24.

**Ingeleseko** eskola partikularrek hartuko nituzke Bergaran. 600 08 27 89.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrek ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloa, batxilergoa eta DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrozitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Debagoiena.** Mutila matematikako eskolak emateko gertu. Maila guztiak. Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitatearaino. Baita ere urritasunak dituzten ikasleei. 696 38 10 07.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Renault Traffic** salgai. Bidaitzeko bost plaza eta lotarako lau. Sukalde hornitua, igo daitezkeen sabaia, berogailua eta biratzeko jarlekuak. Dutxa, toloa eta bizikletak eramatekoak. 76.000 km. 2003koa. Deitu telefono honetara: 658 71 08 99 edo 685 72 58 40.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Hiru hektareako zarratua basurdeekin, txakurrei erakusteko. 200 euro. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

**Txakurkumeak.** Golden Retriever txakurkumeak salgai. 300 euro. Deitu telefono honetara: 677 05 39 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Autoan** umeak eramateko segurtasun aukia salgai. Deitu telefono honetara: 656 78 64 64.

**Basalurrea** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72.

**Bizikleta** berria salgai. Erabili gabea. Parrilla eta saskia dauka. 655 74 48 85.

**Carry-Bike** salgai, 4x4 autoetan bizikletak eramateko. Bi bizikletarendako. 50 euro. 679 10 95 23.

**Epiphone SG** gitarra elektriko salgai, maleta gogorarekin, afinagailuarekin eta Marshall amplifikadorearekin. Dena 250 euro. 692 13 48 56.

**Erloja.** Festina markako emakumeentzako urrezko erlojua eta esku-kronometroa salgai. Berriak. Dena 400 euroan. Nere-agatik galdetu. 943 79 68 18.

**Gitarra amplifikadorea** salgai. Hughes & Kettner Vortex Snack. 80 watt RMS. Gutxi erabilia. 665 75 12 32.

**Ileko plantxak** salgai. Gama Ceramic Ion Technology. Egoera onean. 50 eurotan. 645 72 58 41.

**Jaunartzea** egiteko marradun alkandora eta jaka urdin iluna salgai. 656 78 64 64.

**Karro-denda** salgai, sukalde-denda independentearekin. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako. Osagarri ugari. Egoera onean, beti garajeon gordeta. Prezioa: 1.600 euro. 615 72 47 43.

**Marshall 800** amplifikadorea salgai. 100 watt. Balbulekin. 800 euro. Deitu 630 60 90 53 telefono zenbakira.

**Olympus E-410** argazki kamera digitala saltzen dut. Zuiko ED 14-42 milimetrotako eta Zuiko 40-150 milimetrotako objektibekin. Bateria eta kargadoreak. USB eta bideo kableak. Olympus Master 2 Software CD-ROMa. Erabili gabe dago. 650 euro. Deitu 660 80 09 71 zenbakira.

**PSP Slim** bideojoko berria salgai. 8 GB-ko memoria eta eramateko poltsarekin. 250 euro. 665 74 91 28.

**PlayStation 1** salgai. Erabili gabea. Bi aginte tresnarekin. Deitu telefono honetara: 945 44 52 96.

**Teleskopioa** daukat salgai. Astrolon markakoa. Deitu telefono honetara: 402 potentzia. 656 78 64 64.

**Txakurkumeak.** Ispanier arrazako txakurkumeak salgai. Deitu telefono honetara: 664 46 06 45.

**Zigiluak.** 36 urtean bildutako Espainiako posta-zigiluak salgai. 1965etik 2000ra, biak barne. Denak berriak dira. Deitu telefono honetara: 657 10 90 78.



**Pedro Ugartetxe** eta **Ines Ezpeleta** arrasatearrak Bedoñako Santa Eulalia elizan ezkondu ziren orain dela 25 urte. Zilarrezko ezteiak apirilaren 19an ospatuko dituzte familiakoekin. Zorionak Naiara eta Iratxe alaben eta Juan Mari, Josune eta Jonen partetik.



**Zori Pildain** eta **Javi Garcia** zapatuan, apirilaren 19an, ezkondu dira Arrasateko udaletxean. Ezkon bidaian Ekuadorrera eta Brasilerara joango dira. Zorionak, muxu handi bana eta ondo-ondo pasa, lagunen partetik.



Zapatuan beteko dira 50 urte **Mertxe Zirdia** eta **Migel Moia** ezkondu zirela. Urrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan zorionak eta muxu potolo-potolo bana txantxikuei seme-alaba Migelito, Mari, Mila, Aran, Diego eta familiakoekin partetik.

## hildakoak

- **Isabel Hernandez Mate.** Oñatin, apirilaren 11n. 81 urte.
- **Manuel Gomez Gonzalez.** Arrasaten, apirilaren 11n. 76 urte.
- **Esther Del Aguila Astoreka.** Bergaran, apirilaren 13an. 80 urte.
- **Dolores Altuna Garitano.** Bergaran, apirilaren 14an. 94 urte.
- **Jose Angel Kortazar Barrenetxea.** Arrasaten, apirilaren 14an. 59 urte.
- **Juan Jausoro Galdos.** Arrasaten, apirilaren 15ean. 88 urte.
- **Encarna Mendez Sanchez.** Aretxabaletan, apirilaren 15ean. 38 urte.
- **Martin Kortabarria Azkarate-Askasua.** Bergaran, apirilaren 15ean. 83 urte.
- **Josefa Iriondo Antoñana.** Aramaion, apirilaren 17an. 94 urte.

ESKER ONA

## Esther Del Aguila Astoreka

Basarteren alarguna

Bergaran hil zen 2008ko apirilaren 15an, 80 urterekin

Samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko apirilaren 18an.

1. URTEURRENA

## Ramon Guridi Irazola

Lehen urteurreneko meza  
domekan, apirilak 20, 12:30ean  
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Roman Igarza Lasa

Lehen urteurreneko meza  
domekan, apirilak 20, 12:50etan  
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Patri Larrañaga Larrañaga

Lehen urteurreneko meza  
domekan, apirilak 20, 12:50ean  
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

3. URTEURRENA

## Ane Telleria Iñurritegi

22 urte gure artian  
ta azken 5 honeitan be  
gure burutan darabil  
zure barria.  
Geroarte pinpilinpauxa.



Zure kuadrillia.  
Oñatin, 2008ko apirilaren 18an

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:  
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

### Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

### Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

### Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

### Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

### Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

### Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

### Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

### Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, 120 euro.

### ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 90 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, 110 euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)



Babeslea:



OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak  
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara  
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73  
Faxa: 943 76 94 76  
maribi@oroilore.com




Bidaia ezin hobea  
Bidaia ezin hobea

**OROILORE**  
Funeraria-Tanatorio  
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

**bila-bila 7**




**hitz gezidunak**

	Gorputz-adar * Irudiko animalia	Gailena Hamar gehi bost	Putrea Aterea
	Maiz Karea egiteko labe		
Metal mota	Haizearen jostagarri		
Gar	Zakar, latz		
		Emakume izena Artsenikoa	Gabarra txikiak
Auto-ilara			
Nekagarri			
		Aluminioa 2	
Euskal sindikatua		Musika nota	Bokala
Haritz basoak		Kontsonantea	Bokala


GOIENKARIA

**soluzioak**



Jeroglifikoak: Ez dago irtenbiderik.

8	9	1	6	2	3	5	7
2	6	5	3	7	8	4	9
3	7	4	9	5	1	8	6
4	8	7	3	6	5	2	1
9	5	2	6	1	8	7	4
3	6	1	7	4	2	9	8
5	1	8	7	6	2	9	3
8	7	5	3	1	2	4	9
6	1	4	9	5	8	3	7



**sudokua**

6		4		5	8		7
8				1			
5			4		7		6
4	3						5 9
	2		5		3		4
				3			1
	5		2	6		9	8

**hieroglifoa**

Galduak gara!

Artenbide  
Ertenbide  
Ortenbide  
Urtenbide

**hizki salda**

Debagoieneko 5 mendiren izenak

A	Z	E	H	U	G	I	J	Z
N	U	B	O	S	H	K	A	L
D	E	D	I	M	A	I	R	U
A	N	U	A	R	R	O	I	G
R	A	D	H	L	K	E	N	O
T	S	E	T	B	A	T	D	I
O	N	G	A	E	I	I	O	R
D	E	M	E	K	T	O	T	A
D	I	Z	P	I	Z	T	E	Z

**bono fotoa**



**Eskualdeko ze herritan dago oroitarri hau?**

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobezibar

**Super BM** IFA

Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK.....  
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**San Miguel garagardoa**  
12 botilako packa

**3,90 €**  
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**  
Bergarako Begoña Pozarendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderaren erantzun zuzena: Aretxabaletan.



# ZAHARRAK BERRI SAIOA

**RA** zahARRak  
**BERRI**

Zure intereseko elkarrizketak,  
erreportajeak eta tertuliak  
batzen dituen programa berria  
daukazu **GOITBn**

Aste honetan:

EGUAZTENETAN **20:15**ean  
EGUENETAN **13:15**ean



**NOIZ:** Apirilak 23

**NOR:** Amaia Diaz de  
Monasterioguren. Dietista.

**GAIA:** Udaberrirako elikadura.

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**  
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

Babeslea:

  
URREZKO  
kutxa ZERBITZUA

Olatz Manuel Ezenarro > Heziketa fisikoko irakaslea Arizmendi ikastolan

# "Eskubaloiak bizitzarako baliagarriak diren balio ugari erakutsi dizkit"

18:30 arte Arizmendi ikastolan heziketa fisikoa irakasten du Olatzek. Eskolatik irten eta entrenamendurik ez duenean korrika egitera joaten da. Zapatu goizetan lan eta, arratsaldeetan, eskubaloi partidua. Opor garaian, maletaren ondoren, bizikleta eramaten du. Neska horren bizitza abiada handian doa, eta horrela izatea gustatzen zaio Olatzi.

NEREA MENOR > BERGARA

Olatz Manuel 26 urteko bergarra da. SHEE (IVEF) ikasketak amaitu eta, orain, Arizmendi ikastolan egiten du lan, heziketa fisikoko irakasle. Aloiñako senior taldean dabil eskubaloian, eta bere bizitzaren zati handi bat kirolaren inguruan mugitzen da.

**Zure egunak kirolaren inguruan mugitzen dira. Zure bizitza kirola dela esan dezakegu?**

Bizitzako zati bat dela, behintzat, bai. Nik egindako ikasketak kirolarekin guztiz lotuta daude -SHEE-, eta orain, heziketa fisikoko irakasle lanetan nabil Arizmendin. Gainera, aisialdiko denbora luzeena ere kirola egiten ematen dut.

**Eskubaloiko talde batean jokatzeko duzu. Nola doa taldea?**

Aloiñako senior taldean jokatu dut, zentral postuan. Liga txapelketa orain dela gutxi amaitu genuen eta, tamalez, azken hirugarren geratu gara; hala ere, oraindik badaukagu esperantzaren bat datorren urtean maila berean egoteko. Orain, kopa jokatzeko ari gara, eta lehenengo partidua irabazi egin dugu; ea lehenengo postuen artean bukatzen dugun! Taldeko giroa oso ona da, eta oso ondo pasatzen dugu.

**Eskubaloia da zure kirol kutunena? Zer eskaintzen dizu, bada?**

Orokorrean, kirolzalea naiz eta edozein kirol edo jardura fisikotara moldatzen naiz. Hala ere, eskubaloia da txikitatik egin dudana kirola. 12 urterekin hasi nintzen jokatzeko eta, agian, horregatik da berezia niretzat. Eskubaloiak balio ugari eman dizkit, nire eguneroko bizitzarako oso baliagarriak izan direnak. Horretaz aparte, lagun asko egin ditut; beraz, dibertimendua, lagunak eta parrandak ere eskaini dizkidala esan dezaket.

**Eskubaloiaz aparte, ze beste kirol praktikatzeko duzu normalean?**

Egubakoitzetan, Athlon-eko langileak kirolen bat egiteko elkartzeko gara, normalean, futbola edo saskibaloian jolasten dugu. Orain arte, astean hirutan, aerobikeko saioetara joaten nintzen, eta orain, horren ordean, korrika egitera joaten hasi naiz. Eguraldi ona egiten duenean, bizikleta hartzerara ere animatzen naiz.



NEREA MENOR

## PERTSONALA

**Herria:** Bergara, baina orain Antzuolan bizi naiz. **Adina:** 26 urte. **Zaletasunak:** Kirola praktikatzea eta bidaiatzea. **Gorrotatzen duzun zerbait:** Gezurretan dabilen jendea. **Mania bat:** Ezinezkoa egiten zait galtzerdiekin lo egitea. **Musika talde bat:**

Momentuaren arabera... baina, Hertzainak. **Zuretzako oparitzo bat:** Pelutzezko panpinak. **Gehien gustatzen zaizun kirola:** Eskubaloia. **Miresten duzun kirolari bat:** Dujshebaev. **Mendi bat:** Aizkorri. **Bidaiatzeko leku bat:** Italia ezagutu nahiko nuke.

**Arizmendi ikastolan irakasle eta koordinatzailea zara. Zer moduz konpontzen zara umeekin?**

Oso ondo. Umeak asko gustatzen zaizkit, eta gustura egoten naiz haiekin, nahiz eta, batzuetan, errietaren bat edo beste beharrezkoa izaten den.

**Oso pertsona bizia zara, ez zara inoiz geldi egoten. Kontatuko diguzu nolako den aste bat zure bizitzan?**

18:30 arte, lanean egoten naiz, eskola kiroleko koordinatzaile Arizmendi ikastolan, eta heziketa fisikoko saioak ematen DBHn eta TAFYDen. Eguazten eta egubakoitzetan, eskubaloiko entrenamenduak izaten ditut, eta astelehen, martitzen eta eguenean, aerobikeko saioetara joan izan naiz; orain, berriz, korrika egitera joaten naiz. Zapatuetan, goiz batzuetan lana izaten dut, eta arratsaldeetan, eskubaloi partidua jokatzeko. Eta domeketan, irteten den planaren arabera.

**Kirolak zure oporretan ere eragina duela esan digute. Ez duzu inoiz atsedetik hartzen?**

Asko gustatzen zait oporretako egun batzuk bizikletarekin bidaiatzeko erabiltzea. Lekuak bisitatzeko beste modu bat da. Gustura egiten dut, eta atsedetik hartzeko denbora ere ematen du; normalean, goizean goiz esnatu eta eguerdira arte bizikletan ibiltzen gara, eta arratsaldea hondartzara joateko, herria bisitatzeko edo zerbait hartzeko erabiltzen dugu.

**Kirolaz aparte, baduzu beste zaletasunik?**

Bidaiatzea, erosketak egitea joatea, bertso saioak ikustea, hondartzara...

**Egun osoa gora eta behera, zuretzako astirik baduzu?**

Aisialdia gustuko ekintzeekin betetzen dut; beraz, niretzako denbora dela esan daiteke. Lagunekin, berriz, oso gutxi egoten naiz, nahi baino gutxiago, eta mutil-lagunarekin bizi naizenez, gauero egoten gara.

**Nola deskribatuko zenuke zure burua eta nola ikusten duzu hura etorkizunean?**

Alaia, ez-puntual samarra, pazientziaduna eta zirikatzailea naiz. Pare bat urtean, behintzat, ez dut aldaketa handirik aurreikusten, baina nork daki!



AURKEZPENA Asier Sarasua eta Aintzane Agirrebeña, Badihardugukoak, eta Patxi Baztarrika sailburuordea. GOIENKARIA

EUSKARA > WEBGUNEA

# 'Euskal Herriko ahotsak' proiektua eta webgunea aurkeztu berri dute

Aurkezpena Donostiako Koldo Mitxelena egin zuten; proiektua 2004. urtean jarri zen martxan eta orduetik hona hainbat informazio batu dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA  
Eguaztenean aurkeztu zuten *Euskal Herriko ahotsak* proiektua eta webgunea Donostiako Koldo Mitxelena. Aurkezpenean izan ziren Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politika sailburuordea; Asier Sarasua, *Euskal Herriko Ahotsak* proiektuko kidea; eta Aintzane Agirrebeña, Badihardugu Euskara Elkarteko kidea.

*www.ahotsak.com* webgunea eguaztenean aurkeztu bazen ere, proiektuak aurrera jarraituko du, etengabe dabilta-eta materiala biltzen, lantzen eta datu-basea eguneratzen. Helburua da 2012. urterako euskal herri guztietako lekukotasunak jasotzea eta sarean jartzea.

**HERRI HIZKERAK KATALOGATzea**  
Proiektu horren helburu nagusia da Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzea; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarriketatuta eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea.

Egiten duten lanen artean dago jende nagusia bidez elkarriketatzea. Modu horretan, euskal herri guztietako hizkerak eta ahozko ondarea biltzeko asmoa dago. Gainera, lehendik eginda

ko grabazio zaharrak ere berreskuratzea dute helburu. Gero, materiala katalogatu, landu eta kodifikatzen dute; ondoren, datu-basean txertatzen dute. Azkenik, grabazioak transkribatu eta editatu eta informazioa sarean jartzen dute.

**PUBLIKOIA ETA DOAKOIA DA**  
Proiektua 2004. urtean jaio zen eta denbora tarte honetan jasotako informazioa zabala da. Webgunean 62 herritako hizkerak jaso dira, 986 hizlarirenak. Proiektu horren ezaugarri azpimarragarriena Euskal Herri osoko datuak biltzen dituen zerbitzu publikoia eta doakoa dela da. Gainera, proiektu irekia da; hau da, interesa duen edonork har dezake parte. Webguneak era guztietako hartzaileak izan ditzake: ikerlariak, ikasleak, zaleak edo senideak, beteak beste.

teknologia berriak

> BIDEOA

**Panasonic etxeak bideokamera berria jarriko du merkatuan hurrengo egunotan: AG-HVX205A**

Panasonic HPX-170 merkatuan jarri eta gutxira atera du Panasonic etxeak beste bideokamera bat. Azkeneko nobedadea AG-HVX205A da eta HVX-200 kamera ospetsuaren moldaera bat da.

Aurreko modeloaren ezaugarri bertsuak ditu. Nobedade aipagarriena 1080p60 formatuan grabatzeko duen gaitasuna da. Gainera, 1/3 hazbeteko 3CCD sentsorea dauka. Espresuki modelo horretarako egindakoa da. Salneurria: 4.300 euro.



Orokorrean aurreko modeloaren ezaugarri bertsuak ditu Panasonic bideokamera berriak.

> TELEFONOA

**Nokiak 6212 Classic berria datozen hilabeteetan merkaturatuko du Asian eta European**

Nokia 6212 Classic diseinu berria aurkeztu dute. Oraindik merkatuan ez dagoen arren, 2008ko hirugarren hiruhilabeteetan Asian eta European merkaturatzea da asmoa.

Erabiltzaileen artean artxiboak trukatzeko bidea ematen du telefono berriak; eta baita ordainketa txikiak egiteko aukera ere; autobusean egin beharreko ordainketa, adibidez. Baina zerbitzua poliki doala jakinarazi dute. Salneurria: 200 euro.



Kamerari dagokionez, bi megapixelean da; eta bi hazbeteko pantaila du.

> SOINUA

**'Metal Gear Solid 4' jokoarekin batera jarriko dute salgai joko bereko entzungailu ofiziala**

*Metal Gear Solid* gustuko dutenentzat egokia da. Izan ere, joko merkaturatu behar duten egun berean jarriko dute salgai Metal Gear entzungailua. Azpimarratu behar da jokoaren entzungailu ofiziala izango dela. Haririk gabeko entzungailua izango da eta zortzi orduko autonomia izango du; baina itxarote moduan 160 orduko autonomia izateko ahalmena izango du. Automatikoki itzaliko da. Salneurria 37 euro da. Ez da merkea, baina Metal Gear Solid zaleentzat egokia da.



Ezin izan beste modu batera: entzungailuaren koloreak jokoan oinarrituta daude. Beltza izango da kolorea.

## Zure negozioaren erakusleioa Interneten

[www.goiena.net-eko blog komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog-komertzialak)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

- |                 |                  |                    |                |               |
|-----------------|------------------|--------------------|----------------|---------------|
| /aebpn          | /dragon-oriental | /gorla             | /maulanda      | /udalatz      |
| /aiastui        | /dukiena         | /gurea             | /mayte         | /udalaitz     |
| /arantxa        | /ego             | /gutzieder         | /merkeopari    | /urdeki       |
| /aretxargi      | /eguzkigraf      | /hamaikataberna    | /multiopicas   | /ugartearotza |
| /argi-plastik   | /ekilore         | /itxaseder         | /ohiak         | /urbieta      |
| /arregi         | /ekin            | /irudisport        | /ogizun        | /urko         |
| /atai           | /elejalde        | /ixaun             | /okipark       | /vitoria      |
| /azkarate       | /ezkutuorly      | /izeder            | /optico        | /zainduz      |
| /bastida        | /galgorri        | /jcracing          | /otzeta        | /ziripot      |
| /briz-aseguruak | /gallastegi      | /lamaino-etxeberri | /pando         |               |
| /BZ-sistemas    | /ganesha         | /lorelan           | /perpipar      |               |
| /bolusukaldeak  | /garaia          | /korozabaleta      | /puerta-ingles |               |
| /denetik        | /gertu           | /kizkur            | /richimaier    |               |
|                 | /gorkataxi       | /markiegi          | /tabernerri    |               |

Eta baita ere:

- [www.aizue.com](http://www.aizue.com)
- [www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)
- [www.baster-aldejetexea.com](http://www.baster-aldejetexea.com)
- [www.ehmf.com](http://www.ehmf.com)
- [www.gelatu.com](http://www.gelatu.com)
- [www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)
- [www.haurboxa.com](http://www.haurboxa.com)
- [www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)
- [www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)
- [www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)
- [www.lilura.com](http://www.lilura.com)
- [www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)
- [www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)
- [www.biark.net](http://www.biark.net)



**Goiena.net**

## berriak

> 'EUSKALDUNAK HIZKETAN'  
**Baseri eta industria lanbideak nolakoak ziren ikusiko duzue**

Martitzenean 22:15ean eskainiko dute Goiena Telebistan *Euskaldunak hizketan* saioaren laugarren atala. Euskaldun nagusiek lehenagoko baseri eta industria lanbideak nolakoak ziren kontatuko digute. Aukera bikaina, hortaz, lehengo baseri giroa eta industria ezagutzeko; hain zuzen ere, erabiltzen zituzten lanabesak, industria eta baserri giroko filosofia... Denetik kontatuko dute.

> 'ZAHARRAK BERRI'  
**Biarritzeko Balleta ikusteko 50 sarrera zozketatuko dituzte**

Biarritzeko Balletak interpretatutako *El amor brujo* ikuskizuna ikusteko sarrerak gura badituzu, Goiena Telebistako *Zaharrak berri* saioak eman-gu dizu aukera. Maiatzaren 25ean izango da ikuskizuna, Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

Horretarako, Kutxako Urrezko Zerbitzuko bezero bazara, 943 00 08 34 telefonora deitu besterik ez duzu, saioak irauten duen tartean.

> ARRASATE IRRATIA  
**Politika kontuak bertatik bertara jarraituko dituzte**

Oraindik ere Arrasateko Udalaren etorkizuna argitu barik dagoen honetan, Arrasate Irratiko lankideek gai horren gaineko jarraipen zuzena egiten segituko dute, azken asteotan egin duten moduan. Egueneko (apirilaren 24ko) ezohiko osoko bilkuraren aurrekoak eta ondorengoak eta zentsura mozioaren egorearen gaineko azkeneko ordua helaraziko diete entzuleei, protagonisten euren ahotik.

> ARRASATE IRRATIA  
**Eva Argiñanoren azkeneko liburua zozkatuko dute**

Eva Argiñano sukaldari ezagunaren azkeneko liburua zozkatuko dute datorren astean irratan: *Atrévete con los postres de Eva Argiñano, la forma más fácil de aprender*.

Horrez gainera, Amaia Udal Antzokian izango den *Ipuin iberiarrak* antzezlanak ikustera joateko sarrerak ere zozkatuko dituzte.

Parte hartzeko: telefonoz (943 25 05 05), e-mailez (*irratia@goiena.com*) edo irratiko blegean: *goiena.net*.

'ILUNPEAN' &gt; EGUBAKOITZA, 22:15

**Ken 7 taldeko abeslari Eñaut Elorrieta, 'Ilunpean' saioan**

Musika talde ezagun bateko abeslaria bada ere, ez du musikatik bizi gura, irakaskuntza maite du-eta

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Gernikarra da eta Durangon bizi da. Azken urteotan oso ezagun egin den Ken 7 taldeko abeslaria eta gitarra-jotzailea da. Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoa ikasi zituen eta gerora maisu izatea erabaki zuen. Euskara eta ikastolak maite ditu eta izate hori gurasoengandik jaso duela dio. Egun, eszedentzian dago, baina laster itzuliko da ikastolara irakasle lanetara. Ken 7ko abeslariak ez du gura musikaz bizitzerik, bere pasiorik handienetakoa bada ere. Gaur izango da *Ilunpean* saioan (22:15) Iker Barandiaranekin berbetan.



EÑAUT ELORRIETA Ken 7ko abeslaria, argazkian.

IKER BARANDIARAN

'ERREPORTAJEA' &gt; ASTELEHENA, 21:47

**Version Original Clasicos enpresaren gaineko erreportajea, GOITBn**

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Iñaki Letek eta Jagoba Larrañagak Zabaldu zuten Version Original Clasicos enpresa Arrasateko Markulete industrialdean. 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetako autoak berritzen dituzte, batez ere

Porche eta Mercedes markakoak. Baina, horretaz gain, beste zerbitzu bat ere eskaintzen dute: Mercedes eta Porche marketatik kanpo, edonork bestelako auto klasiko bat beharko balu, bezeroak eskatutako hori hornitzeaz ere

ardurutzen dira; auto batzuk berritu eta beste batzuk saldu ere egingo dituzte, beraz.

Julen Iriondok lantegiaren gaineko erreportajea prestatu du datorren astelehenerako. Jagoba Larrañagaren eskutik, Version Original Clasicos enpresaren funtzionamendua erakutsiko digu; eraberritutako autoak erakutsiko dizkizute, nola iristen diren tailerrera eta nola irteten diren bertatik...

Hori guztia astelehenean izango da, 21:47an. Autozaleentzat eta auto klasikoaren zaleentzat ezinbesteko hitzordua, hortaz.

## telebegi

Gorka Etxabe

**Telebistaren azken joerak**

**E**gin berri da Frantziako Cannes hirian ikus-entzunezkoen sektoreko azoka handia. Munduko telebista guztietako programazio arduradunak gerturatu dira ekoizpenak entzun, ikusi eta erostera. Eta dakidanez, ETBko ordezkariak ere joan dira telebista saioen tendentziak zeintzuk diren ezagutzera. Datozen urteotan ikusiko ditugun saioetan, ekologia gaiak izango dira nagusi eta, beste zenbait ekoizpenetan, haurrak izango dira protagonista. Bigarren kategoria horretan sartu beharko dugu *The smoke house* telebista saioa, non sei gaztek Kristorenak eta bi egiten dituzten euren gurasoek erretzeari uzteko. Britainia Handian arrakasta handia izaten ari da, eta ziur nago laster ikusiko dugula gurean ere. Tokiko telebistek, berriz, ezin dute bizi Cannesera begira. Gure GOITB eta ezagutzen ditugun gainerako toki telebistak beste produktu mota bat ekoiztera behartuta daude, beste aurrekontu batzuekin eta, nola ez, gertuko edukiarekin. Dena dela, ez da txarra jakitea beste batzuk zertan ari diren. Beharbada, *erretzaileen etxea* gure formatura egokitu beharko dugu.

## arrasate irrata

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratu.  
*Ilunpean* saioa; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia eta gazteendako kontuak, besteak beste.

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratu.

**Astelehenerako egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo Autobusera  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Ilunpean  
Teknoberriak  
Igo Euriborrera!  
Kantaka  
Zaharrak Berri  
Astearren errepasoa  
Zozketak  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))  
11:55 Arrasateko albistek, labor.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko  
programazioa**Egubakoitza, 18**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Euskaldunok hizketan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportajea. 18:45 Albistek. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Animalia. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 19**

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik 13:00 Eltze beroa 13:30 Erreportajea. 14:00 Gertutik. 14:30 Erreportajea ttipa. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Euskaldunok hizketan. 19:30 Ikusten. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Eltze beroa 21:30 Erreportajea ttipa. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

**Domeka, 20**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 Euskal artzainak. 13:30 Euskaldunok hizketan. 14:00 Erreportajea. 14:30 Ikusmira. 15:00 Animalia. 15:30 28 klip 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Jazz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur 20:30 Erreportajea ttipa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Gertutik. 22:45 Erreportajea. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

**Astelehena, 21**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttipa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ikusten. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Animalia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

**Martitzena, 22**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Animalia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 23**


13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Euskaldunok hizketan. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Animalia. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Ikusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskal artzainak. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguena, 24**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Euskal artzainak. 14:45 Berriak. 15:15 Ikusmira. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ur eta lur. 16:17 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Teknopolis. 00:15 Emisio amaiera.



# Jatetxe Gida



## Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA  
943 71 45 66 [www.hotelazkoagaenea.com](http://www.hotelazkoagaenea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua



## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA  
943 76 55 00

### Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

### Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA  
943 79 24 58 [www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI  
943 78 19 56 [www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15  
[www.larrinetxe.com](http://www.larrinetxe.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

### Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**



## Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA  
943 76 50 99

### Eskaintza

- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

### Berezitasunak

- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

### Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI  
943 78 35 45

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

### Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

# Apirilak 18-24

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Kontzertua



ARRASATE

### > 80ko hamarkadako Spermbirds taldeak diskoa aurkeztuko du gaur 3.60an

Alemaniar Spermbirds punk-hardcore taldeak *Me and my people* delako diskoa eta DVDa aurkeztuko ditu gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan. Fly Shit eta Burux Lee taldeek ere joko dute. 22:00etan da hitzordua.

## Antzerkia



ELGETA

### > Zirkua eta antzerkia bateratzen dituen ikuskizuna egingo du Zirika Zirkusek

Etzi, domeka, *Bazen behin zirkoa* delako ikuskizuna izango da Espaloia antzokian, 17:30ean, Kultur Errotaren eskutik. Protagonistek, Loretsu eta Belintxe pailazoek, irakurtzen zein ondo pasatzen den erakutsiko diete umeei.

## Ospakizuna



OÑATI

### > Trikiti Egunaren aurreko ospakizunak egingo dituzte bihar, zapatua

Jazinto Rivas *Elgeta*-ri buruzko hitzaldia egingo du Iker Goenagak, kultura etxean, 19:00etan; 20:30ean, triki-poteoa egingo da, eta 21:30ean, afaria Etxeberria jatetxean. Trikiti Eguna datorren zapatuan izango da.

Zubillagaren artelanak Del Reyren poesiaren laguntzarekin erakutsiko dituzte. Bion bigarren elkarlana da; aurretik, *La mirada poética* delako erakusketa izan zuten Debagoieneko zenbait lekutan.

Maiatzaren 17ra arte egongo da berau bisitatzeko parada.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

### > Begiak taldearen argazki erakusketa, Hamaika tabernan

Begiak taldearen argazki erakusketa bisita daiteke Hamaika tabernan. Formatu handiko hamar argazkik osatzen dute, eta *Bizi-giroak ene begian* du izenburua.

Apiril osoan dago zabalik.

ARRASATE

### > Hitz, irudi eta musika erakusketa eta poesia irakurketa

Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako ekintzen artean, *Mugarri estaliak* delako erakusketa eta poesia irakurketa antolatu du Udal Liburutegiak. Hitzza (Castillo Suarez), irudia (Koldo Arnantz) eta musika (Juan Miguel Arzelus) bateratzen ditu erakusketa eta poesia irakurketa horrek.

Bisita ordutegia: apirilaren 27ra arte, Kulturateko klaustroan; poesia irakurketa, apirilaren 23an, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

## Lehiaketak

DEBAGOIENA

### > Ei Gazte! logotipo lehiaketa deitu du Eusko Ikaskuntzak

Eusko Ikaskuntzako Gazteria sailaren logotipoa diseinatzeko lehiaketa deitu dute. 16-30 urte bitartekoek parte har dezakete. Maiatzaren 15a da lanak bidaltzeko azken eguna, eta 1.500 euroko saria emango dute.

Argibideak, [www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org) webgunean.

BERGARA

### > Mendekosteetako zapirako marrazki lehiaketa

Jaietako zapirako marrazkia aukeratzeko lehiaketa deitu du Bergarako Jardun euskara elkarteak. A4 formatuan entregatu behar dira lanok eta, marrazkiarekin batera, euskararen erabilera bultzatzen duen lelo bat jarri beharko da.

Jardunen bulegoan, Errotalde jauregian, edo [jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com) helbidean aurkeztu behar dira marrazkiok. Mugaeguna apirilaren 25a da.

Argibide gehiago, Jardunen; 943 76 36 61 da telefono zenbakia.

## Musika

ARRASATE

### > Disko-jartzaile batek musika ipiniko du 3.60 aretoan

Alain (elektronische) disko-jartzaileak dantzarako musika ipiniko du bihar, zapatua.

Emanaldia 04:00etan hasiko da.

ELGETA

### > 'Gainsbourg gainbegiratu' emanaldia, euskaraz, gaur

Serge Gainsbourg zena gogoratzeko, *Gainsbourg gainbegiratu* delako kontzertu sorta egingo dute Garik, Diego Vasallok, Rafa Berriok (Amor a Traición, Deriva), Mikel Agirrek (La Buena Vida), Santi Gascak (Sanchís y Jocanoren beste erdia), Txuma Murugarrenek, Giorgio Bassmattik, Enrike Mingok, Jone Gabarainek (Le Mans), Saiok, Estanis Elorzak (Natural Project), Urko Menaiak, Luisa Etxeniketik eta Jorge Carrerok. Denek euskaraz abestuko dute.

Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

ARRASATE

### > IV. Udaberriko Musikaldien barruan, bi kontzertu

Honako kontzertuak izango dira datozen egunotan: batetik, Bilboko Udal Txistulari Banda eta Alos Quartet taldeen kontzertua, gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian; eta bestetik, zikloa ixteko, Conductus Ensemble taldea, bihar, zapatua, parrokan.

Bi emanaldiak 20:00etan hasiko dira.

OÑATI

### > Boss Martians eta Show Business taldeak, zuzenean

Boss Martians (Seattle, AEB) eta Show Business (Oñati) taldeek kontzertua egingo dute etzi, domeka, gaztelekuan. Sarrera, 5 euro.

Etzi, gaztelekuan, 20:00etan.

## Antzerkia

ARRASATE

### > Umorezko bakarriketa egongo da Iamai kafetegian

Paramount Comedy taldeko Martin Luna aktore komikoak umorezko bakarriketa egingo du, musikarekin lagunduta. Kontzezino kaleko Iamai kafetegian izango da. Errealitatearen gaineko bere ikuspuntu berezia azalduko du aktoreak.

Gaur, egubakoitza, gauerdian.

BERGARA

### > 'Inaxitoren ametsak' bertso-antzerkia egingo dute

Adin guztietako ikusleendako *Inaxitoren ametsak* delako bertso-antzerki emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Angiozarren. Kutxak lagundutako emanaldia da.

Gaur, egubakoitza, Angiozarko saloian, 18:00etan.

ELGETA

### > Ipuinak kontaktuko dituzte Espaloian bi kontalarik

Ipuin kontaketa emanaldia egingo dute Jose Campanarik (Argentina) eta Pablo Albok (Alacant) bihar, zapatua.

Bihar, Espaloia antzokian, 22:30ean.

OÑATI

### > 'Txitxarra eta inurria' antzez-lana egingo dute bihar, zapatua

*Txitxarra eta inurria* delako antzez-lana egingo du. Markeliñe taldeak. Sarrerak 3 eurotan salduko dituzte.

Bihar, Santa Ana antzokian, 17:00etan.

BERGARA

### > Antton Irusta ipuin kontalarik emanaldia egingo du bihar

Antton Irusta ipuin kontalarik umeei zuzendutako ipuin kontaketa emanaldia egingo du bihar, zapatua.

Kultura etxean, 18:00etan.

## Erakusketak

BERGARA

### > Nekane Eskibel bergararraren margolanak, erakusketa

Nekane Eskibel bergararrak margolanak ipini ditu erakusketan. Hain zuzen, hogeitau lan dira, olio teknikan eginak, tamaina txiki eta ertainekoak. Etxeko abereak eta inguruko paisaiak margotzen ditu, batik bat. Rikardo Azkargortaren ikaslea da, eta honakoa da bakarka egiten duen lehenengo erakusketa.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan dago erakusketa.

ARRASATE

### > 'Libelandula' marrazki eta poesia erakusketa Harresin

Maite del Reyk eta Maider Zubillagak *Libelandula* erakusketa ipiniko dute Harresi aretoan datorren martitzenean.

## PROPOSAMENA

DEBAGOIENA

### > Liburuaren Eguna dela eta, hainbat ekintza egongo dira

*Bat ekarri, bi eruen* liburu azoka egingo dute Eskoriatzan (bihar) eta Aretxabaletan (egunean).

Bestalde, Oñatiko kultura etxean, *Liburu bat egiten* erakusketa, euskal egile ezagunen zuzenketak eta marrazkiak ipiniko dituzte, astelehenean.

Bergaran, eguaztenean, liburutegi zerbitzua Herriko plazan egongo da. Gero, 17:15ean, Mattin ilustratzaileak saioa egingo du.

Azokak: Eskoriatzan, 18:00etan; Aretxabaletan, 11:00etan.



ARRASATE

> **'Sexmetraia 08' film laburren lehiaketa deitu dute**

Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak *Sexmetraia 08* lehiaketa deitu du, aurten bigarren aldiz. Helburua da, film laburren bitartez, sexualitate bizitzeko dauden modu desberdinak kaleratzea eta goraiatzea. Film laburren gaia da sexualitatea eta horren barruan dauden aukerak. Filmok aurkezteko mugaeguna irailaren 30a da. Lehen saria 1.500 eurokoa da; Sexologia Euskaraz saria, 600 eurokoa.

Aurten, gainera, Sexmugi delako atal berria dago: sakelako telefonoz grabatutako film laburrak, gehienez ere 60 segundokoak. Honako helbidea bidal daitezke: *sexologiazerbitzua@arrasate-mondragon.net*. Atal horretan, 300 euroko saria emango dute.

Argibide gehiago, Sexologia Zerbitzuan (943 25 20 66) edo *www.sexologiazerbitzua.com* webgunean.

**Bestelakoak**

OÑATI

> **'Ez dok-badok amairu' jardunaldietan, Benito Lertxundi**

Elkar Hezi ikastetxeak antolatutako *Ez dok-badok amairu* jardunaldien barruan, Benito Lertxundi, Jose Luis Treku (Oskarbi taldea) eta Pako Aristik *Euskal kantagintzaren eta olerkigintzaren bide uherretatik haratago, esperantzarik ote?* delako hitzaldia egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

OÑATI

> **Kirol Festa antolatu du biharko Oñatiko Herri Eskolak**

Kirola egitearen onurak aldarrikatuz, arratsalde pasa atsegina egingo dute bihar, zapatua, herri eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek II. Kirol Festan. Lehenengo, Errekalde auzoaren bueltan lasterketa egingo dute; gero, herri kirolak, irakasle eta gurasoen arteko partidua eta kirol eta joko gehiago izango dituzte, eta bukatzeko, merienda.

Bihar, zapatua, Errekalde Herri Eskolan, 16:30ean hasita.

OÑATI

> **Espazioaren inguruko zientzia tailerra dago gaur gaztelekuan**

Ilatargi Astronomia Taldeak antolatuta, espazioarekin lotura duten eta Lurrean erabiltzen diren teknologiak ezagutzeko zientzia tailerra izango da.

Gaur, gaztelekuan, 18:30ean.

OÑATI

> **Joxe Mari Iturralde idazlearen berrikeretaldia egiteko aukera**

Joxe Mari Iturralde (Tolosa, 1951) idazlearekin literatura berrikeretaldia egiteko aukera izango da eguaztenean, Liburuaren Eguna. Liburutegiko bazkideek liburu bana opari hartzeko parada izango dute.

Eguaztenean, kultur etxean, 19:00etan.



**12 hombres sin piedad \*\*\*\*\***

Zuzendaria: Sidney Lumet.

Aktoreak: Henry Fonda, Martin Balsam, Ed Bins, Lee J. Cobb, E.G. Marshall. AEB, 1957. 96 min. 13 urtetik gorakoendako.

Sidney Lumet zuzendaria, *12 hombres sin piedad* maisulanarekin, erakutsi zuen zinema bikaina egiteko nahikoa dela, orduan eta gaur egun ere, gidoi on bat, euren pertsonaia sinisten duten aktoreak eta, batez ere, ikusleak bere sentitzen dituen sentimenduak eta egoerak erakustea.

Filmean, 18 urteko mutiko bat epaitzen dabilza, aita-ordea hil izana egotzita; errudun aitortuz gero, aulki elektrikora eramango dute. Azken hitza izenburuak iragartzen dituen *gupida gabeko gizon* horiek dute. Film gehiena eztabaidatzen diren gelan dago giroa. Hasieran, Zortzigarren Epaimahaikoak –pertsonaien izenak ez zaizkigu esaten, ustez, egoera eta sentimendu unibertsal horiek ikusleak hobeto beregana ditzan– ez beste guztiek erruduntzat dute; baina gizon bakar horrek bere iritzian sinisten jarraituko du.

Egoera horretatik abiatuta, suspentsezko zinemaz azpigerenero bilakatu den epaitegi dramaren mugak garbi gainditzen dituen istorio bat garatzen da, Zortzigarren Epaimahaikidea gainerakoak konbentzitzen ahalegintzen den neurrian. Epaimahaikide bakoitzak bere izaera du; ez dira klizez osatutako pertsonaiak. Ikusleak honekin eta harekin identifikazioa sentitu ahal izango du, aurkezten zaizkion argumentuen eta egoeren arabera, eta konturatuko da begi aurrean daukana, une horretako pertsonaia eta gertaren gainetik, denok ulertzeko eta bere egiteko moduko kontakizun bat dela, hainbat gairen inguruko gogoeta proposatzen duena: zer den justizia, zergatik egiten dugun gauza baten edo beste baten alde, zeintzuk diren gure motibazioak... eta hori dena, emozioz betetako narrazio baten eskutik. Edozein zinemazalek ikusi beharrekoa da *12 hombres sin piedad*.

**Leire Kortabarria**

Zinema

**ARAMAIO KULTURA ETXEA**

Huck eta Tomen abenturak Mississipi Domeka: 17:00.

**ARRASATE AMAIA ANTZOKIA**

Juno Zapatua: 19:30, 22:00. Domeka: 19:30.

Horton Domeka: 17:00.

Lejos de ella Eguena: 20:30.

**BERGARA GAZTETXEA**

Persépolis Domeka: 19:00.

**ELGETA ESPALOA ANTZOKIA**

12 hombres sin piedad Eguaztena: 21:30.

**OÑATI KULTURA ETXEA**

4 meses, 3 semanas y 2 días Egubakoitza: 22:30. Zapatua: 22:30. Domeka: 19:30, 22:30. Astelehena: 19:30.

'Ama Lur', ahalarren eresi epopeiakoa Eguena: 20:00.

**EIBAR UNZAGA**

Expiación Egubakoitza: 19:30, 22:15. Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15. Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**Juno \*\***

AEB, 2007. Zuzendaria: Jason Reitman. Aktoreak: Jennifer Garner, J.K. Simmons.

92 min. 13 urtetik gorakoendako. Juno MacGuff nerabeak bere buruari ezarritako arauak bakarrik jarraitzen ditu. Bizitza zeharo aldatuko zaio haurdun geratzen denean.

**La familia Savages \*\*\*** AEB, 2007. Zuzendaria: Tamara Jenkins. Aktoreak: Laura Linney, Philip Seymour Hoffman.

113 min. 13 urtetik gorakoendako. Anai-arreba batzuek eguneroko bizitza alde batera utzi behar dute aita zaintzeko, nahiz eta haren gainetik urrutiduta egon.

**Rebobine, por favor \*\*\*\*** AEB, 2007. Zuzendaria: Michel Gondry. Aktoreak: Jack Black, Mos Def, Danny Glover.

101 min. Denondako. Jerry sinistuta dago zentral elektriko bat burmuina urtzen ari zatzaola, eta berai sabotatzen saiatuko da.

**GASTEIZ GURIDI**

8 citas 17:30, 20:00, 22:30.

El último mago 17:00.

Rompiendo las reglas 17:30, 20:00, 22:30.

Expediente Anwar 17:00, 19:45, 22:30.

Papá por sorpresa 17:30.

Todos estamos invitados 18:45, 20:30, 22:30.

La familia Savages 17:00, 19:45.

Retratos del más allá 22:30.

21: blackjack 17:30, 20:00, 22:30.

Los falsificadores 20:00, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

Elegy 17:30, 20:00, 22:30.

Joe Strummer (el futuro no está escrito) 17:30, 20:00, 22:30.

Mil años de oración 17:30, 20:00, 22:30.

La edad de la ignorancia 17:30, 22:30.

Cashback 20:00.

Fuera de carta 18:00, 20:15, 22:30.

Al otro lado 18:00, 20:15, 22:30.

La banda nos visita 18:00, 20:15, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Expediente Anwar 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Casi 300 20:35, 22:15, 23:55.

La noche es nuestra 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

8 citas 12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Rompiendo las reglas**

12:15, 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 00:25.

El último gran mago 20:30, 22:30, 00:30.

No es país para viejos 12:15, 16:05, 18:20.

Las ruinas 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

10.000 20:25, 22:35, 00:45.

Las crónicas de Spiderwick 12:15, 16:25, 18:25.

Horton (infancia) 12:15, 16:00, 18:00.

Rastro oculto 20:00, 22:00, 00:00.

Papá por sorpresa 12:15, 16:20, 18:30.

Mi monstruo y yo 12:15, 15:45.

Fuera de carta 12:15, 15:30, 17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

Todos estamos invitados 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

El territorio de la bestia 12:15, 16:30, 18:30.

The contract 20:35, 22:35, 00:35.

Retratos del más allá 12:15, 15:45, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

21: blackjack 12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

Baina, horretan dabilela, magnetizatu egiten da, eta bere lagun onena, Mike, lanean diharduen bideoklubeko zinta guztiak ezabatu egiten ditu.

**Rastro oculto \*\*** AEB, 2007. Zuzendaria: Gregory Hoblit. Aktoreak: Diane Lane, Billy Burke, Colin Hanks.

100 min. 18 urtetik gorakoendako. FBIko kide Jennifer Marsh-ek, gaueko, Interneten bilatzen ditu kreditutxartel faltsifikatzaileak eta sexuharrariak.

**Los falsificadores \*\*\*** Alemania-Austria, 2007. Zuzendaria: Stefan Ruzowitzky.

Aktoreak: Karl Markovics, August Diehl, David Striesow.

98 min. 13 urtetik gorakoendako. Salomon Sorowitsch faltsifikatzailea naziek 1944an kontzentrazio-esparru batera bidaltzen dutenean, eurekin lan egitea onartzen du biletak faltsutzeko eta horrela gerra finantzatzeko.

**ÁBACO BOULEVARD**

10.000 16:05, 18:15.

Elegy 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 01:00.

Expediente Anwar 17:00, 19:30, 22:20, 01:00.

21: blackjack 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

Las hermanas Bolena 22:20.

Horton 16:15, 18:15.

Casi 300 16:00, 18:00, 20:10, 22:05.

La noche es nuestra 17:30, 19:30, 22:15, 01:00.

Papá por sorpresa 15:50, 18:05, 20:20.

Las ruinas 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Rastro oculto 20:30, 22:40.

Las crónicas de Spiderwick 16:00, 18:10.

Fuera de carta 15:50, 18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

El último gran mago 20:25, 22:30, 00:30.

Retratos del más allá 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:45.

The contract 20:20, 22:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

**nire aukera**



**Bixen Calzon**  
Aretxabaletako kirol arduraduna

**"Denbora gehiago behar dut"**

Bailarako Realeko arduraduna naiz, eta, aste bukaeran, partidua ikusten ibiltzen naiz bailara osoan zehar. 14-15 urte bitarteko gaztetxoek futbol partidua ikusten ditut eta, gero, horiei buruzko informazio idazten ditut. Zapatu goizetan eta arratsaldeetan partidua egoten dira, eta baita domeka goizetan ere, beraz, ikusten duzuenek, asteburu osoa igarotzen dut partidutik partidura.

Asti gutxi izaten dut neskaekin edo lagunekin egoteko, baina, libre nagonean, horretara dedikatzen dut nire denbora.

**Realean egiten duzu lan, baina zertan datza?**

Debagoienean jokatzeko partidua ikustera joaten naiz. Jokalari buruzko txosten edo informe bat osatu behar dut Realera bidaltzeko. Realeko progresio onena duten edo gehien nabarmentzen diren jokalariek hautatzen dituzte, ondoren Zubietara eraman eta ebaluatzeko.

**Nola heltzen zara partidu guztietara?**

Garrantzitsuenak ikustera joaten naiz, hiru bat astero. Kartelera begiratu eta nire burua antolatzen dut. Normalean, zapatuan eta domeka goizetan joaten naiz lanera, baina, zerbait garrantzitsua egonez gero, domeka arratsaldean ere joan behar izaten dut.

**Lanak denbora uzten dizunean, zer egiten duzu aste bukaeran?**

Partidurik ez daukadan asteburu normal baten, neskarekin eta lagunekin egoteko aprobetxatzen dut. Planak asteburuan bertan pentsatzen ditugu. Batzuetan kanpora joaten gara, Donostiara, adibidez.

**Aste bukaerarako plan perfektu bat?**

Denbora edukitzea lagunekin eta neskarekin egoteko, eta niretzako denbora edukitzea, nire kasa mendira joateko edo bizikleta hartzeko.

# Lutheriaren artea ibarrean

**AITOR ARROITAJAUREGI** Tailer bat dauka Eibarren eta ganba biolak egiten ditu, gehienbat

**BERBALDIA** Astelehenean biolin gainera emanaldi eman zituen Bergarako Musika Eskolan

NEREA MENOR > BERGARA

Ander Arroitauregi eibartarra luthierra da. Sokazko instrumentuak egin eta konpontzen ditu. Bilboko kontserbatorioan sartu eta flauta ikasketekin zebiltzan bitartean lutherian matrikulatu zen. Hiru urte inguru pasa zituen arte horrekin, eta espezializazioa egitera Londresera joan zen. Bertan, musika tresna barrokoetan espezializatu zen eta ikasketak horien barruan ganba biola jorratu zuen bereziki.

Londrestik Frantziako herri txiki baten ibili zen aprendiz lanetan, "Osintxu bezalako herri txo bat zen, baina askotan ematen zituzten kontzertuak instrumentu barrokoekin; alde horretatik, kultura handia zegoen. Hemen dagoeneko ez dira horrelakoak egiten", dio. Nahiz eta bera aprendiz moduan ibili, esa-

ten zigunez, hemen ez dago aukerarik horrela aritzeko: "Frantziako Gobernuak laguntzak ematen ditu aprendizak kontratatzeke. Hemen, ostera, ez dago halakorik. Laguntza ematen die artisauetara irekitzerakoan, baina hortik aurrera, ezer ez".

Duela hamar urte, artisau tailer bat ireki zuen Eibarren eta, gehienbat, ganba biola baxuak egiten ditu bertan. Asko gustatzen zaio bere lana. "Badakit ez naizela aberastuko, baina gustatzen zait; lan ederra da eskuekin gauzak egitea eta soinu polita ateratzen duten instrumentuak sortzea", esaten du.


**EMANALDIA BERGARAN**

Aurreko astelehenean, Bergarako Musika Eskolan bi berbaldi egin zituen eibartarrak, bat umeendako eta beste bat helduentzako.

Musika eskolako ume asko joan ziren berbaldiram eta galdera asko egin zituzten, eurak ere musika kontuetan adituak direla erakutsiaz.

Arroitauregi biolinei buruz aritu zen hitzaldian. Hasteko, zerrategiko langileak 2.000 metro-tara igotzen dira zuhaitz bat aukeratzera. Egurra zatitu eta hamar urte lagako da lehortzen. "Kalitatezko egurra gogorra eta arina izan behar da", esan digu eibartarrak, "izan ere, sokazko instrumentuetan arimak berebiziko garrantzia du, baita zubiaren lodierak eta tentetasunak ere".

Biolin bat egiteko hilabete inguru behar dela azaldu du, eta biola bat egiteko, hiru hilabete. Instrumentuak egiterako orduan, hiru egur mota erabiltzen ditu: izeia, astigarra eta Afrikatik ekarritako ebanoa.



LUTHIERRA Biolinak egiteko pausoak azaldu zituen berbaldian.

NEREA MENOR

## ahobero

**"NATOk bilerei begira onena, zazpi hilabeteko haurdun dagoen emakumea jartzea izan da; gainera, antimilitarista bada, hobe"**

Antonio Burgos > Kazetaria

Zapateroren ministroen gainean esandakoak dira. Carmen bonboduna ere deitu diote Chaconi, haurdun egoteagatik. Berdintasunik ez dagoen seinale garbiena.

## iturri onetik

**Mahaster River taldea apirilaren 26an hasiko da bigarren diskoa grabatzen**

Datorren astean hasiko da Mahaster River hirukote beragarra bigarren diskoa grabatzen. Hain zuzen, hilaren 26an sartuko dira Andoaingo Garate estudioan. Hamar abesti berri grabatzea da beragarren asmoa.

Bestalde, ekainean Bergaran ospatuko den Mundumira jaian kontzertua eskainiko dute. Domekan izango da, ekainaren 8an, agertoki nagusian, 12:00etan.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

### Mozioa

Lehen mozioa -etikoa omen- 24an izango da Arrasateko udalean. ANVk egin lezake orain artekoa baina zerbait gehiago: bere estatutuak gogorarazi. Hala ere, ez luke ekidingo bigarren mozioa, baina bai nabarmenduko jadanik gaitzespenarena aitzakia besterik ez dela. PSEri aukera egokitu zaio eta lotsatu gabe -lotsagabe- erabili du, *sin complejos*. EAJri eginkizun zatarrak egokitu zaio -Madrilgo negoziazioa, barneko gerra- baina hala ere bereziki narras dabil. EBk dauka alkatetzarako giltza eta imajina daiteke nola izango duten belarria Josebak eta Anderrek.

Ino harrapatuta ikusten dut, lehen ordutan ezin izan zuten egoera bideratu eta honezkero gustura ere utziko du alkatetza. Jasanezina izan behar du hainbeste irainen jomuga bihurtzea.

## ai, ene!



**Munduko noria handiena eraikiko dute Txinan**

207 metro garai izango da noria hori eta 1.920 lagun hartzeko ahalmena izango du. 2009rako eraikitzea espero dute.

[www.tecnosquad.com](http://www.tecnosquad.com)



## Denentzat...

Maalako Errabala 13  
ARRASATE  
943 79 92 76

UNITED COLORS  
OF BENETTON.